



# KARANBOLA TOXIKOAK

ANDONI URZELAI

**ANDONI URZELAI**

# **Karanbola toxikoak**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2015 Andoni Urzelai

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2015eko urria

Edizio hau: 2015eko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

*Jone Mireni,  
etxekoei,  
lagunei.*

Pleased to meet you  
Hope you guess my name  
But what's puzzling you  
Is the nature of my game

THE ROLLING STONES

*Sympathy For The Devil*

# 1

## #Anonimoa

Whiskia sagardo basoan zerbitzatu eta, gero etorriko diren hogeitazigarroetako bat isiotu ondoren, twitterreko kontuan sartu da Beñat. Deabru Zikinaren txio zahar batzuk irakurri ditu: «Iñigo Urkulluren zakurrak katua jaten du. Eta badakizue zertaz ari naizen». «Gorka Maneiro infiltratu bat da. Kennedy ere gure laguna zen». «140 karakterreko doktrinak babesten dituzte twitterreko zentinelek, egin kontu zein den haiek gurtutako guruen maila». Txarrak iruditu zaizkio.

Pentsakor gelditu da pantaila aurrean, hitz egokien bila balebil bezala. Bere azkeneko hitzak aukeratu behar ditu.

Berriz erreparatu die beste txio batzuei: «Euskara ostikoz jotako baloi bat delakoan, ez gara jabetu Gaizka Garitano zer esaten ari zitzaigun». «Euskal intelektuala gaztelurik gabeko mamua bezain gauza negargarria da». «Uxue Barkos ez da gure lehen Lehendakari emakumezkoa izango. Yolanda Barcinak historia egin du. Ez ukatu». Arinak eta errazak.

Ordubete luzea igaro du bere azkeneko txioaz hausnartzen. Baina berez gogoan dabilkiona kalkulu bat besterik ez da, hauxe: behin txioa sarean, zenbat denbora beharko ote du Poliziak egilea atzemateko? Bost bat ordu, erabaki du.

Hasperen akitu bat eginez jo du jakinarazpenetara. 93 erabiltzailek bertxiotu dute dagoeneko Deabru Zikinak bart arratsean jaulkitako mezua: «Beaumontar bat Nafarroako Gortean. Espainiako Errege berria eta Albako Duke guztiak urduri jarriko dira berriro. Deskonkistatu zaitezte!». Goizaldean botatakoa nagiago dabil, antza: inork ez du oraindik amurik irentsi. Hamabi jarraitzaile berri batu zaizkio. Beñaten alter egoak 50.000 txio emanak ditu honezkero. Aspertuta dago.

Azkeneko testua idatzi baino lehen irakurri ditu gehiago: «Esther Ferrer ikusi dut Bilboko Henao kalean eta enao seguru nora doan, nondik datorren». «Esaldi batek mundua aldatu zuen: eguzkiari biraka dabil lurra. Argi dago: fotosintesia da etorkizuna». «Gerturik daukagu odola Repsol-en alde emateko? Oh, God! (and The Old Law) Save Josu Jon». Baina grazia apur bat egin diona hau bakarrik izan da: «Petilla

Gure Esku Dago! Ramon y Cajal eta Besteak Askatu! Irailaren 8an Manifa!».

Erabakia hartuta dago. Azkeneko txioa idatzi du, 50.001.ena. Bere existentzia zibernetikoaren spoile-rra. Saguarekin klik egin du eta irribarre bat okertu zaio. Deabru Zikinaren adiozko txioak marka guztiak hautsiko dituela pentsatu du.

Zorioneko egunak izan ziren twitterreko haiek Beñat Iburgurenentzat. Itzultzailea ofizioz, eginbehar maiz aspergarritik aldentzeko aukera aparta eskaini zion sareko existentzia paraleloak: *Deabru Zikina*. Zeregin asegaitza, laster egiaztatu ahal izan zuenez, zenbat eta ospe handiagoa orduan eta ardura zorrotzagoa eskatzen baitzion. Baina izugarri atsegina era berean, beste ezerk ez bezala suspertzen zuen-eta ardura arteko bizimodu ezdeusa. Izan ere, nonbait esker gaiztoko lanbiderik bada, itzultzailearena da. Zenbat ahalegin eta sufrikario inortxok aintzat hartzen ez zituen lanetan emanak! Zortea partitzen zuenak adarra jo zion: erdipurdiko idazle handiusteen morroi izatera kondenatu zuen halabehar madarikatuak. Gustura alboratu zituen pilatuta zeuzkan enkargu nardagarri guztiak. Popatik Coelho eta enparauen idazkera makal

eta pinpirina taxutzeko izerdi imposibleak! Bila zezate-  
la Oklahomako bazterretan beste beltz bat!

Eta twitter hartan murgilduta, ganoraz jateari ere  
utzi zion naturaltasun osoz. Mokadu bat ahoratzen  
zuen tarteka, latako sardinak normalean, jakirik sin-  
pleena prestatu beharrak denbora galtzea baitzeka-  
rren. Ez zen soilik fundamentuz jateak erosketak egi-  
tera behartzen zuela, ez hori bakarrik behintzat. Kale-  
ra irten beharrak, hortzak garbitu, dutxatu eta arropa  
egokia janztera ere derrigortzen zuen; eta zeukan  
denbora urria lelokeriatan xahutzea zen hori: ardura-  
gabekeria tamalgarria.

Plaza publikoan kosta ala kosta nabarmendu  
nahiaren ordainak dira horiek: egoa puzten joango  
zaizun neurri berean mehetuko baitzaizu begiramena:  
zeure buruarenganakoa eta besteenganakoa. Beñat  
Ibargureni ez zitzaion piperrik inporta gauez zein egu-  
nez kamiseta zarpail berberarekin ibiltzea. Alderan-  
tziz, iruditu zitzaion zenbat eta ingurune narrasagoa  
orduan eta zaluago funtzionatzen zuela bere asmame-  
nak. Zentzugabeko teorema. Hurrengo asteetan ez  
zuen ez hortzik garbitu, ez bizarrik egin, ez dutxarik  
hartu; eta sarritan, nagikeriagatik edo plazer hutsaga-  
tik, baineran egiten zuen pixa. Etxeari, noski, ez zion



bere buruari baino arreta gehiago eskaintzen: edonon botatzen zituen zigarrokinak eta bata bestearen gainean pilatzen kafe kizarak harraskan. Kiratsa zerion egurastu gabeko aire ustelari. Baina nola diren gauzak, arnasaldi kontaminatu haietako bakoitzak ideia eta burutaldi gero eta biribilagoak ernarazten zizkion.

Deabru Zikina izengoitiarekin itzal eta ospe handiko pertsonaia bilakatua zenez gero, aldika ahaztu ere egiten zuen noizbait Beñat Ibarguren izan zela. Bazeuden interneten foroak non Deabru Zikinari buruz eztabaidatzen zen. Intelektual probokatzailatzat harturik, miretsi egiten zuten askok. Beste zenbaitentzat gupidarik gabeko putakume bat baino ez zen, baina batek daki zergatik, hauen erdeinuei ere errespetuzko ukitu ikaratia antzematen zitzairen. Beñat zenak, harro, talalaia batetik behatzen zituen berak asmatutako pertsonaiak sortutako ika-mikak. Gauza bakarra zuen txarretik inportante izate guzti hark: une oro guardian ego-tera behartzen zuela. Deabru Zikinak arkeologo baten pazientziaz arakatzen zituen interneteko bazterrak, gai xeblebre edo interesgarrien peskizan. Ez hori bakarrik, cool izatearen edo ez izatearen iraungipen data hain zen laburra eta arbitrarioa, ezen hanka-sartze tontoenak ostrazismora kondenatuko zintuen usteka-

bean; edo, deskuidatuz gero, barregarri utziko, eta horrek, esan gabe doa, irabazitako guztiaren galera bat-batekoa zekarren.

Boladako teleserieak -*Breaking bad* edo *True detective* jasanezinak- begiak kliskatu gabe irentsi behar izaten zituen bata bestearen atzean. Baina era berean, sinesgaitza dirudien arren, *Sálvame* saio guztiak ere ikusten zituen, sarean barreiatutako armada egoskor hark -gerrillari nihilista setatsuak, denak ala denak- iturri guztietatik edaten baitzuen. Beñat zena-ri ez zitzaizkion ez batzuk ez besteak gustatzen. Telesail modernoak sufriezinak iruditzen zitzaizkion, hain zen agerikoa bai gidoi eta bai irudietan islatzen zuten banitate estetikoa. *Sálvame* eta antzeko saioei jarraitu beharra, ostera, umiliagarria zen, gupidarik gabe higitzen baitzuten bera bezalako aktibista apurtzailearen ohorea.

Beñat izan zena birritan pentsatu gabe murgildu zen Deabru Zikinaren existentziaren behar neketsu horietara. Sareko liderretako bat izatera iristeak me-rezi zuen hori eta gehiago! Transparentea izana baitzen garai bateko Beñat, ezertan eragiten ez duen pertsona arrunt horietako bat. Lekutik zutitzen direnean aulkia zegoena bezain hotz uzten dutenetakoa.

Hezur haragizkoa barik, hautsezkoa balitz bezala, iku-sezina, izaki ñimiño eta hutsala, zoruan apenas itzal mehe ezdeus bat proiektatzen zuena. Eta hara!, behingoagatik gauzak aldatu egin ziren. Aintzat hartzen hasi zitzaizkion, jaramon egiten zioten.

Beñat Iburgurenak ez luke jakingo esaten noiz hasi zen deskalabrua. Gauza horiek oharkabean etortzen baitira: goiz batean ahazten du batek ispilu aurreko ohiko miaketa eta, banitateak utzietsia, erortzen da balkoitik behera gutxien usten denean.

Mezu pertsonal andana iristen hasi zitzaionean ireki zen, akaso, bere nortasun eraiki berria birrinduko zuen arrakala. Dozenaka hasieran, zientoka ondoren, denak ziren mirespen mezuak. Liluraz mintzo ziren Deabru Zikinaz, fededunak eta nerabe mozoloak idealizatutako totemez mintzo diren era ergel horretan. Bazeuden, nola ez, anonimotasunaren babesetik botatuko krudelkeriak ere. Babes anonimo berbera erabiliz itzultzen zizkien noizean behin irain krudel eta latzagoak. Airean emandako ostikoak bezain antzuak irudituz zitzaizkion erantzun haiek, dena den; pertsona erreala laidotzen baitzuten isekak, ez goitizen irrealak. Nolabait ere, anonimotasunaren estalpetik ihardetsi beharrak bere erantzunak indargabetzen zituela sen-

titu zuen. Bazter guztietatik tropelean zetozkion ofentsa haien alboan purrustada inofentsiboak baino ez ziren berak ordainetan botatakoak, kamutsak baitira gortinen atzean gordetako iruzurgilearen hitzak, ez baitute ezelango botererik. Duelu bati gezurretako pistola batekin aurre egitea bezalako zerbait zen hura: groteskoa.

Edozelan ere, ez zuen gertaera horrek Deabru Zikinaren inguruan eraikitako fartsa hura eraitsi, gaur arratsaldean bertan jazotako beste batek baizik.

Existentzia ikusezin lanbrotsu horretara kondentzen zion alter egoaz gogaituta, noizbait Beñat izandakoak zera erabaki du: behin betiko ezerez fantasma-gorikoan desegin baino lehen, hobe duela bere izaera erreala berreskuratzea. Lehengo Beñat haren baitara berrindartuta itzultzeko gai sentitzen da; sinetsita dago, asmatutako nortasunetik jaso duela halako izaera berri kementsu bat.

Etxea txukundu du. Deabru Zikinak bazterretan utzitako arrasto narrasak desagerrarazi ondoren, dutxa bero bat hartu du. Harrikoa egiteko erabili ohi duen espartzuaz igurtzi ditu gorputz atalak. Hala behar zuen, larruazalera sendo itsatsita baitzeukan alter egoaren patina likatsua. Bizarra egin, ispiluan

ikusitakoari oniritzia eman, arropa berrienak jantzi eta etxepeko tabernara jo du. Arratsaldeko laurak dira. Ordu aproposa, pentsatu du eskaileratan behera doala, lauretan biltzen baitira goizeko txandan kateatutako lagunak tabernan.

Bidaia luzetik edo erbestetik datorrenaren tanke-  
ran sartu da tabernara: txalo zaparrada artean eta bi-  
baka hartuko duten esperantzaz. Ez da, ordea, halako-  
rik gertatu. Han daude Mikel eta Patxi unibertsitateko  
irakasleak. Baita Mentxu eta Jakoba ere, gidoilari free-  
lanceak. Eta Josu, kazetaria. Eta Andoni, bertsolaria.  
Eta baita ofizio jakinik gabeko beste dozena erdi artis-  
ta diletante ere. Westernetako bidelapurrak kantinan  
sartzen diren era lotsagabean egin du barrura Beñat  
berriztatuak. Inork ez du zirkinik egin. Askok haien sa-  
kelakoetan iltzatuta daukate arreta, beste zenbait se-  
kretupeko solasaldietara edo karta jokora emanak  
daude, eta gutxi batzuek, azkenik, burua jiratu eta  
konplimenduzko irribarre antzeztu bat egin diote.

- Hara! Bizi haiz-eta! Zer hartuko duk? -galdetu  
dio tabernariak-. Kafea eta ron txupittoa, beti bezala?

Diosal ozen batek barregarri utziko duelakoan,  
esatea pentsatuta zeukana kolkorako gorde eta ba-  
rran ezarri da Beñat. Aldameneko morroia ezagutzen

ez duenez, kafea eta rona jaso eta mahaietako batera gerturatu da. David, Rakel eta Iñigo, talenturik gabeko aktore-tunante erdi hippyek abangoardiako antzezlan bat dute mintzagai. Solas zentzugabe horri muzin egin, komunera joan eta aurpegia busti du ur hotzez. Ispilu pitzatuari begira geratu da une batez. Deabru Zikinaren hilotzari gelditzen zaion adore apurra bere egin, bere buruari animozko bi zaplazteko eman eta zoriarekin kontuak garbitzera irten da lagunartera. Mikel, Patxi, Andoni eta Josuri batu zaizkie. Hilabete luzea joana da ikusten ez dituela, baina, hala ere, amorratuta eta gogo txarrez, berak hasi behar izan du agurren txanda.

- Eta? Zer dio, ba, jakintsuen foroak? -esan du marmarka.

- Interesa duen deus ez -erantzun dio Andonik.

- Lanpetuta egon haiz, antza -bota dio Patxik-. Zertan ibili haiz, izozkailuren baten gidaliburua itzultzen endredatua?

Beñatek ez dio jarraitu, patetikoa iruditu zaio jakin-minik gabe egindako galdera erretoriko bati modu zibilizatuan erantzutea. Gogoak kontrakoa eskatu dion arren, ez dio adiskideari modu zakarrean eraso egin. Ondo begiratuta, ez baitauka motiborik.

Beñat zaharrarenganako mespretxu gorde hori naturala da, maleziarik gabea, berezkoa. Nola batzuk bilakutzen diren txikitatik ingurukoen bufoi, hala bihurtzen dira beste batzuk filmetako figuranteak bezain ikusezin.

- Sareaz ari gintuan, unibertso digitalak ekarri duen paradigma aldaketaz.

- Harrapazak katu hori!

- Bai ba! Hiri bost, Gutenberg galaxian kateatuta segitzen duk...

Beñat, berria zein zaharra, hiztuna ez baina oso da behatzailea. Eta ondotxo daki halako sasi-intelektualen goranahia xaxatzen. Beste ezeren gainetik norbere ahotsa entzutea baitute gustuko. Horrexegatik zaintzen dituzte hitzen tonua eta modulazioa, nork bere belarrien goxatze intimoa bilatzen duelako.

- Baina zertaz espresuki, jakin badaiteke?

- Kea! Twitter eta halakoez. Sarea duk orain garai bateko Agora greziarra. Hor batzen duk, hodei ziber-netikoan, esateko zerbait duen kristo guztia.

- Esaiok deabruarena...

- Tira, twitterren hautsak harrotzen ari den alproja batez mintzo gintuan. Deabru Zikina dik izena. Asko nabarmendu duk azken aldian. Sekulako eragina zau-

kak, baino txorakeriak baino ez ditik plazaratzen. Okur-  
rentziak, badakik.

- Nik ez nitek horren modu arinean ebatziko gaia,  
motel. Tipoak bazaukak etorria. Are gehiago, esango  
niket sarritan gauza interesanteak esaten dituela.

- Putza! Kalaka distiratsu soila duk harena. Ez  
zagok bere diskurtsoaren atzean batere mamirik. Nor  
ausartu zerbait esatera, ordea? Troll saldoa zaukak  
bizkarrak zaintzen. Zentinela zailduak dituk, kabroi  
halakoak.

- Ba omen zoak saretik. Ustez azkenekoa izan den  
txioak egundoko burrunba eragin dik. Berrogeita  
hamar milagarrenak, hain zuzen. Goizaldean aireratu  
zian: «Go and fuck yourself, morons! Beti egon zare-  
ten lekuan uzten zaituztet, nora ezean. Ni banoa beti-  
rako».

- Bere buruaz beste egin duela esaten ari dituk.

- Ez da izango!

- Ez niri horrela begiratu, hi; erositako prezioan  
saltzen diat kontua. Baina bestelako teoriak ere zabal-  
du dituk. Askoren iritziz koherentziagatik utzi dik, zen-  
tsuratu egin nahi zuten-eta, itxura denez.

- Koherentzia? Karaostia horrek? Utikan! Diotenez  
editorial garrantzitsu eta zenbait marka komertzialen



soldatapean zegoen! Trikimailu komertzial hutsa, egin kasu...

Beñat, ordura arte isilik, twitter kontu horren aitasuna aldarrikatzear egon da. Bera baita, ez beste inor, eszeptikoenen artean ere horrelako zirrara sortzen duen kreazioaren egilea. Berari dagozkio Deabru Zikinari egindako laudorioak!

Min kartsu batek erre dizkio barrenak. Hala sentitzen ditu tripak: atzapar zorrotz bat hesteak hondatzen balebilkio bezala. Badaki, hala ere, iruzurraren egiletza aitortzeak ez lukeela ezertarako balioko, ez lioke-eta inork sinetsiko. Eta horren jakitun izatea suertatzen zaio mingarria, inork aintzat hartzen ez duenaren zeinu ukaezina baita. Bai, hutsaren hurrengo da, inportantziarik gabeko txorimalo bat, azken finean.

Estropezuka irten da tabernatik. Zorabiatuta bezala abiatu da etxerantz, patuak traizionatutako ameslariak haien zorigaitzaz jabetzen direnean izan ohi duten aldarte erori berberaz, espero zutena baino leku miserableagoa baitagokie munduan.

Polizia etxean ate joka sentitu duenean ez da asal-datu. Whiskiari hondarreko zurrutada eman eta bere burua zoriondu du: duela lau ordu eta erdi egin dituen

kalkuluak ez zeuden oker. Denbora zehatz hori igaro da twitterren ondorengo idatzi duenetik:

«Kontu honen egilea naiz. Ibareguren dut abizena. 6 ordu barru inork atxilotzen ez banau, jendea akabatzen hasiko naiz. Mehatxu bat da».

Bi gizonak ikusi dituenean deuseztatu zaio Beñati Poliziari ongietorria emateko prestatuta zeukan irribarre putzontzia. Alarde polizial ikusgarri batekin topo egitea espero baitzuen atea irekitzean: aurpegia kaputxaz estalitako ertzain saldoaren oldarra! Etzanaraziko zuten lurrean bortizki, emango zizkioten saihetsetan ukabilkada batzuk, jarriko zuten etxe osoa hankaz gora, eta eskuburdinez lotuta jaitsiko zuten ondoren eskaileratan behera, kriminalekin egiten duten bezala.

Errazkin eta Madariaga inspektoreak berdin izan zitezkeen Menendez eta Pelaez edo Mortadelo eta Filemon, hain dira biak ertzain arrunt eta manera onekoak.

## 2

# *K Taldea*

- ETAre<sup>n</sup> zatiketa bat?

- Hi haiz, hi, astakiloa! Zer ETA eta zer ETA ondo-ko! Hura kontu serioa zuan.

- Orduan zer?

- Erretxindutako kantari edo idazleren bat izango duk... Apustu egingo nitek, orain arte diru-laguntzen kontura bapo bizi izandako birigarro horietako baten aurrean gaudela.

- Kantari batek ez likek basakeria hau egingo.

- Motzean: morroiari sosen iturria agortu egin zaiok eta, mendeku gosez, bazterrak nahastu eta zalaparta apur bat ateratzea baino ez zaiok bururatu kir-ten halakoari.

Errazkinen iritziz pertsona orok dauka bere beldur partikular eta transferiezina, Armagedoi intimoa. Izan liteke suge edo hamarratzek eragina, Afrikatik etorritako etorkin saldoa, goitik behera beltzez mozorrotutako segalaria; berdin dio, bakoitzak du-eta berea. Hau edo hori izan, zentzuzkoa edo ez, agerian egon edo barren-barrenean gordeta, kontu bat dago argi:

praketan kaka darigula uzten gaituen izugarrikeria da Armagedoi intimoa. Eta bakardadea da Errazkinena. Bakarrik hilko den ideiak hainbeste izutzen du, ezen zarata konstantez inguratzen duen beti bere burua. Ez da aurikularrik gabe kanpora irteten, eta pizten ditu irratia eta telebista atzera etxera itzultitakoan. Musika entzunez hartzen du loak (rock gogorra, ahal dela).

Madariagaren loa galarazten duen amesgaiztoa, aldiz, ETA da: diseinatutako hamarratz gogaikarria. Talde armatuari noizbait izan zion beldurraren adina-koa da izugarrikeria hartatik gelditzen diren puskei dien gorrotoa. Bi belarriak moztuko lituzke Madariagak, garai beltz haren itzulera behin betiko eragotziko balu. Ez baita egungo armistizio merkeaz fio. Merkea, bai: ezin baitzaio urte luzetan pilatutako zorrak bat-batean zuritu nahi horri beste modu batera deitu. Atezuan segitzen dute oraindik ere ETako ero horiek haien gordelekuetan, artaldearen gainean putreak lez. Madariaga ez zen Ertzaintzan sartu goizero autoaren azpialdeari begira ibiltzeko, gaiztoen autoak zelatatzeko baizik. Zer eta polizia bera ibili behar haiengandik ihesi? Non ikusi da halakorik! Gaizkileek ibili beharko lukete iheska, ez alderantziz.

Errazkinek irakurri behar izan dio berriro komuni-  
katua, Madariaga ez baita gai esaldiak ahoz gora tote-  
lik gabe josteko.

Komunikatu honen bitartez K Taldeak bere gain hartzen du Gerediaga Elkartearen egoitzaren aurkako atentatua. Ez gaude euskararen kontra. Euskara negozio gisa ustiatzen dutenen kontra baizik. Publikotasunaren defendatzaileak gara. Baliabide publikoen zarrastelkeria salatu eta gehiegikeriei aurre egingo diegu eskura dauzkagun baliabideekin. Behi publikoaren errapeetatik ez dagokion esnea edaten duen oro da gure etsaia, izan idazlea edo abeslaria edo artista edo hizkuntzalaria edo erakundea. Diru-laguntzak, merezi dituztenentzat! Egurra gainontzekoei! Kulturaren eta euskararen inguruan sortutako negozio sarea birrintzea baino beste helbururik ez dugu. Kulturaren esparrura mugatuko du bere borroka K Taldeak oraingoz. Gure eskariei men egiten ez bazaie, irakaskuntzaren eta elikaduraren eta langabetuen prestakuntza profesionalaren inguruan sortutako sasi enpresa publikoen aurka joko dugu. Osasun sis-

tema publikoaren magalean medikuek eraikita-ko egitura mafioso ahortzi gabe, noski. Beraz, K Taldearen eskaria gardena da: diru publikoz lagundutako enpresa pribatuetan nepotismo zantzu oro deusezta dadila ipso facto. Alor publikoaren gerizpean Hiritarren sosekin muntatutako NEGOTIO gehiago ez!

Bazter utzitakoen lubakietatik, ongizatean go-tortutako herritar otzanduei,

Euskal Herrian, 2015eko udaberrian

K Taldea

- Ondo da, Anjel. Demagun ez dela ETA izan. Gaitz-erdi. Baina, esadak, benetan uste duk txikizio hau pertsona bakarrak egin duela?

Ezezko keinu ernegatu bat egin du Anjel Errazki-  
nek. Ez, ez du uste Gerediaga Elkartearen egoitza per-  
tsona bakarrak kiskali duenik. Ekintzaileak behar  
zuen, gutxienik, bizkartzain lanak egingo zizkion la-  
guntzaile bat edo bi. Kale Nagusian dagoelako egoit-  
za, denen bistara horrenbestez, eta gau partean  
eman badiote ere sua, ez direlako kanpotik presaka bi  
molotov jaurti eta ospa egitera mugatu, barrenak ga-

solinarekin zipriztindu ondoren eragin dute-eta tris-kantza, behar besteko denbora hartuta.

- Zuhurtzia, Patxada, Ausardia... hiru ekintzaile, seguruenik. Lehena kanpoan zelatan. Barrean beste biak.

Madariagari gertatzen zaionaren bestaldera, alda-pa gorakoa suertatzen ari zaio Errazkini ETA ondoren-go garaia. Ez da zentzugabeko gatazka amaitu izanaz pozten ez denik, harrezkero lanez gainezka daudela baizik. Bazuen ETAn presentziak halako disuasio-eragin moduko bat gaizkileengan, zail da ulertzen bestela ETAk armak utzi ostean gertatu den delituen gorakada neurrigabea. Noski, orduan ere bazen krimena, egungoa baino baldarragoa ordea. Bazirudien benetako gaizkileak edo hibernatzen zeudela edo ETAn zeudela, eroen beroaldi bat-batekoen ondorio baitziren delitu gehienak: aitzokadez baldarki erailda-koa gaur, birritan pentsatu gabeko lapurreta bihar. Konforme, bat-bateko itsukeriak bultzatutako krimenak izaki, eragozteko konplikatua ziren, eta inpotentzia horrek murgiltzen zuen halako sumindura akitu batean; baina, eskerrak!, delitu haiek argitzeko ez zen adimen zientifiko berebizikorik behar izaten. Hain zuzen, bigauza eskertzen ditu 45 urte aspaldi beteta

dituen Errazkin moduko polizia batek: loa galaraziko dion kasu korapilatuekin ez topo egiteak eta genero beltzeko filmen gainbehera. Goizegi, gaizki eta denik eta bakardaderik estuenean zahartzea dakar lehenak. Bigarrenari dagokionez, Al Pacinoren eta De Niroren dizipuluz josita daude kanposantuak. Plakaren distiraz eta pelikula poliziakoez liluratutakoak edo lurpean daude edo taberna-zulo nazkagarrietan edaten.

Errezeloak azala kaskartu eta izaera ihartzen zizula, hori zuen ETA-sasoian hark okerretik, mesfidantzak ehundutako gizartean balek baino min handiagoa egiten baitzuten herritarren begirada fidagaitzek. Onerako edo txarrerako, gaurko Errazkinek garai haietatik jaso du bekozkoa eraisten dion eszeptizismo fatalista hori.

- Twitter hankaz gora jarri zuen alprojarekin hitz egin behar genikek, Anjel -proposatu dio Madariagak.
- Deabru ergel horrekin?
- Susmoa diat zerbait jakingo duela.

Kiskalitako altzari eta kristal hondarrek estaltzen dute Gerediaga Elkarteko zorua. Minatutako eremuan balebiltza bezala ematen dituzte pausoak Errazkinek eta Madariagak.

- Goazen, hemen ez dugu ezer egiterik.



- Ados. Nonbaitetik hasi beharra zaukaagu. Bisita bat egingo zioagu Deabru Zikin horri.

Ikuskizunera bildutako jende multzoak ageri dira suhiltzaileek eta ertzainek mugatutako hesiaren bestaldean. Txikizioaren erakargarritasun ia mistiko horrek jendea norbere hondamendiaren balkoira ere eramango lukeela pentsatu du Errazkinek. Ekintza errebindikatzen duen panfletoetatik beste bat hartu du lurretik autora sartu baino lehen, urruneko hondartzetan oroitzapen gisa harea batzen duenaren antzera.

- Ño -esan du Madariagak-, txartu egin behar dik nabarmen, iparraldeko hodei mardulok ez ditek deus onik iragartzen. Anorak bana beharko diagu, Anjel -eta listua bota du gero, iragarpena berretsi nahian bezala.

Ez zaio Errazkini keinua gustatzen, are gutxiago jendaurrean egina baldin bada, baina ez dio kargurik hartu, ETaren erantzukizuna erabat baztertu ez duelako izan dela iruditu baitzaio. Asaldatuta dagoenean bakarrik zipriltintzen ditu Madariagak bazterrak. Eta ETaren pizkundearen mehatxuak asko kezkatzen du.

# 3

## *Kondena*

Ordenagailu zaharrari begirada mesfidatia bota diot. Lurrean utzita dagoen tramankuluaren ordeztsektu nardagarri bat da. Hilabeteak daramatza horPCak, larruzko poltsa zarpail baten barrenean, lan-gelako zoruko izkinetako batean abandonatuta, hautsa eta ahanztura pilatzen. Apenas sartzen naizen gela honetan, erratza pasatzera baino ez. Badauzkagu horliburuak, lan mahai eder bat, duela urte batzuetako arropetz betetako armairua eta eserleku ergonomiko bat. Badauzkagu diot, neska-laguna eta biok bizi garelako 80 metro koadrotan. Julia maiz sartzen da langelan, hor baitaude, mahaiaren gainean, ordenagailu nagusia -42 hazbeteko Mac koloretsua- eta inprimagailua. Egongelan masturbatzen naiz ni, Samsung tablet txiki baten laguntzaz, Mac dotore horren aurrean masturbatzeak kikildu egiten nau-eta. Hiruzpalau aldiz baino ez dut erabili Mac-a masturbatzeko. Mon Dieu, beste mundu bat da hori! Pantailatzar horretan beste dimentsio bat hartzen dute ipurdi, titi eta aluek. Orgasmo ondorena latza da, gainera, Mac-ean. Hazia

hustu bezain laster kriminalaren tankeran hasten naiz bazterrak garbitzen, durduzatuta, nire presentziaren arrasto txikiena ezabatzea hil ala bizikoa balitz bezala. Ez dut uste masturbatzea krimen bat denik, kontua ez da hori; Mac-aren aurrean masturbatzea iruditzen zait sakrilegioa; nolabait esatearren: ehorzketa bitartean eliz atarian edo hilobiaren gainean pixa egitearen antzeko zerbait.

Errutina apurtzeko sartu naiz gaur lan-gelan. Armiarma-sarea beste da tranposoa errutina, ohartu orduko endredatzen da bat ohiturak ehundutako existentzia miserable baino atsegin horretan. Goizeko zazpi eta erdietan ohetik jaiki, zortziak bitartean Julia eta biontzako gosaria prestatu, ganora handirik gabe erratza pasatu, hura agurtu eta ondorengo hamar-hamabost minututan pornoa ikusten masturbatu, sarean zertxobait nabigatu hamaikak bitartean, isil-gordeka erosketak egin hurrengo ordu erdian, bazkaria prestatu, telebistako tertulia politikoa entzunez jan eguerdian, eta lo kuluxka labur baten ondoren -15 minutu zehatz- igerilekuan 20 luze egin. Horra nire existentzia erdiaren esposizioa. Beste erdiaren kontakizuna, arratsaldeko lauretan hasten dena, motzagoa da: Juliaren zain egoten naiz. Berarekin partekatutako den-

bora ere ohikeriaren pipiak hartua du, baina eraman errazagoa suertatzen zait, ez baitaukat nire kabuz gobernatu beharra.

Helbururik gabe sartu naiz, beraz, lan-gelan. Soilik une konkretu honi zegokion eginbeharra saihestearren -masturbatzen behar nuke honezkero egongelan-, nire existentziaren erdia gobernatzen duten ohi-turatxoek hurrenkera hankaz gora jartzeko bulkada sentitzen baitut tarteka. Nondik ihes egin dezakeen antzemateko presoak ziegari ematen dion begiratu bota diot gelari. Eta segidan hasi naiz mahaiaren gaineko karpetak arakutzen, zeren peskizan ari naizen ez dakidan arren. Aspaldiko paperei begira nembilela ikusi dut ordenagailu zaharra, zeharka, aurkitu nahi ez diren objektu edo pertsona traidoreak begiztatzen diren eran. Tentuz hurreratu naiz, zakur edo arratoi batengana hurbilduko nintzatekeen zuhurtziaz. Poltsa lurretik jaso, besoetan hartu eta atea itxi dut presaka.

Sofan jarri eta altzoan estutu dut ordenagailua, itsasoan haurrak flotagailuari helduko liokeen bezala. Bidaia luze eta deseroso batetik itzultitakoan edukitzen den nekeak hartu nau geroxeago. Zorabiatu egin naiz. Begirada nonbait finkatzearen luzatu ditut begiak telebista gainean dagoen erlojura. Amaginarre-

bak oparitutako traste zatar bat: loreontzi batek hartuko lukeen espazioa okupatzen du. Gainera, ez dabil. Joan den urteko arrats batean egin zuten planto orratzek, zortziak eta hogeita bostean. Juliak, batek daki zergatik, asko maite du erlojua. Hortxe dago, iraungitako momentu baten testigu eta argitzeko gai ez naizen gako enigmatiko bat bezala. Zortzi eta hogeita bostean afaria prestatzen egon behar nuke, pentsatu dut, hasperen eginez. Ez dut gose zipitzik. Astearte gauetan arraina eta entsalada jaten da gurean. Hegaluzea, antxoa edo barbarinak. Gaurkoan patata tortilla eta ogi desizoztua beharko duela erabaki dut. Beldur naiz ez ote duen txikikeria horrek gertakari sail andana abiaraziko, pieza bat lekuz aldatu eta kartazko gaztelua erortzen den eran, baina, nola esan?, nire betiko errutina sikiera apur bat eteteak eman dit halako poz herabe bat. Borondate larregirik gabe zigarroak erretzeari uzten dionak abstinentzia hasierako orduetan egiten duena egin dut, dena den: ospakizunak geroko utzi, badaezpada ere.

Eta... portatiblean idazten hasi naiz, liluratuta, teklak indarrez sakatuz, amorruari eta emozioari ezin eutsirik. Iluntzen hasi denean altxatu dut burua pantailatik, bizkarrezurra erdibituta, zigarro pakete osoa

ohartu gabe erreta. Eta halaxe sentitu naiz: munduko begi guztiek ohean biluzik eta lau hankatan harrapatu banindute bezala. Arrapaladan lan-gelako mahai gainean laga dut ordenagailua.

Nire onera itzuli naizen une berean iritsi da Julia lanetik bueltan. Arratsaldeko zazpi eta erdiak direla jakin dut giltza sarrailan sartzen entzun dudanean.

- Nola joan da eguna?

- Ezer berririk ez -erantzun du Juliak, musu eman ostean.

Zain egon naiz unetxo batez. Alferrik ordea, Juliak ez baitit nire eguneroko gorabeheretz galdetzen. Garai batean errutina zena ezohiko ohitura da orain. Orduak ematen genituen lehen bakoitzaren pasadizoak elkarri kontatzen. Tira, justua izate aldera, berari entzutea zegokidan, zarramarra ugari baina kontu gutxi biltzen baitu garbitzaileak erratzaz kalean. Juliak, aldiz, aldar-te gogaituaz gain poltsa bete kontakizun ekartzen zuen beti lanetik. Hotel entzutetsu bateko harreragilea da. Eguneko txanda egiten du astean zehar. Hilean birritan egokitzen zaio gauekoa. Horien zain egoten nintzen ni, irrikatan, asteburuotatik ekartzen baitzituen anekdotak. Dagoeneko ez zaizkit bere kontuak interesatzen, hain dira errepikakorrak! Nik, normala

den bezala, lelokeriak konpartitu ordez nahiago dut mutu egon. Julia eta biok, ondorioz, isiltasun kirastu bera arnasten dugu, langabetua eta zer idatzirik ez duen idazlea naizenetik.

Jaka lurrean utzi eta komunera joan da, betiko legez. Idazten hasi naizela esatekotan egon naiz une batez. Oharkabeen bezala esan nahi nioke, akontezimendu handien berri ematen den era misterioitsu eta zertxobait inozo horretan:

- Badakizu? Badaukat poztuko zaituen ezusteko atsegin bat...

Eta Julia, kuleroak oinetan dituela, erreguka hasiko litzaidake komunetik, jakin-minak erasanda, horrelakoak ez baitira ohikoak azken aldian gurean.

- Et, et... ez saltoka hasi gero, e? Horrenbestera-nokoa ere ez da-eta. Hobeto esanda, huskeria bat baino ez da... -klimaxari eutsi egin behar zaio.

Juliak amua irensten duenean, harrapakin jostaria denez, grinaz eutsiko dio txantxa dialektiko hutsal horri. Presaka egingo du pixa eta kuleroak oraindik izterrean trabatuta dituela irekiko du atea. Eta esango diot, Bond-ek erabiliko lituzkeen ahots sarkor eta irriño maltzurraz:

- Idazten hasi naiz berriro, maitea.

Esaldiak, hitz magikoz osatutako pasaportearen antzera, oherako sarbidea ahalbidetuko dit. Bidean arropak kenduko dizkiot, zabarki, filmetan bezala. Edo akaso ez gara logelara ere helduko, batek daki, apasionatua da-eta Julia nahi duenean. Bai, ziur naiz, berriro idazten hasi naizela esanez gero pasilloan bertan egingo genukeela txortan, zutik, estropezuka.

Ditxosozko eleberri hura irakurtzera eman nioenean esperantza handiak jarri zituen nigan. Berak orri haietan atzemandako talentuak ondo kamuflaturik behar zuen, edozelan ere, editorialik ez baitzuen aurkitu. Literaturaz zipitzik ez dakien arren, tematia da Julia; jomuga tronpatua nuelako, bere aholkuak eraman ninduen ondoren narrazioak idaztera. Eleberria bezain baldarrak ipuinak, nonbait, editoreen iritzian. Eta ilusioa ahitu zitzaidan hein berean joan zitzaion Juliari bere barne sua.

Kitzikatuta, komuneko atera hurbildu naiz, ezta-rria garbitu dut eta tentuz aukeratu ditut hitzak:

- Patata tortilla prestatuko dut gaur afaltzeko -esan diot-. Ondo? -erantsi dut modu absurdoan.

Juliak ez du ezer esan. Kuleroak jantzi, gonari tira egin eta uraren botoiari sakatu dio, ispiluan begi er-tzetako lehen bi zimurrei begira hasi baino lehen.



Sukaldera alde egin dut. Zortziak laurden gutxi markatzen ditu labeko erloju digitalak. Goizegi, sukaldean irratiarekin isolatu eta afaria prestatzen hasteko. Beranduegi, hogeituro urteko Glen Roost botila ireki eta egongelako sofan Juliaren zain gelditzeko; komunetik itzultitakoan ez baitu ni idazlea aurkituko, herenegungo morroi alfer berbera baizik.

- Zaborra ateratzera noa -esan diot urrutitik.

Igogailua hartu dut, nahiz eta normalean oinez jaisten naizen bosgarren solairutik. Tranpa mortala dira ihesbiderik gabeko tramankulu itxi horiek. Baina gaur bai, igogailuan norbaitekin topo egitea desio dut. Bigarren solairuko atsoarekin, esaterako; Gestapoko interrogatzailea dirudien horrekin. Eta esango lidake:

- Taaa? Lanik aurkitu al dugu, ba?

Langabezia ez baita egoera soil bat. Organismoan eta nortasunean itsasten den zera likatsu bat baizik. Ageriko minbizi moduko bat.

- Ezta beharrik ere. Nobela bat idazten ari naiz!

Eta atsoa zur eta lur. Inoiz liburu ziztrin bat irakurri ez duen arren, idazlea izatea, berarentzat, denentzat bezala, eginbehar sakratua baita. Idazleei luzatzen zaizkien begiradek mirespena islatzen dute... edo

erdeinua, edo ikara. Errukia (sentimenduen artean zital, zabar eta ankerrena) sekula ez.

Tabernan sartu naizenean hala esan diot Jokini, barrako zerbitzari militante eta aspaldi ikusi gabeko lagunari:

- Idazteari ekin zioat berriro.

Letoizko armadura batek babestuko banindu ez nengoke gotortuago. Idazlea naizela aldarrikatzen dut pregoilari batek baino ahots harroagoaz. Denei mintzo natzaie hanpatsu, adi entzuten didatenei eta gogoia urrun iltzatuta daukatenei. Eta denek, baita inori errespeturik zor ez diotenek ere, txundituta behatzen naute.

- Ea bihar ere etortzen haizen -diost Jokinek; esan baino eskatu.

Eta baietz erantzun nik, badakit-eta nire klandestinitate garaiak amaitu direla: langabezia egonik ere idazlea bainaiz berriz tupustean. Eta aurrerantzean ez daukat ezertaz lotsatu edo inorengandik ezkutatu beharrik.

Itzuli naiz etxerantz. Geldialdiak egin ditut farola azpitan, zakurrak paseatzera irtendako auzo-lagunek ikus nazaten. Diosalak partitu ditut aita santuak be-deinkapenak partitzen dituen eran. Biharko plangintza

mentala egin dut etxe atarian. Isilpeko nire existentzia bakartia hautsi eta denen bistara egingo ditut bihar erosketak. Soseguz, oinezkoen begiradei tente eutsiz, auzotarrei nire aldarte amultsuena erakutsiz. Juliari, ordea, ez diot tutik esango. Ez oraingo, bederen. Izutu egiten nau gurea tinkotzen duen sokatik tiraka ibiltzeak. Ez alferrik, errutinak eta sinismen faltsuek txirikordatutako soka baita gu lotzen gaituena; baina, beste ezeren gainetik, eroso zaidalako porrota, ez dudalako adorerik egun bat bestearen iguala ez dela antzezteko.

Zortzi eta erdiak puntuan jo dutenean sartu naiz etxean. Lan-gelan aurkitu dut Julia. Espantuzko keinua du bisaian. Lehenengo nigan eta ondoren nire portatileko pantailan pausatu du begirada.

«Ito arteko aspergarri eta monotonia behar du izan nire bizitza errealak, bestea, imajinatua, orriotan erna dadin. Horixe da nirekin bizi direnen kondena», irakur daiteke epitafioak zizelkatzen diren amorru berberaz idatzitako testuan.

## 4

# *Errendizioa*

- **Literatura** txarrak hilko nau -esaten zuen Mikelek.

Baina tabakoak eta alkoholak eta egoskorkeria baxi batek eroan zuten balkoitik salto egitera berrogeita bost urte egin berriak zituela. Ez zegoen-eta haren erritmoa jasango zuen organismorik. Literatura txarrak hilko nau, Mikelek macguffin gisara erabiltzen zuen esaldi funtsik gabeetako bat gehiago zen. Egia esan, ez genien kasurik egiten Mikelen ateraldiei; ugari esaten zituen eta ez genizkion ulertzen erdiak ere.

- Kasualitatea ez da existitzen, kasualitatea ez baita kasuala, kausala baizik.

Halako tentelkeriekin zigortzen gintuen lau zerbeza edan orduko. Beti bazterrak nahasten.

- Jainkorik ez dela! Nor ausartu da barrabaskeria hori esaten?

- Koplarik ez, Mikel...

- Norbaitek jainkoaren existentziaren ideia baldin badu, izan bada. Zerebroan ezin du habiarik egin exis-

titzen ez den ezelako kontzeptuk. Eta kito, akabo ez-tabaida!

Morroiak ez zuen alferrikako konplimendutan ibiltzeko abileziarik. Jendea bere onetik ateratzeko talentua, berriz, sobera. Ez zen ez itxuratia ez zeremonia zalea. Ez zitzaizkion haurrak gustatzen. Gorroto zien zakurrei eta zakurren jabeei. Ez zuen lanik hartuko gogoko ez zituen gauzak disimulatzen. Ulertuko duzu, horrenbestez, ez genuela lagunok estimu handitan edukitzeko arrazoi askorik. Bazeukan, dena den, halako gar indartsu eta erakargarri bat, edozertaz tolesturarik gabe hitz egiteko ausardiatik emana zetorkiona; izaera zorrotz, izukaitz eta gordin hartatik. Putaseme gogaikarria zen ia uneoro, baina, nolabait esatearren, gure putasemea zen. Beraz, bai: erdizka izuak eta erdizka mirespenak taxututako isilpeko errespetua genion.

Agerikoa, neska-lagunaren edertasuna zen. Tira, edertasuna gehitxo esatea da beharbada, bakarka ikusita ez nuke-eta esango Julia txoratzeko modukoa denik. Kontua da Mikelen eite eroriak Juliaren makatz formako gorpuzkera are ikusgarriagoa egiten zuela. Eta okerrena da ez zuela desoreka horrek Mikelen proiektzioa kaltetzen, handiagotu baizik, bere aura

berez ere deigarria distiratsuagoa bihurtzen baitzuen Juliaren presentziak. Imajinatuko duzunez, bekaizkeria suerte batez aztertzen zuten denek harreman hura, ez baitzuten konprenitzen zer demontre egiten zuen holarako emakumeak Mikel bezalako arduragabe batekin. Eta hara, zer esango dizut ba, ondo ematen zioten janzten zituen trapu zahar haiek, guapoek daukaten axolagabekeria naturalaren alproja airea itsasten zioten. Niri, bereziki, haren ilajea gustatzen zitzaidan, sorbaldan behera katramilatuta erortzen zitzaiona. Eta insurgente baten itxura hartzen nion bizarra hazten zitzaionean.

Libururik publikatu gabeko idazle zapuztua zen Mikel, hori ere hala da, baina idazlea azken finean. Horrek seko erasaten zuen susmoa daukat, beste ezeren gaineratik nabarmentasuna lortzea baitzuen helburu.

- Talentua daukazun horretan onena izatera iristek baino ez du balio -esaten zuen-. Gailurra jo ezean ez dute merezi bidean xahututako buruhausteek eta frustrazioek.

Mikelek talenturik ba ote zuen, beste kontu bat da, jakina. Baiezkoan zegoen bera eta uste horri zegokion entregaz bizi zuen literatur zaletasuna, sinestunen de-  
bozio militante berdintsuaz, esan nahi dut. Tira, dena

bizi zuen Mikelek debozio militantez. Baita bere ideia burugabeenen defentsa setatsua ere, gutxi ez zirenak, zein baino zein kirtenagoak. Azken boladan gobernuen konspirazio baten azalpenean endredatua zebilen.

- Mandatariak kirolaz baliatzen dira hiritarrak desartikulatzeko. Ariketa fisikoak neuronak hiltzen ditu! Zenbat eta kirol gehiago egin, orduan eta kokoloagoa pertsona.

Eta dozenaka adibide botatzen zituen erreskadan bere burutazioa frogatzeko, futbolarien mozolokeriak aletzen hasi eta kuadrillako kirolzaleen lerdokeriak nabarmentzen buka.

- Geure artean... Aitor txirrindularia, Patxi eskalatailea, Josu maratoilaria. Hirurak barregarriak, beren lehiaketa amateur eta berbaldi atletikoekin.

Onartu behar dut, Mikelek bazuela etsenplu egoiak aukeratzeko trebezia aparteko bat, bere teoriak oinarri sendoa zutenik ezin ukatzera bultzatuko zizuna. Baina hiru obseso haiek kirola egiten zuten hein berean astintzen zuen Mikelek gorputza taberna zokoetan. Eta neure taberna zuen, zorionez, zokoetan kuttunena.

- Horrenbeste edateari eta erretzeari utzi behar diok -esaten nion nik, tarteka, barraren bestaldetik-. Eta lehen bezala igerilekura joaten hasi berriro. Gero eta itxura zabarragoa daukak...

Goizegi zahartutako mutilarena. Gorpuzkera ahula. Ihartua azala. Eztulek apenas uzten zioten bi esaldi segidan harilkatzen. Dekadentzia molde hura propio bilatzen zuela esan nezake, bohemio eta outsider plantak egiten.

- Hik liburu bat irakurtzen duan egunean itzuliko nauk ni arrainontzira.

- Baina bizimodu honek...

- Hi, Jokin, bizitzeko ere egunero egin beharra zagok ahalegina, erretzeari uzteko bezala. Modu batera ikusita, ez dago kosta ala kosta bizitzea baino bizio ederragorik...

- Koplarik ez, Mikel. Badakik ez dakidala irakurtzen periodikoa besterik.

- Ondo. Muskuluak zimelduko zaizkidak horrenbestez. Beraz, nire gaitzen ardura hire bizkar uzten diat trukean. Hiltzen banauk heuri egotziko diat errua. Eta atera egidak beste garagardo bat, mesedez.

Lotsarik gabe ustiatzen zuen konfrontazioaren apostoluek hain gogoko duten biktimismo poetiko



hori. Zinikoa zen Mikel. Ziniko konprometitua. Berea ez zen, gatzik gabekoek ezertan ez bustitzeko erabil-tzen duten zinismo nagia. Ingurukoen usteak hankaz gora jartzeko aprobeztatzen zituen Mikelek trufa eta sarkasmoa.

Zer esango dizut ba, ez zitzaion arrazoirik falta. Kuadrillakoen jakin-gosea pintxo soil batek ase ahal izango lukeela iruditzen zait. Aitortu behar dut: gutako inork ez zuen sekulan Mikelek tabernan utzitako liburu triste haietako bat irakurtzeko urratsik egin (eta hortxe dauzkat, begira, botilen aldamenean). Horrek mintzen zuen. Ez literaturarako gure interesik ezak, edozertarako interes faltak baizik.

- Kuriositate faltak zapuztu egingo gaitu -esaten zigun-. Apatia gailentzen bada, zonbi lokartuz osatutako jendartea izango gara.

Maiz ibili dut gogoan Mikelek bestelako ingurune batean izango zukeen bizimoduaren inguruko kezka. Ereku kultuago batean bere bilakaera pertsonala diferentea izango ote zen asmatu nahian, hain zuzen, halakorik nonbait baldin bada. Morroiari egokitu zitzaiona zoru mortua baitzen. Poltsikoa zen guri interesatzen zitzaigun gauza bakarra. Zenbaitzuei, seme-alaben geroa. Sosak banan-banan zenbatzen genituen

hilabetea joan eta hilabetea etorri, gogoa mapamundiko leku exotikoetan jarrita genuela. Oraina biharko asmoetara salto egiteko tranpolin gisara ulertzen genuen, eta existitzen ez zen presente horretan kateatuta geundenon ikusmina gaueko telebistako programa-zioa segitzera mugatzen zen.

Mespretxuz begiratzen genien Mikelen moduko tipo bitxi eta bakanei. Pintoreskoak iruditzen zitzaizkigun. Pintoreskoetan berebizikoena, kuadrillako gure azken mohikanoa. Mikelek ez zuen aukerarik galtzen antzerki, kontzertu eta hitzaldietara joateko. Poesia emanaldiren batera zihoala esanez gero, adarra josten genion. Eta afariren baten ondoren bere libretatxo beltza ateratzen zuenean guardian jartzen ginen denok, baita mozkortuena ere, badaezpada, lagunartean harropuz eta eszeptiko hartan denok baikenion halako errespetu ia erlijioso bat Mikelek bertan idatz zezakeenari.

- Noizbait herioren hatsa lepondoan sumatzen duzuenean -whiskiaren orduan erretolikaren bat bazeukan beti-, beharko duzue futbolaz harantzagoko heldulekuren bat, kaiku halakook!

- Mikel, nahikoa diagu...

- Axolagabekeria darabilzue, gutxiespena ez de-  
nean, bizitzaren konplexutasunetatik libratuko zaituz-  
teten mirarizko ukendu lez. Hara!, ez duzue organis-  
moaren parte esentzialena elikatzen, eta horrek, egi-  
dazue kasu, biluzik eta umezurtz utziko zaituzte unea  
iristean...

- Nire organismoko zati esentziala ederto janda  
zagok -erantzungo zion kuadrillako zakilenak.

Ordurako, esan gabe doa, gintoniken larre irrista-  
korretan geunden guztiok bazkan eta, nik izan ezik, ez  
zion inork Mikeli jaramonik egiten.

- Primeran, Nostradamus. Hire iragarpenen alde!,  
topa!

Mikeli maskaldu egiten zitzaion aldartea. Urrun-  
tzen zihoala iruditzen zitzaidan niri, tren batek estazio  
abandonatu bat atzean uzten duen eran. Eta bagoi  
hartara salto egitea gustatuko litzaidakeen arren, ate-  
raldiak eragindako karkaila gordinen burrunbapean  
ezkututzen nintzen koldarki, inork nire abaildura suma  
ez zezan.

- Sinplista hutsak zarete, lagunak. Eta okerragoa  
dena, gustura zaudete sinpletasun antzu horren geriz-  
pean, zerriak lokatzetan lez, hartara zalantza eta ar-

durek zuongan habiarik egingo ez duten esperantzaz...

- Biba Sokrates!

Tankerako pasadizoez nigan sortzen zuten estualdia baretzeko laguntzen nion sarritan Mikeli bere gauerdiko txango klandestino haietan. Ekintza iraultzailetzat zituen horiek ez ziren umekeria baldarrak baizik, baina bere matxinada partikularreko kideztat hartzen ninduen, gustura batzen nintzaion kausara. Ekintza xaloak ziren normalean. Ikuskizun erraldoiak iragartzen zituzten kartelak txikitzen genituen: BBK Live, kirol ikuskizunak, Durangoko Azoka... berdinez. Neurri batetik gorako kirol eta kultura eskaintza guztiak kaltegarriak iruditzen zitzaizkion Mikeli. Alienagarriak. Ez zuen ulertzen nola batu zitezkeen milaka lagun kontzertu, futbol partida edo azoka masiboen erreklamora, Petti guztiak ezerezari kantuan ibiltzera kondenatzen genituen bitartean. Horma egokiren bat topatzen genuenean, pintadekin margotzen zituen paretak, eta nik gustura egiten nizkion bizkar-tzain lanak. Miresten nuen bere etorria, txunditzen ninduen ausardiak. Eta batez ere, asko estimatzen nuen ilunpeko bion arteko konplizitate intimoa.

Tentuz idazten zituen espreiaz:

Zeri heltzen diozu nor besarkatu ez duzunean?

Zentzuz jokatu: bizi eroen gisan.

Egon hadi lo eta hilko haiz aho zabalik!

Eta pozoitsuagoak ere bai, esanahia ulertu ez arren barrenean estekatuta gelditzen zitzaizkidanak: Erantzun errazek gogobetetzen ez bazaituzte, egizkiozu galdera zailagoak zeure buruari.

Letren moldeek asko arduratzen zuten, baita esaldiaren oreka espazialak ere, Mikelen ustez formak baldintzatzen baitzuen mezuaren harrera. Hala, zaindu gabeko idazkera trakets batek mukizuek egindako bihurrikeria zela pentsatzera eramán zezakeen mezu hartzailea, eta ondorioz ezereztatu ekintza haien helburua, zeina ez zen auzoan hautsak harrotu eta bizilagunen adimena astintzea baizik. Presa emanka ibiltzen nintzaion horrelakoetan, banku bat lapurtzen ari dena baino urduriago. Ez ninduen horrenbeste izutzen Poliziaren eskuetan erortzeak, ezagunen batekin topo egiteak baino. Asko lotsatzen baininduen ez ekintzak berak, paretetan idatzitakoek baizik, gurutzegramako asmakizunak ziruditenak. Hartara, nahiago nukeen idatziko balu, Gora ETA edo halako hura kabroi ustel bat da. Ez dago, ba, zer salatua!

Tentsio une horien ondoren gailentzen zen barealdia biziki maite nuen. Sorbaldatik helduta egiten genuen goiz irekitzen zuten taberna horietako batera bidea. Mikelen saihets-hezurak sumatzen nituen nire gerri aldean. Zoriontsua nintzen. Batez ere, goizeko txandara lotutako langile akitu haiek guztiak maitaleak bagina bezala begiratzen gintuztelako.

- Zerk demonio motibatzen du jendea ohetik jaikitzean? Zer darabilte buruan berriz oheratzen direnean?

- Hiru errelebotan piezak hara eta hona zortzi orduz garraiatzen dabilenak -esaten nion nik- badu nahikoa lan egokitu zaion bizimodua ahazten.

Sutu egiten zitzaidan horrelako arrapostuak ematen nizkionean, norbere hutsalkeria zuritzeko aitzakia merkeak baino ez direla uste baitzuen.

- Zenbat eta lan higuigarri eta monotonoago izan, orduan eta mimo gehiago behar du haren espirituak.

Eta bazekien zerbait horretaz, lanik gabe zebilen arren, zabor biltzailea izandakoa zen-eta.

Arrazoi zuen Mikelek. Nola edo hala, literatura txarrek eraman zuen herioren enkontrura. Egia da. Zigarroak erreskadan errez, whiskiari gupidarik gabe as-

tinduz eta zentzua torturatuz bilatzen baitzuen gordegordeka zebilkion talentua.

Juliarekin askotan elkartzen naiz orain. Biok Mikel darabilgu gogoan, baina ez dugu hartaz hitz egiten. Niri buruz zeozer esaten ote zion galdetu nahi nioke, pintadak egin eta gero tabernarantz joaten garenean sorbaldatik helduta. «Guggenheim Kulturaren Hilku-txa Da: Ezerezaren Edukiontzia». Juliak idazten ditu sloganak eta nik betetzen ditut bizkartzain lanak.

Gaur ausartu naiz eta kontua atera diot:

- Artista bat zen.

- Ergel konpletoa -erantzun dit, ahots bare eta emoziorik gabeko batez.

- Pintada onak egiten zituen.

- Porrotean babes hartutako koldar bat. Itzelezko izua zion frakasoari. Idazletzari ekin beharrean, nahia-go izan zuen ezinean amore ematea.

- Baina maite zenuen.

- Oraindik ulertezina egiten zaidan modu baldintzarik gabean. Horregatik jaso dut hark erortzen utzitako bandera. Lelo harenganako atxikimendu itsua konprenitzen lagun diezadan.

Behartutako arrangura moduko batekin mintzatu zaidala pentsatu dut. Nola esango dizut ba... abando-

natuta gelditutakoen sumin kontsolaezin horrek pozoitzen dituela bere hitzak. Bikoitza baita heriotzaren aurrean erakutsi ohi dugun amorrua: naturaren bidegabekeriaren aurkakoa eta hil denarekikoa. Izan ere, denok hil behar dugula jakin arren, ulertezina suertatzen zaigu herioa amaiera natural eta logikotzat hartzea. Are gehiago, boluntario aurkezten bada bat tranze latz horretara. Eta Mikelek ez zion trabarik jarri heriori, oso bestaldera, hazpegi arinduaz jaurtiki zuen bere burua bigarren pisutik behera. Mundua erdeinuz utzi nahi zuela esango nuke, bizitzaz gogaituta. Eta susmoa daukat maitalearen utzikeria horrek tormentatzen duela Juliaren gogoa, nirea bezainbat. Haren errendizioak gu bion existentzia gutxiensten duelako. Autoestimu hutsagatik lotu gatzaizkio biok gurutzadari, ez beste ezerengatik.



# 5

## *Begiluzea*

**Gaizkile** zantzuak hartzen dizkiot frantsesezko *voyeur* hitzari. Espainolez ez du xaloagoa: *mirón*. Eta euskaraz ere gehiago du irain lizunetik deskribapenetik baino: kuxkuxero edo begiluze. Behatzea gustatzen zait, ados. Baina argi gera bedi: ez naiz igerilekuetako aldagelatan sarraitatik haurrak ikuskatzen ibiltzen diren psikopata horietako bat.

Ez dakit noiztik dudan begiratzeko zaletasuna. *Begiratu* diodanean ez naiz mintzo zerbait konkretua teleskopioz ikusteaz, zeruan izarrak edo basoan zuhaitz puntako okila; begiak zabal ireki eta parez pare daukadana erregistratzeaz ari naiz. Imajinatu nire begiak argazki kamera baten negatiboak direla.

*Zaletasuna* esan dut, baina zorigaitzeko kondena ere esan nezake, garai batean plazer baino sufrimendu gehiago sortu baitzidan joera honek. Ez nuen, ez, haurtzaro erosorik izan; ez eroso eta ez normala, txikitik lelotzat hartzen ninduten-eta. Ezelako okerrik egiten nenbilenik uste gabe gelditzen nintzen edozein lekutan, burua tente, zelatan, jakingura ase nahian.

Dena egiten zitzaidan berri, interesgarri, ikusgarri. Ez nuen deus jaten, ergelen pare gelditzen bainintzen platereko jakien kolore eta testurei beha. Eraman ninduten medikutara, egin zizkidaten proba mordoa eta ez zuten ezer atzeman, noski.

- Haur sanoa da. Ez diogu gaitzik aurkitu. Ez du ematen ezer psikikorik duenik -ondorioztatzen zuten, auzipetu bat banintz bezala, aparatu sofistikatuenekin burmuina miatu ondoren.

Adurra zeriela aztertzen ninduten, erlojugileak makina konplexu eta enigmatiko bati edo matematikoak formula zailari helduko liokeen gisan. Gerora sarritan pentsatu izan dut, haien garunek ere ez ote zuten behar azterketa sakon bat, jakin-min larderiatsu eta neurritz kanpoko hura ezin baitzen sanoa izan.

Ezin botako diet esperimentu haien errua gurasoei! Nire hobe beharrez eroaten ninduten Mengeleren dizipulu haiengana. Aitak, nirekin zer besterik egin ez zekielako. Semea sendatu zezakeen mirarizko botika Lourdesen edo Alaskan aurkituko zuela esan baliote, harantz eramango ninduke birritan pentsatu barik. Urrundik begiratzen zidan beti, fenomeno ulergaitz baten aurrean balego bezala, ezin disimulatuzko keinu erdi nazkatu erdi errukitsuaz. Amak, aldiz,

gogoz kontra eramaten ninduen medikutara, abstrakzioarako joera gehiegizkoa gorabehera, ez baininduen lerdotzat hartzen. Kontsultan sartu aurretik, bisita haiek ekar ziezadaketen arriskuez ohartarazten zidan:

- Zin egidazu normal jokatu duzula hor barrenean. Ez zaitez ilargiari begira jarri mozoloen pare, jainkoarren!

Zinak zin, ezinezkoa zitzaidan mediku gelako tramankulu distiratsu haiei bista kentzea. Gainera, amak normaltzat zuena niri erabat anormala suertatzen zitzaidanez, ahaleginduta ere ezin nuen begirada inon pausatu gabe dantza zoroan harat-honat eramanez. Halaxe iruditzen baitzitzaidan begiratzen zutela nagusiek: haien begiak euli bizkor bati segika.

Irisa ireki eta begiak erakusten zidana ikustea gustatzen zitzaidan niri, antzokiko argiak piztu eta eszenatokiko gortinak irekitzen direnean bezala. Behinola begiak zarratzera ere ausartu nintzen. Betazalak indarrez bildu eta amatatu egin zitzaidan barreneko argia. Hilko nintzela pentsatu nuen, irrist egin eta amildegi beltz batean barna erortzearen antzeko zerbait baitzen ilunpe hartan egotea. Harrezkero ez dut sekula begirik ixten. Ez aharrausi egitean ez lokartzen naize-

nean. Mesanotxeko lanparak sabaian marrazten dituen formei begira egiten dut lo.

Beste asko baino osoago irten nintzen haurtzarotik, hala eta guztiz ere. Hamasei urterekin mutil erdi eroa, erdi atzeratua, erdi eszentrikoa bainintzen, eta hori bada zerbait. Asko arintzen da bizimodua, zerbait izan ordez zerbait askoren erditzat hartzen bazaituzte. Eta berrogei urteko arraroa naiz gaur egun. Ingurukoek, erdi eroei edukitzen zaien errespetu ikaratiz, erdi atzeratuenganako errukiz, erdi eszentrikoek biltzen duten mirespenez tratatzen naute. Ez daukat zertan kexatu: senitarteko bazkari eta hiletetatik aise libratzen naiz eta bakean uzten naute parke bateko bankuan jesarrita munduari begira ikusten nautenean.

Baina beti gauza bertsuei erreparatzeaz aspertzen hasita nago. Ez da kontu berria. Badaramatzat bost bat urte begizatutako gauzenganako interesa etengabe galtzen. Ez dut kitzikagarria den ezer topatzen. Itsutzen hastea bezain sentsazio dramatikoa da.

Plazer galtze horren aurreneko zantzuek ez ninduten asko larritu. Momentu hori noizbait iritsiko ote zen susmoak zuhurtziaz jokatzera aholkatu eta 55 hazbeteko telebista erraldoia erostera bultzatu baininduten aspaldi. Piratak garai zailetarako altxorra irlan gorde-

tzen duen eran neuzkan nik ganbaran ostenduta telebista aparailua eta hark eskain ziezadakeen mundu esploratu gabea. Eta telebistaren leihotik begiratzeaz inoiz aspertuko banintz ere, hiri handiz beteta zegoen planeta, baneukan horrenbestez non aukeratu. Zertaz arduratu, orduan?

Putzu nazkagarri batetik behin eta berriz edan behar izatea bezalako zerbait iruditu zitzaidan telebista begiratzea hilabete gutxiren buruan. Programazioa oso errepikakorra izateaz gainera, jasangaitza suertatzen zitzaidan eskaintzen zidatena norbaitek erabakitzen zuela jakitea. Programatuta egoteak, inprobisazio ezak, balio osoa kentzen zion ikusi nezakeenari: artifiziala zen aparailu hartan agertzen zena; faltsua, irrealia.

Nola harrapari senak ehiztaria, hala bideratu ninduen ni halabeharrak hirietako kale nagusietara. Beti paisaia bera ikusteaz gogaitzen nintzenean, oster, beste kale edo hiri bat aukeratzen nuen arazorik gabe. Pozarren ibili nintzen horrela pare bat urtez. Baina hasi zitzaidan ondoren eta ia oharkabean halako ezin-negon bat ernatzen: bazeukan munduari begiratzeko modu hark oraindik konprenitzen ez nuen gabezia moduko bat.

Begi-bistan nire adin bertuko bi alproja haiek azaldu zitzaizkidan gauean ohartu nintzen gauzak begiratzeko modu haren inperfekzioaz. Atentzioa deitu zidan bikoteak, itxura susmagarria hartu bainien: atezuan zegoen gizonezkoa itzaletan, gaizkile kaskarrak baino urduriago. Emakumezkoak, sosegu handiz, esprai pote bat astintzen zuen ezelako disimulurik gabe. Duela astebete gertatu zen. Gauerdia baino lehen. Epela zen giroa eta ikusten nuenaz gozaten ari nintzen Bilboko Jado plazan jesarrita, hain zen begiztatzeko nuena anitza eta bizia. Hango lehoien iturria gustatzen zitzaidalako joaten nintzen hara. Asko preziatzen baititut iturriak, umetatik; ur txorrota konstante horrek, akaso, begiek jasotako irudi-uholdea bideratu eta nire kontenplazioa errazten dutelako. Ematen dit halako sosegu bat existentziaren kronometroa dirudien ur jauzi etengabe horrek, unea betikotu eta espiritualtasun batean zintzilikatzen bainau. Hainbeste temetzen omen nintzen umetan iturrien soinupeko kontenplazioan, edozelako tokitara gindoazela ere oportetan, amak beti aurkitzen baitzituen iturridun herrixka galduak bisitatzeko parada hondartzatik bueltan.

Bazeuden Jado plazan etorkin beltzak hitz asper-tuan nire ikus-eremuaren ezker aldean, izkina batean

geldirik; arkupetako tabernatan poteoan ari ziren hiruzpalau gazte kuadrilla haien txakurrekin; eta apenas hamarren bat metrotara, enfokatu beharrik gabe zelata nezakeen ilunpean babestutako bikotea.

Ingurunea begiratzeko nonbait geldirik egon behar hori, landarea loreontzian bezala, ez zen kapritxozko gauza bat. Zorabiatu egiten ninduen mugimenduak. Noiz edo noiz ibilia nintzen jendartean murgildua, merkatu plazatan eta halakoetan; baina sentitzen nuen, lekuko soil gisa gertakariak nire aurrean pasatzen ikusi ordez, begi-bistan neukanaren parte bihurtzen nintzela. Bazirudien neure burua eta kanpoko errealitatea banatzen zituen errezela hautsi eta ikusten nuen hartan txertatuta nengoela. Entzuna daukat antzeko zerbait gertatzen zaiela 3 dimentsiotako film baten aurrean ikusleei: zeluloideko irudien barrura erortzen direla. Bada, ni ere ohituta nago mundua begiralearen distantziazatik eta perspektibatik ikustera, eta oinez, edo geldi egonda ere trenez noanean, irentsi egiten nau begi-bistan daukadanak. Demagun prismatikoekin surflariei begira zaudela hondartzan, eta halako batean olatutzar batek gainean hartu eta zaldiak jockeya arrastaka eramaten duen eran eroaten zaituela urak ozeanoan barrena; sentsa-

zio seko aztoragarria da. Derrigorrez jende artean ibiltzera behartuta nagoenean, estropezuka abiatzen naiz, mozkortuta edo galernak harrapatutako txalupa-txoan nabigatzen dabilena bezala.

Istorioak imajinatzen nizkien begi-bistan neuzkan pertsonaiei. Gizatzarreko iruditzen zitzaidan gizonkote beltz hari bizimodua bihurritu, barreka ari zen beste hari zorioneko etorkizun bat asmatu, halaxe ematen nuen existentzia plazan. Etorkinak bere jaioterri urruna utzi izanaz damu ote ziren galdetzen ari nintzaiola nire buruari, ilunpean babestutako neska niri beha hauteman nuen.

- Aizu, kokolo, inkonformismo n edo m-rekin idazten da?

Etxeko egongelan bakarrik zaudela, jaberik gabeko ahots marrantatu bat entzutea bezalako zerbait izan zen. Hasierako ezustekoa pasatuta, haserre itzuli nintzen neure baitara. Ze eme eta zer otxokuarto?, esatekotan egon nintzen neskari. Kikilduta, ez nuen deus esan. Horman espraiz idatzitako letren trazu finari begira gelditu nintzen trantzean bezala:

«Inkonformismo materialista kanpora! Gora egarri intelektuala!».



Bikotea itzuli zen itzalpeko aterpera eta neure etxera ni. Film bat ikustera joan eta protagonista pantailatik niri mintzo izan balitzait bezala sentitzen nintzen. Eta konturatu nintzen nire begirada kutsatua zegoela, behatokitik ikuskatzeak ematen zidan plazera ez zela benetakoa: egiazko begirada garbi batek nire eta begi-bistan neukanaren arteko hartu-eman txikiena ere ez baitzuen onartzen. Hara!, pentsatu nuen, gaurdaino nire bizipen guztiak fikzio hutsa baino ez dira izan!

Urte luzeetan Afrikako gorilak kamuflatuta iker-tzen ibili eta gero uneoro nire presentziaz jabetu dire-la deskubrituko banu, ez nengoke zapuztuago. Ikerke-ta osoa hankaz gora jartzen baitzuen deskubrimendu horrek! Nork ziurta zezakeen zelatatutako animalien jokabidea naturala zenik? Ez ote zuen ikertzailearen presentziak haien jarrera baldintzatzen? Izan ere, nik mundua ikusten nuen bezala ikusten ninduen ni munduak, eta horrek erabat eragin zezakeen mundu horretako pertsonen jarrera nire begien aurrean; jakin baitzekiten, haiek ni bezala, nik ere haiek behatzen nintuela.

Kristo! Espontaneoki jokatuko ote genuke ba, urrundik etorritako estralurtarren miran gaudela jakin-go bagenu? Nik ez, bederen.

Aurkikuntza xume horrek hondoa jotzera eraman ninduen. Soilik ikusezin bihurtuta jaso nezakeen ingurunearen ikuspegi erreal, natural eta egiazkoa. Nola utzi hezur-haragizkoa izateari, ordea?

Biharamunean Guggenheim Museoan burumakur nenbilela topatu nuen erantzuna. Gustatzen zitzaidan areto itzel haietako baten bazterrean jarri eta jendea margoei begira ikustea. Hain zeuden txundituta horretan zintzilikatutako edertasun puskekin, ezen inork ez zuen nigan erreparatzen. Mendizalearentzat gailurreko airea arnastea bezalako zer bait zen niretzat han egotea, kutsatu gabeko ingurunea lasaitasunez behatzen uzten baitzidan. Asko miresten nuen koadroen existentzia. Bizirik gabeko objektuak baino ez zirenez, jendea kezkarik gabe hurbiltzen zen haien aurpegira. Gustura bihurtuko nintzateke margolan, bai; hartara, patxada osoan begiztatu ahal izango nituzke han bildutako ehunka bisitarien joan-etorriak. Ez zitzaidan ezkutaleku hobeagorik bururatzen ezelako errezelarik sortu gabe begiratu nahi zuenarentzat.

Margolan bilakatu ezin naitekeenez, inkognitozko artelan bihurtzea otu zait. Ez hiriko kantoietan pausatutako estatua geldo horietakoa. Ez. Kuriosoen begiradetatik ezkutatuko nauen mozorro ikusezina behar du izan nireak.

Baldarra naiz eskulanean eta ez dut ezer fabrikatzeko abileziarik. Ondorioz, aroztegi batera jo dut okume egurrez egindako farola bat enkargatzera. Zine errodaje baten aitzakia baliatu dut, ni barrenean kabitzeko adinako pieza egin diezadaten.

Ez dut esango bizileku egokia denik, apenas sartzzen bainaiz farolaren zimenduan dagoen espazioan, baina ez dut ukatuko nire bizitza errotik eta onerako aldatu duela tramankuluak.

Eguna barruan ematen dut, belaunikatuta, bi begiak ondo disimulatutako zulotxoetan ditudala. Litro eta erdiko Coca-Cola botila batean egiten dut pixa eta fruta janez elikatzen naiz. Gaua, ostera, behar fisiologiko larriagoei men egin, ganoraz jan, muskuluak luzatu eta behatokia lekuz aldatzeko erabili ohi dut. Barraskiloen tankeran bizi naiz orain, nirekin daroat etxebizitza. Lekuz sarri aldatu behar izatea, hori da bizimodu berri honen eragozpen eramangaitzena. Ez baita erraza farola non jarri erabakitzea: hain dago

ondo eginda eta horren fidel mimetizatzen da kaleko gainerako altzariekin, ezen hiruzpalau aldiz kotxez jo nauten eta zakurrek pixa egiten didaten gainean; eta hori gutxi balitz, argirik ematen ez dudanez, ostikoka ibiltzen zaizkit oinezkoak, gezurretako bonbilla kolpeka konpondu nahian.

Goienkalek eta Artekalek bat egiten duten kantoian erabaki dut nire behin betiko bizilekua finkatzea. Bihotz-bihotzeko lagun bat egin dut! Gregorio du izena eta ONCEko txartelak saltzen ditu nire aldamean. Haren begi hilek erakutsi ezin dioten errealitatea ikusarazten diot nik. Amesten dituen fikzio harri-garriak kontaktzen dizkit berak.

## 6

# *Bigarren Asanblada*

- New Yorketik etorri berria naiz, jaunak. Barkatuko didazue nire aztoramena. Jet-laga nahikoa nahasmendu ez eta ezusteko makur honi aurre egin behar...

- Errutinazko galdera xume batzuk egitera baino ez gara etorri -esan dio Errazkinek.

Soberako imintzio eta aieru antzeztu zale direnak ezin ditu jasan Errazkinek. Urte guztiotan egiaztatu duenez, funtsik gabeko pertsona friboloen ezaugarri berezkoena da axalkeriaz mintzatu behar hori.

- Utzidazue gauzak nire erritmoan kontatzen, arrapaladan egindako galderei erantzun behar horrek gaizkitu egiten nau-eta.

- Arinago, andrea. Ez digute denbora galtzeko ordaintzen.

- Badiotsuet, katedra entzutetsu bat antolatzen dugu bertoko unibertsitatean: Bernardo Atxaga katedra, hain zuzen. Gaizki dago nik hau esatea, baina ez naiz alferrikako apaltasunez ibiliko: munduaren epizentroan euskarari txoko bat egitea ez da txantxeta-

koa gero! Izan ditugu bertan, besteak beste, Atxaga bera, nola ez, eta Ordorika. Ben Monderrekin kantuan hau. Monder ezagutzen? Musikari ezaguna da Estatu Batuetan.

- Britney Spears bezainbeste, andrea. Harira! -Madariagak jasan ezin dituenak digresioak dira. Gogoz emango lioke zaplazteko bat atsoari.

- Errespetu pixka bat! Erakunde garrantzitsu bateko burua naiz!

- Gu ere bai.

- Ez genuen besterik behar! Disgustu latz hau jaso eta gero ere halako tratu begirunerik gabea sufritu beharra...

- Barkatu, andrea -esan dio Errazkinek-. Nire lagunak ez du batere pazientziarik. Hartu behar duzun denbora.

- Askok kontrakoa uste duen arren, erakunde oso inportantea da gurea, bai jaunak. Kontua da, bekaiztiz josita dagoela herri santu hau. Hori da gure drama. Arrakasta izan baitu New Yorkeko katedrak, eta hori, antza, ez digute barkatzen. Baina...

- Harira, andrea -Madariagak ito egin nahi luke.

- Katedraren atzoko amaiera ekitaldira Jaurilaritza-ko ordezkari bat eta Euskal Herriko hedabide garrantzitsuenak bildu genituen. Zer iruditzen?

- Bat-batean ukabilean kabitzen zaigula mundua, andrea -Errazkinek lehenbailehen amaitu nahi du, ironia darabil artazizat-. Haraino joan behar al da hemen eztanda egingo duten suziriak piztera?

- Ez entzunarena egingo diot iruzkin sarkastiko horri, agente jauna, ezjakintasunak jalgiazi baitu. Kippa jantzita joango bagina ere nekez lortuko genuke bertako medioen arreta, superpotentzia garelakotan edo? Tira, hori da gure lanaren fruitua, zenbaitzuek onartu nahi ez dutena. Han izan genituen Kultura sailburua, *El Correo*, *Deia*, *Berria* eta ETB. Bistan da, gure ekimenek mundu zabalean duten oihartzunak errebantxa nahia eragiten duela askorengan, eta...

- Jende asko bildu zen inbidia partitu zen mahaietan, andrea...

- Galdeketa absurdo hau bukatzeko, gure ekimen ugarien sona adina arerio daukagula esango nuke, niri halakorik onartzea mingarria egiten bazait ere.

- Ez dugu zalantzarik, andrea.

- Eta orain, eskertuko nizueke zuen peskizekin beste toki batean jarraituko bazenute. Lanez lepo ego-

teaz gain, jet-lag honek ez dit-eta behar bezala pentsatzen uzten.

Donostiari darion handikeria aristokratiko horrek ez dio Errazkini grazia zipitzik egiten. Alde Zaharrear mokadutxo bat hartu edo hondartzari gainbegiratu eman barik hartu dute ertzain biek itzulerako bidea.

- Erregea baldin bahaiz, ezin duk hiritar arrunten moduan bizi. Kito! Opera gustatzen ez zaiala? Izorra hadi!, hori duk tokatzen zaiana.

- Andre horrekin egoteak ez dik onik egin hiri ere.

- Koktel arranditsu horietara joan beharraz gogaituta hagoela eta nahiago hukeela txosnan kalimotxo edaten ibili? Beste horrenbeste! Hi, hori duk pribilegioengatik ordaindu beharreko prezioa.

- Ez zakiat nora hoan...

- Izan gintezke gu akaso aldi berean poliziak eta txoriburuak? Arrazoi horrexegatik izorratzen naik hiri honek. Plater guztietatik jan nahi lukeen hiri burgoia besterik ez duk. Modernotasunaren aire lotsagabea hartu nahi dik tradizioaren eitea galdu gabe. Hala ba, zuentzat osorik 2016, trabesti alaenak!

Errazkinek astiroegi gidatzen du beti, haserre egonda ere.



- Ez gaituk sekulan iritsiko -ohartarazi dio Mada-riagak.

- Instituzio horri neronek ere emango nioke sua!... emakumea barnean dela, noski.

- Pasatu egin haiz.

- Joder, kezkatuagoa zegoan ditxosozko jet-lag horrekin K Taldearen mehatxuekin baino. Ez al zaik arraroa egiten?

- Ez zakiat, ez nauk inoiz hegazkinez ibili... Baino arrazoi duk, emakume jasangaitza zuan, okaztagarria. Asunaren ukitua bezain mingotsa.

- Hi eta hire asoziazio xelebreak, motel. Tira, hiri erdiguneko eraikin baten bigarren solairuan zaukatek egoitza, ez duk erraza bertara ailegatzea. Zertarako arduratu, beraz? Bestalde, ez ditek asko behar halakok zapuzteko, defentsiban baitaude uneoro. K Taldeko malapartatu hauek... besterik ez zakiat, baina ez ditek burugabeak. Bazakitek mira non ipini.

- Ez zakiat nora hoan...

- Konturatzen bahaiz, euskararen magalean babes hartutako enpresetan eta erakundeetan ezarri ditek jo puntua. Zer gertatzen da halako entitateekin? Helburu jakin bat betetzeko sortzen diren arren, den-

borarekin, norbere eta inguruko lanbidea ziurtatzea besterik ez zaiela interesatzen.

- Eta zer?

- Hor daukak emakumearen aldarte suminduaren arrazoia. Alerta konstantean zagok. Bere lanbidea ez-baian egon daitekeelako izuak horretara bultzatzen duelako. Ondorioz, denbora eta esfortzu gehiago eskaintzen ziotek norbere lana justifikatzeari, probetxuzko ezer egiteari baino. Eta horrek balio dik diru publikoaren anparoan sortutako kultur zein bestelako egitura pribatu guztientzat.

- Higuigarria. Edozelan ere, gauza bat duk hori pentsatzea, eta bestea... denari su ematen hastea...

- Irakurri iezadak berriz komunikatua. Oharkabean pasatako pistaren bat aurkituko diagu beharbada.

K Taldearen Bigarren Asanbladak bere gain hartzen du Artazugoikoko Irale zentroari egindako eraso. Horrelako sasi-erakundeetan izaten den katxondeozko diru publikoaren xahutzea salatu nahi dugu ekintzarekin. Gure karpaina hasi baino ez dela egin iragarri nahi dugu bigarren komunikatu honekin. Duela astebete Gerediaga eta gaur Bilboko Iraleren

egoitza erre bezala emango diegu sua Etxepa-  
reri, Topaguneari, Kontseiluari, ETBren oskol-  
pean hazi eta aberastutako ekoiztetxeei eta,  
oro har, erakunde publikoen itzalpean kultura  
era desegokian kudeatzen eta denon sosak  
hurrupatzen ari direnei, harik eta desmadre  
hau eteten ez den arte. Bide batez, doakie  
gure mespretxurik gordinena Gerediagaren  
aurkako ekintza ulertu ez dutenei. Harien berri  
ez dakiten txotxongiloak zarete! Gerediagak  
eta enparauek saldu nahi diguten kultur eredu  
miserable hori gustuko baduzue, zoazte denok  
Las Vegasera antzarak ferratzera!

Irale zentroaren hondakinetan aurkitutako komu-  
nikatuak pistarik eman ez baina sikiera adimena en-  
trentenitzeko balio izan dienez, mutu egin dute Menda-  
rotik Ermurainoko bidea, bakoitza bere hausnarretan  
bilduta. Madariagak ireki du ahoa, tupustean pentsa-  
mendua argitzera etorritako ideiarene bati bide eman  
eta kidea txundituta uzteko intentziaz baino, bien ar-  
teko isilune astuna hausteko.

- Eta ultra atzerakoiek burututako ekintzak balira?
- Zein ultra?

- Egileek euskarari herra diotela zirudik. Futbol estadioetatik kanporatu dituztenetik ez zukatek nora jo. Seko aspertuta zabilzak kalamidade horiek!

Errazkinek duda egin du Madariaga ez ote den ergel mortala.

- Ultrak balira, komunikatuak ez lirateke euskaraz idatzita egongo, Sherlock. Supiztaile kuadrilla horren piromano burua ez duk ez antieuskalduna ez eroa.

- Ez futbolzalea orduan?

- Ez. Azeri bat duk. Jantzia eta adimentsua. Bat: egiten dutenaz harro daudenez, ez zukatek euren jarduna eufemismo txatxuekin mozorrotu beharrik: herritar xumeen hobe beharra, abangoardia eta abar. Zinezkotasuna ematen ziek horrek. Bi: morroiak badik euskal kulturaren ezaguera nabarmena. Ez diat esango euskara jasoa darabilenik, baina bai ondo landutakoa. Hiru: ez zakiat letra molde diferenteen erabilerak zerbait argitu diezaguen, baina ez duk kasuala. Izan litekek autorearen gogo suminduaren adierazgarri. Panfletoari eman ziotek, gainera, halako ukitu anarkista baldar bat. Baina esango nitek, halaber, gure morroiak ez duela gazte petral buruarin gisa nabarmendu nahi. Lau: bigarren asanbladari egindako aipamen

horrek zerbait garrantzizkoa ezkututzen dik. Zatibitze bat akaso? Ez genian besterik behar!

- Laburbilduz...

- Susmagarriak izan behar dik kulturarekin zerikusia. Gogaitutako maisua edo andereñoa izan litekek. Edo idazlea. Sistemak bazter utzitako edozelako sortzailea, bestela. Edo funtzionario kirten bat... Auskalo.

- Demontre! Ba, konponduta gaudek! Ez ziguk horrek susmagarri sorta makala uzten!

Trabatutako gogoetek kotxearen abiada moteldu eta bere pentsamendu propioan korapilatu da Errazkin lurretara bidean. Emazteak utzi ondoren ez daki zeren aurrean egotea komeni zaion: edo burua katigatzera behartuko duen kasu katramilatu baten aurrean edo, alderantziz, zirt-zart batean argituko litzatekeen arrunkeriarenean, hartara penen zauriak miazkatzeko denbora irabaziko luke-eta. Minari dolu tarte bat eskaintzea osasuntsua deritzo Errazkinek, barrenak hustu eta desintoxikatzeko ez bada ere. Azken finean, bere esku daude bi aukerak: K Taldekoen peripezien eskizei nahi beste denbora eman diezaioke, hala behar duela iritziz gero; kontrara, ikerketa bere horretan ustel dadin utzita ere, ziur da gaur ez bada bihar edo etzi harrapatuko dituztela han edo hemen, dire-

nak direla ere ekintzaile amateur horiek ez baitaukate iraultzaile taxurik.

Berriro hariari tiraka segitzea deliberatu du Errazkinek. Ez du oraindik emaztearen kontuari segundo bakarra eskaintzeko talenturik.

- Zer egingo huke hik nire tokian? -galdetu dio Madariagari.

- Beste neska batekin hasi. Ahalik eta lasterren.

- K Taldeari buruz ari nauk!

Autoa polizia-etxean aparkatu orduko esan du Madariagak:

- Noizik behin agertzen dituk ba, herriko paretetan, halako pintada enigmatiko batzuk? Elkarrekin errondan genbiltzala ikusi genituan orain hamabosten bat egun.

- Bai -Errazkin harritu egin da, gutxitan lotzen du inork berea ez den hausnarketaren sokara. Agudezia faltari egotzi dio deskuidua. Motel dabilkio pentsamendua azken aldian.

- Oker ez banaiz, zera esan huen hik: Polizia ikasketak ordeztatu Psikiatriakoak egin izan bagenu aberastu egingo gintuzkean... Txo, gizartea burutik jota zagok!...

- Esaldi poetiko haiek, ordea, zer ikusi zaukatek honekin? Bat-bateko ateraldi dibertigarriak besterik ez dituk pintada horiek.

- Ez zakiat ba... Norbanakoen barne iraultza kultural moduko baten aldeko aldarria egiten dutela esan hidan. Eta nonbaitetik hasi beharra dagoenez...

- Ez gaitezen endredatu malamentean, Madariaga.

- Ados.

- Bide batez... hik baheukan konfiantzazko mihiluzer batekin kontaktua... Zertan da hartu-eman hura?

- ONCEko kupoia erosten zioat noizik behin. Ez duk salatari bat. Kuxkuxeroa bai, baina ez salataria.

- Zerbait jakingo dik beharbada.

- Itsua duk!

- Baina ez gorra. Bazterretan gertatzen den guztiaz jabetzen dituk itsuak. Egin iezaiook bisita.

- Kupoia erdibana?

- Ez. Tira, bai.

## *Analisia*

**Iñigo Madariagak** ez du onartuko erretzaile porrokatua zigarroari bezain atxikita dagoenik psikoanalistaren hitzorduei. Loa baino beharrezkoagoa du astearte arratsetako solasaldia Laurarekin. Hainbeste ezen, gaur bertan hilko dela jakinez gero, horrexek besterik ez bailuke penatuko: psikoanalistarengana huts egiteak (eta datorren igandeko futbol partida ezin ikusteak).

Aldika putetxera egiten dituen osteratxoek ere jada ez dute asetzen; zuhurtziak gomendatuko zukeena baino maizago eroaten zuen lehen grinak putetxera, bizpahiru aldiz astean, irritsaren menera zegoen eta Madariaga. Are gutxiago betetzen du esperimentazio gastronomikoak, garai batean jatetxe entzutesuetako otorduek eragiten zioten zirrara ia mistiko horrek. Plazer tenpluatatik ez zuen diruak aldendu, pitinkako gogo ahitze batek baizik. Bazirudien organismoa baino azkarrago zahartzen zebilkiola arima. Desio fisikoa eta dastamena hein eta aldi berean galdu zituen.



ETA gerraren danborrari bortitzenean emanka zebilen sasoian, 91 edo 92an, hasi zuen Madariagak psikoanalisia. Hogeita hiru urteotako terapiak eman dio, bederen, Erakundearen siglak ironiaz erabiltzeko ahal apur bat, hiru letra larrion batura entzun edo irakurri eta izu-izerdiz blai eginda gelditzea gauza bera baitziren ez oso aspaldi arte.

Psikoanalistak soinean daroan mantal zuriak ere badu, noski, urte guztiotan behin ere hutsik egin gabe terapiara joan izanean eragina. Madariaga izugarri erakartzen baitute uniforme zantzuak andrazko zein gizonezkoek: erizain, suhiltzaile, dentista, azafata edo zentro komertzialetako dendari... ertzain jantziak dramatzatenak izan ezik.

Anormaltasun horren inguruko kezka azaldu zion Madariagak behinola Laurari, bisexualitate hipotetiko bat iradokiko luketen zantzuak isilean gordeta, jakina.

- Ohikoak inposatutako eremutik aldentzeko joera naturala du pertsonon psikeak. Egunero parez pare duzunarekiko herra mutu bat garatzen du adimenak. Hortik dator, adibidez, exekutibo askok gorbata eta trajeari dioten amorrua; edo munduko emakumerik ederrenarekin esnatzen denak andrazko zatar edo zaharrekin amets egiteko joera.

Honelako erantzunengatik zituen solasaldiok gus-tuko, Laurak uniformeekiko erakarmena saihestu -de-sira horretan disfuntziorik aurkitzen ez zuen seinale-eta soilik ertzainen uniformeekiko zeukan higuina baino ez baitzion kontuan hartzen, hori ere naturalta-sun osoz onartuz, bestalde.

Madariagak, dena den, ez du erantzunik bilatzen psikoanalisian. Nola murgiltzen den pozarren arkeolo-goia indusketa lan amaigabea, hartara kuriositate egarria inoiz agortu ez dakion, hala alboratzen ditu apropos Madariagak galdera zuzen eta egokiak, ebaz-pen konkretuekin behaztopa egin ez dezan. Altxor aurkiezin baten bilaketa konstantean ibiltzea bezalako zerbait baita, azken finean, psikoanalisia: amaierarik gabeko auto-indusketa saioa. Asko lasaitzen du ho-rrek Madariaga, izutu egiten baitu noizbait hondora iri-tsi eta bertan topatuko lukeenak.

Laurak ertzain buruei igorritako txosten bati zor-dio Madariagak kalez jantzitakoen unitatera destinatu izana. Baita futbolarekiko afizioa ere, laneko arrangu-rak nola edo hala alboratu beharra zeukala iritzita, Laurari bururatu baitzitzaien Madariagaren gogoia Ath-letic aldera bideratzea. Euskara ez menderatzeak egin zuen gainerakoa. Osasungarria omen da elastiko eta

ikur batekiko atxikimendua, atsekabearen purgatzaile paregabea. Eta, gerora egiaztatu duenez, lotsaz erakitako identitate ahul baten babespe bikaina.

Laurarenganako debozio tolesgabe horrek beste-lakorik iradoki dezakeen arren, Madariagak ez du bere psikoanalista maite. Ez, bederen, hetero batek imajinatuko lukeen eran.

«Erakargarria da Laura. Bata zuria soinean jantzita duenean bereziki», pentsatzen du Madariagak. «Ez da polita -aurpegi borobila, masail pattal eroriak, bezuloak, begi ilun hilak-, baina ezta beharrik ere!», begiratua biolin formako gorpuzkeran pausatzen du-eta segituan. Azal seriodun liburu mardul eta eder horietako bat iruditu zaio beti Madariagari. Lotura bitxi horien zergatiaz galdetu zion behin Laurari, kezkatuta baitzebilen pertsonen irudia objektuekin parekatzeko zuen ohituraz. Galderari gordintasuna kendu asmoz edo, azal gogorreko liburu bikain bat gogorarazten ziola aitortu baino lehen, Sofia Lorenen airea zuela esan zion:

- *Un dos tres* saioko azafata batean gorpuztutako Sofia Loren batena, zehazki.

Laura barrez lehertu zen, modu zaratatsuan:

- Aukeran, nahiago nuke Claudia Cardinale!

Liburu batekin egindako joskerari ez zion aparteko garrantzirik eman. Berak ere nahiago zituela liburu-tzarrak, dozena erdi orriko panfleto arin eta sinpleak baino. Madariagari orduan joan zitzaizkion psikoanalista seduzitzeko noiz edo noiz izandako asmoak eta desio izpiak. «Gizon txiki eta meheegia naiz ni; trinkoa eta gihartsua, hori bai; baina maskal samarra Laurarentzat».

Madariagak ez du dagoeneko maitalerik behar. Ez da bizitza inorekin konpartitzeko kapaz sentitzen. «Zer konpartitu, ez badut zer eskaini?». Irekitako kanilatik borborka ura bezala doakio bizitza isurbidetik behera. Hartara, hobeto letorkioke neskame bat amorrantea baino, «zaharrak zaintzen dituzten horietako bat, zeinarekin hitz egin beharrik ere izango ez nukeen, soilik espazio bereko airea arnastu eta erradiadore berberaren berora biltzea beste nahirik ez». Eta okerrena da ezin duela bere animo eroria ezerekin kontsolatu, gizateriarekiko eszeptizismo makur batek goibeldua dio espiritua aspaldidanik. «Demontre, menturaz kalean utzitako bizikleta ostu diezaiotela baino ez du-eta behar gizonetan zintzoenak lapur bilaka dadin!». ETaren erasoaldi ankerrenen garaian hartu zion laiotzak bihotzondoa, lazgarria iruditzen

baitzitzaion Madariagari izugarrikeria haiei jendarteak emandako erantzun gatzgabea. Ez dituzte, harrezke-ro, eguzki errainuek bazter umelok berotu. Une jakin batean esperantza txiki bat ernatu zitzaion; albistegi batean urruneko ezbehar dantesko bat ikusten ari zela gertatu zen: hunkitu egin zuen tragedia harekiko elkartasunak. Konprobatuta baitzuen zirkunstantziek amen batean gaiztotu zezaketela onbera xaloenaren borondatea, maltzurkeria zitalena egiteko kapaz zena-ren gogoia onbideratu zitekeen zantzuak hauteman nahi izan zituen elkartasun hartan. «Nork jakin, akaso eskuzabaltasun unibertsalak ahalbidetuko dit orain arte kuku-gordeka ibilitako sosegu existentziala lortzea», pentsatu zuen Madariagak bere kolko zinikora-ko, 100 edo 200 euroko donazioa egitea erabakitzen zuen bitartean. Ez zion asko iraun pena unibertsalak limurtzeko sukarrak, aurkezleak irudi odoltsu haietatik pantailara itzultzen tardatu zuena doi-doi; atoan arin-du baitzuen memeloak arestiko tragediaren samina, ohiko txepelkeria bati irribarretsu pasoa emanaz. Nor-bait artatzekotan, beraz, bere gaitz propioei arreta ipintzea erabaki zuen Madariagak, eta gogoia urruneko desgraziak leuntzera eraman orde z gertuagoko barne-zuloetako analisisian pausatzea. Larregi zulatu

gabe, zer esanik ez, ez baitira gauza bera ilunpean erantztea eta norbaiten aurrean biluztea.

Edozelan ere, eta psikoanalisiarekiko fedea eta Laurarekin ezelako harreman afektibo zein sexualik edukitzeko itzaropena aspaldi ahituta dituen arren, bizarra egin eta domekako arropak janzten ditu haren kontsultara doan bakoitzean. Ez du uste Lauraren begiak goxatu eta haien bitartez bere egoa puzteko egiten duenik, arrazoi are negargarriagoarengatik baizik: nabarmen goibeltzen doakion adoreak guztiz hondoa jo ez dezan. Penitentearen eroapen makur bertsuaz baitabil Madariaga azkenaldian, bere animoa kaltetzeko ahaleaginean. Utzikeriaren hautsak aspaldi hartu zituen etxeko bazterrak, baina bizitokitzat daukan txerritokiaren lohia nahikoa ez, antza, eta bere burua zarpaildu guran ari da orain bihotz eta arima. Hainbestekoa da duintasun laxoenak exijituko liokeen higiene minimoenari uko egiteak ematen dion plazera, ezen lanera joan behar duenean ere apenas hartzen duen ardurarik dutxatu eta bere burua txukuntzeko.

Eldarnioan kulunka dabilen eroak aldiari behin zentzuzko susperraldiak izan dituen gisan, dohaka-beenek ere ba omen dute desesperazio gordinenetik libratzen dituen sen hilezkor moduko bat: horra bere

borondate eroriaren aurkako asteroko erreakzio horren kausa. Madariaga konturatzen hasia da bere gogoaren desintegrazioak ez duela atzera bueltarik, eta horren jakitun izateak kezkatzen ez duen arren, ez luke nahi abandonuaren gibelera oharkabean erortzerik, era kontziente eta neurtuan baizik. Hain justu, horrexegatik ematen dio atsedean auto-suntsiketa prozesuari astearteetan: urperatzera doan ontziko kapitainaren antzera, azken unera arte eutsi nahi diolako bere gainbeheraren timoiari.

Eta nolakoak diren depresioaren maldan irristatuz doazenen obsesioak... hala eta guztiz, abaildura propioa bazter utzi eta Errazkin kidearen goibeltasunari erremedioa bilatzera abiatu baita Madariaga, uneotan psikoanalistarenean egon behar zuenean (kolonia pixka bat eta traje dotorea soinean).

Zurbil nabari du Errazkin, hura bezalakoengan aurkitzen gaitz den gogogabetasun estu batean murgilduta balebil bezala. «Bizitzari modu erdi jostarian aurre egiten diotenetakoa da berez Errazkin, arazoei dagokien neurriko garrantzia eman eta ezerekin soberra berotzen ez dena». Eta horregatik kezkatzen du Errazkinen ezinegon hits honek. Baina kezkatzen du, batez ere, bere nahigabe propioari gerizpea egiten

diolako haren nahigabeak. Sufrimenduaren altzoan beretzat baino lekurik ez dagoela iruditzen zaio Madariagari, singulartasun horrexek ematen baitio bere pairamenari daukan ahalmen erredentorea.

- Asko eta sarri sufritzen duenak, oinazeari gainbalio bat eransteko tendentzia du -esana zion Laurak-. Zorigaitzaren aurkako autodefentsa mekanismo gisako bat da, zeinak pairamena adorez eta harrotasun pitin batekin eroaten laguntzen duen gizagaixoa. Ez zaio desgraziaren indar seduzitzaileari muzin egin behar -zioen Laurak, sekula gorriak ikusi gabekoak oinazeaz mintzo diren modu hotz eta kalkulatu horrekin-, arrakasta bezain erakargarria suerta dakiguke zorigaitza: indibiduo bakar eta diferente sentiarazten gaituzte, hain zuzen, biek.

«Lelokeriak!», pentsatu du orain Madariagak.

Berekoikeriak eroan du horrenbestez kupoi saltzaile itsuaren enkontrura, Errazkinen samina K Taldearen kasua ezin argitzetik datorrela iritzita, lagungarri suerta dakiekeen informazioa lortzea baino beste modurik ez baitu ikusten Madariagak kidearen penak leunduz bereetan sakontzen segitzeko aukera.

Ez ditu ehun metro egin oinez eta hasi zaio kulparen harra kontzientzia urratzen. Damu zaio Lauraren



hitzordura huts egin izana eta damu zaio horren kausaz ere arranguraka ibili beharra. Eta Madariagaren damuak sentimendu zabarragoen akuilua bilatu ohi duenez, laster gailendu zaio amorrua arestiko Errazkenganako errukiari. Sufritzailearena ondo kostata irabazitako estatusa iruditzen baitzaio Madariagari. Ondorioz, edozelako kez karen aitzakian malkotan urtzen direnena, pose estetiko hutsa besterik ez da. «Zer jakingo ote dute Errazkin modukoek benetako sufrimenduaz, telebistaren konpainia soilak arindu ezin dezakeen oinazeaz, lehenengo ikarak nozitzen hasterako edozein amoranteren magal epelean kuzkurtzen dira-eta!?».

Bere-berea du Madariagak edozelako erabakik, baita txatxuenak ere, bazter uztera behartzen duen aukerarekiko garbaia. Susmoa du, horrexegatik hautatzen dituela ondoriorik zailena duten erabakiak, honela bere burua modu bikoitzean zigortu ahal izateko: hautatutako aukeraren bideragarritasun ezarengatik eta esploratu gabekoak eskaini diezaiokeen abagunearengatik. Makilakadaz arre egitea beste erremediorik ez duen astoa bezala dabil trabeska, eta badakien arren bera dela bere buruari egurka ari zaiona, ez zaio inporta, berdintsu baitzaio aurrera egin, ezkerretara

okertu zein zirkulutan ibiltzea. Kontua da zurtuta ez pausatzea, badaki-eta gelditzea pentsamenduari eskuetan eskopeta jartzea litzatekeela. «Bere buruaz beste egindako makina bat gizon-emakume ikusia naiz; eta, tiroaren inpaktu zakarra gorabehera, ez zirudien mundua uzteak asko penatu zituenik».

Errazkinen erruz alferrik galdutako psikoanalisi saioa nola ordainarazi pentsatzen zihoala entzun ditu Madariagak zaleen orroak, taberna ondotik pasatu deanean. Erdipurdiko partida izanagatik ere, kupoi saltzaileitsuak itxaron dezakeela iruditu zaio. Ez zaio futbola bera, jokoa, larregi interesatzen. Talde handien arteko partidak baino ez ditu gogoko. Benetan gozagarri zaiona futbolaren inguruko tirabira da. Pasioz jarraitzen ditu telebista eta irratietako kirol tertuliak. Eta bere burua Athletic zaletzat aurkezten duen arren, Real Madrid du kutuna, talde handi horren inguruko kontuek ematen baitute zer esan ugarien hedabideetan.

«Izorrai!» esan du, bi aldeetara begiratuz norbaiten bila balebil bezala. Errazkin aldamenean edukitzea gustatuko litzaiokeela pentsatu du une batez, hartara epelak esango lizkiokeela. Haren presentziak tamalez oraingo bere oldar erasokorra supituan bare-

tu eta bestelako su kartsuagoa piztuko liokeela iruditu zaio geroxeago, Errazkinen esanetara berehalakotan eta gustuz otzantzen da-eta normalean. Nondik ote datorkion edonoren menera egon nahi izate hori galdegin dio bere buruari. «Bizitza handiegia zaidalako, akaso? Edo, bestela, ezdeusegia naizelako bizitzari aurre egiteko? Neure kabuz hartutako erabakiek bulzatuta ordeztu, besteen aginduei segika baino ez dakit bidea egiten».

Listu mordoilo bat amorrutik lurrera bota eta erne-gatuta sartu da tabernara Madariaga.

## 8

# *Bovary*

**Psikoanalistak** grabagailuari play sakatu eta gainezka egindako urak bazterrak bezala hartu du aho-tsak gela. Boz mehea duen arren, norbait zigortu nahi balu bezala mintzo da emakumea, zartadaka: azoteen gisan luzatzen ditu zetak.

«Orain sentimendu horretan errekonozitzen ez bainaiz ere, higuingarriak zitzaizkidan garai batean futbol jarraitzaileak. Nola esango nizuke, ba, elastiko zurigorri horiek gizartearen gabezia guztiak islatu eta nire porrot pertsonala hain uzten zuten agerian... Gorroto nituen haien iskanbila eskandaluzkoak, orro adoret-suak eta, batez ere, neurritz gaineko poz erakustaldiak. Dolu bainindoan ni sasoi hartan, exhibizionismo agerraldi iraingarriak iruditzen zitzaizkidan...».

Lurak boligrafo gorriz idatzi du koadernotxoan: Bere ametsen heriotza goiztiarrarengatik doluz?

«...Pentsa, etxerako bidean kalea gurutzatu behar izaten nuen tabernako terrazan bildutakoan aldamentetik ez pasatzearren! Igande hartan nire burua nabarmentzeko premia sentitu eta desbideratu orde z

aurrera segitu nuen. Futbolari beha zeudenen arreta neureganatu eta haien begirada gordin, esplizitu eta lotsagabeak jaso nahi nituen. Ez da kontu makala gero, laneko uniformeaz jantzita bainindoan! Begira, ez naiz atentzioa ematen dutenetakoa. Sekula ez naiz makillatzen, dagozkidanak baino arropa zabalagoak janzten ditut eta, amak dioen bezala, irudiko luke neure burua zatartzeko ahalegin bizian nabilela une oro. 'Edozeinek esango luke trapuon atzean neska bat dagoenik, emakumea!', esaten dit temati. Tira, orain ez dizkit holakoak esaten; orain baditu amak itxuraz haratagoko kezka».

Laurak hasperen nekatu bat eginez idatzi du: Ama-alaben arteko gatazka toxiko zantzuak ote?

«Bazuen gizonak axolagabetasun iradokitzaile moduko bat. Nola esango nizuke ba; eite idor, zorrotz eta interesgarria. Bazirudien eremu magnetiko batek babesten zuela anabasa zalapartatsu hartatik.

«Kasik oharkabean hasi nintzen makillatzen. Ez dut gogoratzen behintzat goiz batean ohetik jaiki eta 'gaur makillatu egingo naiz!' edo halako zerbait esan nionik nire buruari. Ez nuke jakingo esaten, ezta ere, zein egunetan eman zidan armairua hankaz gora jar-

tzeko bulkada hori. Haatik, ez dut bat-batean gertatu zen inpresiorik.

«Igande arratsalde hartan igogailuan hartu nuen sustoaz akordatzen naiz: jaisteko botoiari sakatu eta gero ustekabean egin bainuen topo ispiluko Ni berriarekin. Ez nintzen ausartu ikusi nuenaren juzkurik egitera. Futbolzale misterioitsuaren begiradak axolatzen ninduen, ez beste ezerk. Ez nekien, sikiera, ze klasetako begirada jaso nahi nuen: iganderoko zurrun eta hotz hori, ala berri bat, lizunagoa. Terrazara hurbiltzera nindoala espantuzko pentsamendu makur bat etorri zitzaidan gogora: eta ez modu batera ez bestera begiratzen ez banau?

«Izuaren menera gelditu nintzen tarte batez. Harri bihurtuta. Atera nuen, dena den, lauzpabost pauso kullankan emateko adore nahikoa. Eta han abiatu nintzen, Harlemera barneratutako turista zuriaren aldar-te zalantzakor berberaz.

«Gerokoak ez dauzkat zehatz gordeta memorian. Xehetasunik gabeko irudiak dira oroimenak erakusten dizkidanak. Erreskatatu nahi ditudanean iskin egiten didate eta behar ez ditudanean tupustean etortzen zaizkit, aparizioak bezala. Tira, ezer berririk ez: erauntsitako gudu-zelaia baino ihartuagoa dut kaskoa».

Laurak arin idatzi du: Izaera egiazkoaren eta faltsuaren arteko norgehiagokaren ondorioa?

«Gizon asaldagaitzak Iñigo Miguel izena zuen. Ez dut uste benetako izena denik. Abizen arranditsu baten babesaren edo zeukana baino gizontasun handiagoa behar du batek norbere burua deitura elkartu aristokratikoaz aurkezteko. Ez zidan kupoi saltzaile bati egingo liokeen baino kasu gehiago egin, emaitzaren inguruko nire jakin-min itxuratiari esku bateko hatz erakuslea altxatuz eta bestearekin 0 bat marraztuz erantzun baitzion. 'Hara, ze pena!' esatea baino ez zitzaidan otu, pentsa. Ni baino txepelagorik, gutxi.

«Iñigo Miguelen zirujau-begiradaren lilurapean gaitibatuta nengoenez, hain zen trinko eta tentagarria, musu eman nion birritan pentsatu gabe. Etxe atarian bigarrena, igogailuaren zain geundela hirugarrena eta, gorantz gindoazela, beste dozena erdi bat. Maitasun idilikoaren zain dauden ipuinetako printzesa leloak baino miretsiago biluztu nintzen geroxeago gelan».

Bovary!, idatzi du Laurak, irriño bat disimulatuz, ironiak formula bihurria osatu baitio gogoan: Freudek ematen didan ahalagatik, Bovary izenaz bataiatzen zaitut!

«Ipuin honek ez zuen zorioneko amaierarik izan, edozelan ere. Jesus!, kimerez ehundutako sarean hezten gaituzte eta bizitza santu osoa ematen dugu ondoren hautsitako hariak konpontzen! Ez nuen haren zakil txepela altxatzerik lortu. Ezpain artean gelditu zitzaidan muskulu eroria, errenditutakoen masta hautsian bandera bezala. Negar zotinka hasi nintzaion, desenkusaka, erruki eske».

Laurak, hitz egokienak bilatzeko tarte hartu ostean, idatzi du: Arraren plazeraren ardura emeari dagokiola barneraturik dauka. Erruduntasun sentimendu horrek ezkutatuko amatasun nahi inkontziente bat erakusten ote du?

«Gauza bat esango dizut: ez zait sexua bereziki interesatzen. Ez da frigidoa edo anorgasmikoa naizela, berotzea asko kostatzen zaidala baizik. Praktikaz dakit, oso promiskuoa izan bainaiz. Lehen asko larritzen ninduen horrek. Orain ez hainbeste, ikasi dut eta desioa aintzat ez hartzen. Emakume praktikoa naiz beste ezer baino lehen».

Idatzi behar zuena hausnartu ondoren ipini du Laurak: Formazio reaktiboa. Sakoneko trauma adieraz dezake Egoaren defentsa mekanismo horrek. Aztertu beharrekoa.



«Ez niri zomorro bati bezala begiratu! Pako Aristiri entzuna diot behinola hark Harkaitz Cano edo beste norbaiti entzundako pasarte bat, non esaten zuen loak hartu aurretiko unean besarkatzen dugun pertsona dela munduan daukagun helduleku bakarra. Gauetako ilunpeko bakardade sarkor horren gibelean sentitzen den izuaz mintzo zen, noski, ez bazkalosteko lo kuluxka gatzik gabekoaz.

«Joseph Conraden *Ilunpearen bihotzean* eleberria ezagutzen? Horrorea, ai, horrorea... esaten zuen Kutz pertsonaiak, eldarnio betean. Zera, inpresioa dut, bakarrik bizi direnek baino ezin dutela gizon hautsi horren izua konprenitu. Izarapean atezu konstantean kiribilduta egote hori, dardarei ezin eutsita, zeozer gertatuko zain bazeunde bezala: lekuz kanpoko zarata arrotz bat, ideia matxinatuen ustekabeko erasoaldi beldurgarriak... horrorea, bai, horrorea».

Deskubrimendua egin duenaren aldarrez idatzi du Laurak: Ni faltsua gailentzen zaio behin eta berriz benetakoari, zeina uzkurtuta baina nabarmendu nahian dagoen inkontzientearen barrenean.

«Gustatu zitzaidan nola besarkatu ninduen Iñigo Miguelek lo hartzean. Hainbeste ezen ohean ezinbesteko konpainia zaidan trapuzko panpina ere ahantzita

utzi nuen bazterrean. Bularra nire bizkarrera lotu, bi besoekin inguratu eta ipurmasailean tinkatu zidan gerrialdea. Iztartean sentitzen nuen Iñigo Miguelen zakil umel eta derrotatua. Bietako inork ez zuen augurio kezagarri horren inguruko aipamenik egin. Bostekoak tratua balioztatzen duen bezala onetsi zuen Iñigo Miguelen eusteko modu hark bion arteko harreman kontzebitu berria».

Laurak keztaturik idatzi du: Bovaryk objektu transakzionalari dion atxikimendu garaiz kanpoko horrek zein gabezia ezkuta lezake?

«Harremanaren gauzatze behin betikoa, nola ez, amaren onespenak ekarri zuen. Ikaragarrizko arindua hartu nuen nik berria ematean eta egundoko poza amak jasotzean, dramatikoa iruditzen baitzitzaien familiakoei etxeko gazteenaren bakardade adierazgarri hori. Ez zuten -amak batez ere, ahizpa ezkonduak ez horrenbeste- bakardadea egoera pertsonal lez ikusten, gaixotasun baten zantzu nabaria balitz moduan baizik. Hogeita hamar urterekin mutil-lagunik ez edukitzea txikikeria iragankor bat izan zitekeen, apika. Baina berrogeiak ondo beteta zituenarengan gaitz larrriago baten ebidentzia zen, ezelako dudarik gabe. Jesusen ama, entzun behar direnak! Bistan da: norbaiti

arrimatuta ikusi nahi nau amak, zela edo hala, dela mutila edo dela neska».

Hazpegia zimurtuz idatzi du Laurak: Ama zikirtzailearen eragin nabarmena. Sindrome horren ondorioetan sakondu beharko dut hurrengo sesioetan.

«Tumore bat aurkitu balidate, baina onbera dela esango banio, ez luke amak poz handiagorik hartuko. Albistea eman eta ondorengo galdeketa gupidagabeari ahalik eta gogaldi baikorrenaz erantzun nion, asko kontsolatzen baininduen ama alai ikusteak.

«- Iñigo Miguel, beraz. Euskalduna al da? Zertan lan egiten du?

«Ez zion lehenengo erantzunak grazia handiegirik egin, antza, bekainak zimurtu eta kopetilun jarri zena eta atsoa, baina instant bat baino ez zen izan, Iñigo Miguelen ofizioa aipatzearekin batera errekuperatu baitzuen amak arestiko euforia. Zera iruditu zitzaidan: loteria tokatuta ere ez lukeela poz biziagorik hartuko. *Funtzionario* hitzak badu halako eragin baltsamikoa batzuegan. Nire amarengan, liluragarria, zehaztasun gehiagoren peskizan abiatu ordez hitza murduskatzen gelditu baitzen tarte luzez.

«Jakín-jakín, elkarrekin generamatzan hamabostaldia eta gero, ez bainekien Iñigo Miguelez ezer. Ga-

norazkorik, behintzat, deus gutxi. Funtzionarioa zela eta futbola izugarri gustatzen zitzaiola, horixe baino ez. Futbola baino gehiago, Athletic, berari sarri azpimarratzea gustatzen zitzaionez.

«Nortasun faltak eraman omen zuen harmailetara, mendre halakoa. 'Ez nire nortasun propioak' esan zidan bere ahots ez malezia ez gatzik gabeko harekin, 'nazio identitatearen zentzuan ulertu behar duzu nortasunarena'. Iñigo Miguelen esanetan, euskara ez menderatzeak airean zintzilikatua bezala uzten zituen bera modukoak Euskal Herrian. *Entre Pinto y Valdemoro*, zehazki bere hitzetan. Abertzaletzat omen zuen bere burua, norbere bizilekua goretsi eta besteena degradatzen dutenen lokalismo zahar hori baino aldarrikatzen ez zuen arren, benetan, kaiku halakoak. Bizilekuak berdin balio baitzion herria, mankomunitatea, norbere etxea, kotxea edo baratzea izendatzeko. Gizagaixoa ez zen bere sentimendua -bat bakarra, sinplea- esplikatzeko kapaz. Horrela laburbilduko nuke nik: nire aitaren etxea gotorleku bihurtuko dut besteengandik babesteko. Eta gero komenientziaren araber jarriko ditut etxe horren paretak Ceutako mugan, Europako kanpoaldean, edo nire auzunearen eta hurrengoaren arteko farola ondoan. Hara, ni ez naiz ana-

lista, baina traumen inguruko bi kiloko tratatu bat egiteko bezain nahasia du hark kaskoa!

«Sumatuak nituen ordurako txepeltasun zantzu aski nabariak Iñigo Miguclengan, ez naiz emakume inozoa. Baina, zuek diozuen moduan, ikusitakoaren pertzepzioa behatzen ari denaren nahiak baldintzatzten omen du, ondorioz garrantzirik gabeko seinale lausotzat hartu nituen. Mea culparik ez, beraz. Ados, badut maitasunaren ideia gurtzeko joera infantila, zeinak itsutu eta lelokeriak egitera bultzatu nauen behin baino gehiagotan. Baina ez ezazu bakardadea gutxietsi: itsutasun egoskor berberak gobernatzen ditu bakarrik egoteaz gogaitutakoaren eta maiteminduaren arrazoa, zuk ere badakizu horrenbeste».

Lotsatuta idatzi du Laurak: Nota pertsonala... horren agerikoa ote da nire atsekabe propioa?

«Ez nuen amore eman, beraz. Areago, inpresioa daukat tentel bat trebatu nahiaren erronkak seduzitu egin ninduela. Jeneral batek kontraerasoa prestatzen duen modu artatsu berean planifikatu nituen hurrengo pausoak, ez bainengoen gudu hura galtzeko prest. Lehenengo eta behin, futboletik urrunduta eta bestelako diziplinetara erakartzea erabaki nuen, hartara, eta suerte apur batekin, Iñigo Miguelek gauza guztiekiko

erakusten zuen jarrera axolagabeari astindu bat eman eta haren barrenean gordetako kuriositatea piztea lortuko nuen.

«Hara, konfiantza osoz mintzatuko natzaizu: zenbaitzuk arnastea doan delako bizi direla egia hutsa da. Giltza bat dute buruan. Off ematen diote eta jada ez die ezerk hunkitzen ez minik ematen. Inmuneak dira. Iñigo Miguelen aburuz, pobreak Afrikan zeuden, agintari ustelak Australian eta bere arazo pertsonalak praktikako poltsikoetako batean kabitzen ziren. Bi gauzek baino ez zuten egiazki gatzgabe hura arduratzen: eguraldiak eta Athleticen sailkapenak ligan. Sexu kontuetan erakusten zuen trebezia faltak ere ez zuten batera aztoratzen ganorabako halakoa! Eguraldiarekin, ostera, bereziki zen temosoa. Bazuen sakelako telefonon iragarpenen berri ematen zion aplikazio bat, eta uneoro ibili ohi zen hari begira, Andoni Aizpuru bailitzan, entzuteko adorea zuenari hurrengo egun eta asteetarako pronostikoa ematen».

Laurak utzi egin dio oharrak idazteari. Bere pentsamenduetan katramilatu da. Erle baten burrunba urduria besterik ez du adituko aurrerantzean.

«Eraman nuen zinera eta antzerkera. Baita jada gogoan ez daukadan hitzaldiren batera. Eta musika

kontzertuetara. Jabearen esanei errenditutako zakur baten jarrera otzanaz segitzen zidan Iñigo Miguelek hara eta hona, eta gustatzen zitzaidan entrega hori, zer demontre! Ikusi genituen *La vida de Adèle*, *Loreak* eta *Hamlet* antzezlanak erreskadan, aste berean. Zera pentsatu nuen: ez baditu gaindosi kultural honen inpaktuak lelo honen barrenak astintzen, ez du ezer eragingo. Estrategiak ez zuen funtzionatu, bistan da. Ondoren ohean baieztatu nuenez, *La vida de Adèle*ko eszena esplizituenean ez hotz ez bero utzi zuten Iñigo Miguel. Ez zirudien, ezta ere, *Loreak* eta *Hamlet* ulertu ez izanak euskararekiko interes txikiena piztu ziotenik funtzionarioari.

«Kuriositate ezak eragin narkotizatzailea zuen Iñigo Miguelengan. Interesatzen ez zitzaidan gauzek denek, bistan zenez- ez zuten soilik aspertzen, baita absentzia moduko egoera batera eramanez ere.

«Mahomarena egitea beste irtenbiderik ez zitzaidan gelditu, ulertuko duzunez. Iñigo Miguelen elastikoa tiraderatik atera, bizkarrean Aduriz izena zeraman laurogei euroko bigarren bat erosi, eta San Mamesera abiatu ginen Athletic eta Barcelonaren arteko partida ikustera. Ez daukat hitzik han sentitu onena adierazteko. Galdetuko bazenio, mutil-lagunaren influentziapene-

ko delirio iragankor gisa definituko luke amak. Mordoka metatutako behar afektibo baten inplosio germinala, edo antzeko beste pitokeriaren bat, izan litekeela esango didazu zuk luze gabe. Eta Iñigo Miguelek, azkenik, bere espazio propioaren desjabetze behartuaren lehenengo pauso deituko lioke.

«Poz betekada pletoriko bat. Liberazio katartiko bat. Multzo bizi baten parte aktibo sentitzearen plazer ikaragarria. Deitu nahi diozun bezala eta analizatu sudurraren puntan jartzen zaizun eran, niri bost.

«Gau hartan, inoiz ez bezala kitzikatua bainengoen, Iñigo Miguelen suhar sexual agoniatsua hauspozteko hasi nintzaion 'Jaurti baloia! Egin gol! Sartuidazu eskudratik!' eta halako gordinkeriak esaten. Eta, sinetsi egidazu, ondo zihoan dena, gorako bidean. Hainbeste ezen behingoagatik luzapena ere jokatuko genuela iruditu baitzitzaidan. Gailurra jo guran *Visca Barça!* garrasi egin nuenean... Iñigo Miguelen zakila orsai gelditu zen arte, aizu, orgasmoaren atarian bertan. Odolgabe halakoa zur eta lur begira gelditu zitzaidan, sarrera kriminal horietako bat jaso duen aurrelariaren tankeran. 'Ez dut halakorik merezi!' esan eta alde egin zuen, zazpi gol jasotako atezainaren gogaldi astindu berberaz.



«Ez dut merezi! Zer iruditzen? Marka da gero! Ordua arte hainbatetan neronek erabilitako estakuru arranguratsu horrek hunkitu egin ninduen. Erraietaraino barneratua daukagunez andrazkook gabeziadun izakiak garelako inpresioa, erruki existentzial moduko bat aldarrikatzeko erabiltzen ditugu halako estalki mainatiak gauzak nahi ez bezala doazkigunean. Ez du izenik psikoanalisian tara horrek? Nolabait ere, gutxiago garen irakaspén inkontziente horren ondorioz zoriak patu hobea zor digula uste dugu. Ez dut merezi... Eta voilà, zer esango dizut ba, indartsu sentitu nintzen bat-batean. Indartuago baino, gizonduago sentiarazi ninduen, zehatzago esateko, erreklamazio emetu hura entzuteak.

«Haatik, desjabetuari ez zitzaion arrazoirik falta, gizajo miserablea! Bata bestearen segidan etorri baitzaizkio beste hainbat igande eta larunbat hastapeneko hari...

«Jakina, xake jokalariaren abileziaz burututako azpilan makiavelikoa baliatu dudala esango lizuke hark zure aurrean balego. Baina nik ez dut uste inoren espazio partikularra inbaditu dudarik. Areago, zerbait konkistatzekotan, abandonatutako espazio huts bat

konkistatu dut nik, Iñigo Miguelek berak hutsik utzita-ko hori, hain zuzen.

«Asko zor diot futbolari. Besteak beste, nire burua-  
rekiko ahalduntze maskulino moduko bat. Gizonen  
arauetan marduldutako emakumea naiz orain eta  
pozik bizi naiz nire lagunarte konpaktuaren babesean.  
Esaiozu beraz hori amari, ondo ikusi nauzula, gizondu-  
ta, sekta batean banengo baino ardura handiagoaz  
begiratzen dit-eta azkenaldi honetan. Horrexegatik  
ametu dut kontsultara etortzea, ez pentsa, hari me-  
sede egitearren, ez baitut uste psikoterapeuta baten  
aholkuak behar ditudanik, inondik inora».

# 9

## *Salaketa*

- **Nor** haiz hi, sudurluzea?

- Trailer deitzen didate.

Man kamioi handi baten paratxokea bezain zabala du irribarrea.

- Eta nork egin hau hi kofradiako, jakin baliteke?

- Aizue, kontatzeko daukadana entzun nahi ez baduzue, etorritako bide beretik joango naiz.

- Hago, kardantxiloa. Hire egiazko izena, lehenik eta behin. Pelikulak, ondoren.

Zineko aretozaina baino erosoago moldatzen denez arrotza polizia-etxean, samur mintzo saio Errazkin, badaki-eta hauskorra bezain arriskutsua dela handiustekoen banitatea.

- Andres Errasti, zuen esanetara.

Berrogeita koska bat urte. Gizona. Gorbatak estuegi lotzen dio lepoa, aurpegian biltzen zaio odola. Bi putzu gorri eta puztuak, masailak.

- Minutu bakarra daukak, Trailer -motzean nahi du beti Madariagak.

- Kamioi flota itzela, horixe daukat nik. Hortik ezi-zena. Eta oso baliagarri suerta dakizukeen informazioa, hori ere bai.

Soseguz ateratzen dio kea puruari. Kamioiari argiak bezala piztu zaizkio begiak.

- Hara, kankailua, Metro-Goldwyn-Mayerreko lehoia haizelakoan ala? Minutu erdia geratzen zaik. Bota edo ospa!

- Atentatuen egilea salatu nahi dut. Badakit peskizan ari zaretela, nik ere sarri erosten dut ONCEko ku-  
poia. Ulertuko duzueenez, lauso samarrean mintzatu beharra daukat, ez baititut nahaspila honen gorabehera zehatzak ezagutzen.

Madariagak egin du hasperen ernegatu bat. Luza-tu du besoa eta eman dio zaplazteko alfer bat. Darda-ra egin diote masailetako odol putzuek.

- Mikel du izena malapartatuak.

- Artaburua!, Andres Errasti beste Mikel zagok munduan.

- Mikel Larrarte bakarra, sinetsi egidazue. Laguna dut, berak halakotzat ez naukan arren.

Errazkinek ezin ditu salatariak jasan. Norbaiti in-formazioa ateratzea gauza bat da, doako isilmandata-

riari erreguka ibiltzea beste bat. Ehiza atsegin du, ez trofeoa.

- Larru sendo akaberakoa da morroia, kuadrillako txoroena, sekula santan kolpe zorririk jo gabea. Zorro-tza du mihia ahoberoak, eta ni nau bere gezien jomuga...

- Arinago. Ez gaude kontu pertsonalak entzuteko.

- Diru mordo eske ez zitzaidan ba etorri doilor halakoa! Film baterako egindako gidoi lanak Juanjo Baztarrika izeneko marrazo batek ordaindu ez antza, eta sosik gabe zebilen. Ehun euro eskaini nizkion...

- Zekenaren ukabila baino zitalagoa haiz, Trailer-kaiolatutako sagu bati kilika bezala ari zaio Madariaga.

- Banco Sabadell naizelakoan ala? Aiseago eman-go nioke kreditua lapurrari, lotsabako hari baino. Gainera, batek daki, egolatrek asmatzen dute gaur hil arteko zor bat eta txikikeria mirriena balentria bihurtu bihar. Edozer, gainontzekoen pentsamenduan kanpin denda ezartzearren.

- Nahikoa. Koreako pelikula txar bat zirudik honek. Harira!, karrozeria txikitu eta txatartegira bidaliko haut bestela.

- Iruzurak hozminduta utzi zuen. Hamabost mila euroko zorra. Oasiaren ispilatzea begitandu baina putzu zikinarekin topo egindakoak ez luke sumin suntsitzaileagorik sentituko. Uneoro azpilanean dabiltzanen irribarre maltzurra ernatu zitzaion eta ez zaio hurrezkero kendu. Herrestan dabil morroia. Eta gerra deklaratu dio munduari. Uler bedi mundua: lur arrasetik ikusten den guztia. Bera omen da gu guztiok kiskaliko gaituen suaren txinparta.

- Asmatu egin duk dena, mendekuz, potrozorri horrek! Zer gertatzen zitzaian umetan, pototo? Jolas orduetan hamarretakoa lapurtzen ziaten?

- Jokinenean elkartzen gara denok tarteka -azaldu die Trailerrek-. Tabernaria da. Hark konfirmatuko dizkizue nik esandakoak...

- Alde hemendik, eta hoa psikologoarengana hire barruko korapiloak askatzera!

# 10

## *Ametsak*

**Gogaikarria** da Lauraren lanbidea. Berak ere badaiki. Oinazea eramangarriago egiteko trufatzen da pazienteez. Auto-engainu hutsa, noski; baina iruzurtzarrrek iruzurtxoak baliogabetzen dituztenez, efikaza. Okerragoa litzateke norbere gabeziak ezkutatzegatik egiten duela pentsatzea.

Sekula etxetik irten ez baina bidaiatzea obsesio bilakatu zaion esploratzaile zapuztuari Livingstone izen-goitia asmatu dio. Hegazkinari ez omen dio beldurrik, eta tele-transportea existituko balitz ere, ez luke baliatuko inora joateko, ez baldin bada sofatik hozkailura. Alegia: mundu errealak eta izakiek ikaratzen dute, ez bidaiatzeak berak. Auzo zibernetikoan bizi eta mundua telebistaz baino ikusi ez duenez, etxeaz bestaldeko eremua basapiztiaz betetako lurralde arrisku-tsua iruditzen zaio: mehatxu eta krimen haztegi erraldoia. Laura jakinaren gainean dago, hurbileko lagun gehienek ere halaxe antolatzen baitituzte bidaiak: jendailaz ondo babestutako resort blindatuetara. Txori txiki zirtzilaren itxura hartzen dio Livingstoneri: sudur

luze zorrotza, begi txiki tenkatuak, hankatxo luze argalak; eta migratzera ausartzen ez diren hegazti ahulak ontziaren kroskoan bezala du hark posizioa hartuta interneten. Bere alter egoaren txio harropuztekin besterik adieraz dezaketen arren, autoestimutik gutxi du eta zinismo merketik sobera. Hor dute sorburua bere sintoma fobikoek (agorafobia + izu-neurosia): erreprimitutako desioek eragindako inpotentzia sexualean.

Talenterik gabeko idazle saiatuari Job deitura ipini dio, pazientziaz kargatutako santuaren omenez, pertsonaia errukarriaren aldarte temati berberaz aurre egiten baitio naturak mailegatutako ezintasunei. Zoriaren broma makabroa: talentua preziatzeko abilezia eman ziezaiokeen indibiduo bati baina, aldi berean, erdipurdiko existentzia batera kondenatu. Zein klasetako maltzurkeria darabil naturak, talentua daukazu-naren sinesmena itsatsi baina berau gauzatzeko gaitasuna ukatzen badizu? Jobek aitortu dio, ordenagailu aurrean jesarri eta aurreikusitako deskalabrua saihestearren, periodikoak arakutzen ematen duela eguna, bidea argituko dion ideien bila. Aldi bakarrean etorri zaio kontsultara gaztea, ez da berriz itzuli. Aldentze horrek asko kezkatzen du Laura: inpotentzia beste



suhar metatzen baitute bipolarrek barrenean, denik eta konbinaziorik lehergarriena.

Ertzaina Snoopy da. Badu nortasun sendoagoetara otzantzeko joera kontrolaezina. Buztana mugitzea falta zaio gizajoari zerbait agintzen diotenean. Isekari akaberakoa da gizona. Hondoan jotako zirikatzailea, nahaste afektibo-depresiboa daukan susmoa du Laurak. Ediporen konplexuak eragindako traumaren kausaz seguruenik, zeinak norbere homosexualitatearen ukazioa dakarkion. Sekula ez du deskubrituko, dena den: biek baitakite fruiturik emango ez duen terapian jostatzen dabilzala. Ondo giltzaperatua du Snoopyk inkontzientean bere Ni benetakoa. Haren ateraldi burutsuek emango liokete afari bat baino gehiagorako berriketaldi animatua kolega psikoanalistekin. Joder, zeinen aspergarriak diren kolega psikoanalistak! Hobekien Snoopyrekin konpontzen dela esan behar luke, nahiz eta... zergatik erabiltzen ote du hainbeste kolonia? Inoiz ez da ausartu galdetzen. Baina hurrengo asteartean, agian, usaimenari buruzko konturen bat aterako dio Laurak, aitzakia hutsalen bat profitatuz.

Bat-batean eta modu aski fanatikoan futbolzale bilakatutako antifutbolero ohiari Bovary deitzea otu zaio. Emakumezkoa da (hiru emakumezko besterik ez

ditu bezeroen artean), eta existentzia idiliko batekin egiten du amets (nork ez, ordea?). Erdipurdikoko izate batekin konformatu beharko duela ebatsi du Laurak: herentzian jasotako eskakizunek oztopatzen baitute haren eboluzio pertsonala. Bakarrik egoteaz nazkatuta dago. Sexua aldatzeaz aipamen ulergaitz bat egin zion behin batean, oso labur eta lauso, baina ez du gehiago halakorik atera berriro.

Pentsatuaz bakarrik sexuz aldatzeko aukera balego, birritan zalantza egin gabe transformatuko litzateke Laura ere. Ustekabean pasatu zaio burutik kontu hau, baina ez da tximistak argitutako ilunpera berehala itzuli, eta jabetu da batzuetan eraman ezina zaiola emakumezko izatea, nekagarriegia: norbere burua uneoro arren begirada gailenari egokitu behar deseperagarri hori, batez ere. Eta ez da gizonezko psikoanalista handiusteek faloaren inbidia izendatzen duten horren kausaz, ez baitio kaneloi formako zintzilikario horri estimu berezirik, gizartearen begirada faloduna saihestu nahia baizik. Ikusezina izan nahi luke, gardena, hartara ez luke-eta begirada mingarri hori erakarriko. Titi pareta eta alua edukitzeak dakartzan bestelako gutxiespen propioez gain, gizonezkoek andrazko ez duten inpresio kontzeptuala zaio bereziki asperga-

ria: eme orok barren-barrenean zerbait falta duen uste abstraktu hori, zeina, nola ez ba!, arrek bakarrik bete dezaketen. Gizonezkoetan aurrerakoienek ere inkontzienteki onartuta daukate uste lelo hori; mozolo sinpatikoek, zer esanik ez: «Batek daki, akaso gaur bertan azalduko natzaizu zure ametsak goxatzera!». Horixe esan dio hitzez hitz Gregoriok (Marconi deituko dio aurrerantzean), gaur eguerdian kontsulta estrope-zuka utzi duenean. Itsua baita Marconi, nahiz eta naturak ederki konpentsatu dion korneatako gabezia mihian.

Norbaiten desioa piztea ez zaio desatsegina Laurari, bere ametsak goxatu premia dutelako iritziak, ordea, sutan jarri du. Ez luke amorru horrek bere diagnosia baldintza dezan nahi. Beraz, mutila psikiatrarengana bidaltzea ebatzi du azkenean, halako desoreka mentala ezin baitu berak ganoraz artatu.

Jasanezina da tipoa! Ametsak borondatearen araberan manipulatu omen ditzake Marconi honek.

- Begi-bistan daukadan ezereza ikusteaz gogaitua bainago, ametsak eraiki eta bizi egiten ditut, aktoreak antzezpen bat bezala. Betidanik izan dut ahalmen hori -esan dio Laurari, ipuin harrigarri bat kontatzera doanaren ausardiarekin-, txiki-txikia nintzenetik. Amets

gaiztoenetatik supituan esnatzen nintzen umetan ere. Esnatu ez, irten edo norbaitek aterarazi, zehatzago esateko. Bazirudien ametsen kalitatea zaintzeko zentinelak nituela inkontzientean, eta haien irizpidearen arabera segitzen nuela lo edo itzartzen nintzela. Poliki-poliki perfektionatzen joan naiz urte guztiotan nahi dudana amets egiteko gaitasun hau, eta hara, gaur da eguna esfortzurik gabe barneratzen naizela irudikatuko existentziatara loak hartutakoan. Prozedura oso da sinplea: nor eta zer izan nahiko nukeen imajinatu, begiak itxi, eta salto egiten dut bizitza paralelo horretara.

Berbalapiko honi doble kobratuko diola pentsatu du Laurak.

- Ametsezko bizipenek, bestalde, ez diote zer inbidiatzurik errealitatekoei. Alderantziz, errealak baino askoz biziagoak iruditzen zaizkit azken aldi honetan. Hainbeste, ezen gero eta goizago oheratu eta orduak lapurtzen dizkiodan egunerokoari ametsaren mesedetan. Ulertuko duzunez, nire errealitate txepel, monotono eta ilunak ez baitu deus egiterik amestutako existentzia ikusgarriak eskaintzen didan bizipoz aberatsarekin. Duela zenbait aste oso gauza bitxia gerta-

tu zitzaidan, edozelan ere, eta beldur naiz ez ote ditudan nire ahalmenak sobera ustiatu.

Berbalapiko honi lagunduko dionik ez dagoela pentsatzen hasi da Laura.

- Garai batean igerilekura joaten nintzen sarri, zentzumenei deskantsua emateko batik bat: trabarik ez dagoenez, ur berotan baino ez bainuen aurkitzen izarapeko epeltasun biguna. Detektagailu digital batek baimentzen du igerileku barrurako sarbidea: hatz erakuslearen punta jarri beharra dago makinaren zuloan, hark ezagutu eta pasatzen utz zaitzan. Bada, sartu nuen behinola hatza han, gelditu nintzen luzaz makinak noiz pasatzen utziko zain, baina ez zidan utzi. Ordura arte halakorik inoiz suertatu ez zitzaidan arren, ez nintzen arduratu, makina horiek oso sentisibreak direla jakinik, hatza hoztua izango nuela pentsatu bainuen. Atzamar puntan putz egin eta saiatu nintzen berriz, bi, hiru, lau bider. Alferrik. Makina ondo zebilen, gainerako bezeroek arazorik gabe igarotzen baitzuten burdinazko hesia. Nire onetik aterata hurbildu nintzaion harrerako emakumeari eta behingoz sarrrera ireki ziezadala agindu ahots zakarrez. Horrelaxe hitz egiten diet laguntza eske joaten natzaienei: nire minusbalioaren errudun balira bezala, hain dira beste-

la oka egiterainoko errukiorrak ezinduekin. Badaude, noski, zeruetako talaiatik begiratzen zaituztenak, ahalguztidunaren idazkariak balira bezala, baina horiekin are ipurterre eta ezatseginagoa naiz.

Berbalapiko honek ordubetea igaroko du asko hitz egin baina ezer esan gabe, pentsatu du Laurak.

- Umezurtz galdu bat banintz bezala artatu ninduen emakume petral hark, eta sarbidea ukatu modu sobera amultsuan, bazkidea nintzela egiaztatzerik ez zuela argudiatuta. Sutu egin ninduen bere manera samurrak eta oraindik modu ozpinduagoan mintzatu nintzaion, zenbat eta adeitsuago tratatzen nauten orduan eta gehiago pizten bainaiz. Ezta horrela ere! Gizagaixo agoniatsu bati bezala egin zidan kasu. Larritu egin nintzen. Iruditu zitzaidan, nire existentzia agortzen ari zelako umiltzen zitzaidala eta bizidunen beroa ihesi zihoakidalako ez ninduela makinak errekonozitzen. Harrezkero, aise ulertuko duzunez, ez naiz sekula bueltatu igerilekura.

Berbalapiko honek ziur aski ez daki igerian egiten ere, pentsatu du Laurak.

- Logika osoa zuen hiltzen ari nintzelako ideiak: bi existentzia kontsumitzen nenbilenez aldi berean, amestutakoa eta erreala, litekeena zen beraietan den-

bora modu paraleloan iragan ordez batean gastatuta-  
koa besteari batu izana. Hala balitz, nire adina bikoiz-  
tuko lukeen pertsona bati zegokion denbora neukan  
kontsumituta; existentzia normal baten hiru herenak  
bai, gutxienik. Ataka estuaren aurrean jarri ninduen  
deskubrimendu horrek: bizi nituen bi existentzietako  
bat baztertu beharra neukan nahitaez, zegokidan den-  
bora oharkabean iraungiko zitzaidan-eta bestela.  
Ametsen munduari uko egitea erabaki nuen, jakina,  
ezin bainuen erreala suntsitu neure buruaz beste egin  
gabe.

Berbalapiko hau gainetik kendu behar duela pen-  
tsatu du Laurak, nola edo hala ukatu egin behar diola  
berriro bere bulegoan sartzea.

- Jende arruntaren bizipoza xaxatzen duten gau-  
zetara lotzea deliberatu nuen, beraz. Futbolarekiko  
pasioari, garagardoari, maitasunari... errenditu nin-  
tzaien, ohartuta bainengoen ingurukoek ez zutela  
askoz premia gehiago bizitzarekin bakeak egiteko. Or-  
durako, dena den, eta esan dizudan bezala, nire bizi-  
tza errealak xarma guztia galduta zeukan: aspergarria  
iruditzen zitzaidan, geldoa, interesik gabea. Egin  
kontu nik munduko emakumerik ederrenak izan nitza-  
keela ametsetan, lo hartu aurretiko unean haren iru-

dia asmatzea baino ez bainuen behar istant batean haren aldamenara jauzi egiteko. Noski, bazituen prozedurak ustekabeko arazo logistikoak ere. Ondo pentsatu beharra neukan nor izan edo norekin egon amestutako existentzian, hari-mutur guztiak ondo lotu, nolabait esatearren; deskuidatuz gero ingelesa jakin barik para nintekeen-eta Jennifer Connellyren alzoan.

Berbalapiko hau mailu batekin buruan eman die-zaiodan eskatzen ari zait, pentsatu du Laurak.

- Badiotsut, nire existentzia errealaren aldean pagotxa zen amestutakoa. Total, denbora ziztuan agortuko zaidala dakidan arren, amestutako bizialdia lehenestea erabaki dut. Zonbi baten moduan bizi naiz errealean, honenbestez: begirale estralurtarraren aldarde desinteresatu berberaz. Erabaki horrek aurreikusita ez nituen erronka berri batzuei buru eman beharra ekarri dit: egun osoa lotan igaro ezin dezakedanez, gero eta bizipen muturrekoagoak bilatzen ditut, derrigorrez bizi beharreko existentzia erreala ez dakidan jasanezina suertatu. Ez dut esango bihar hil daitekeela pentsatzen duenaren ausardia ero horrekin bizi naizenik orain (ametsen munduan badut oraindik zer esperimentatua), baina bai lehen baino modu askoz



lotsagabeagoan. Lanpetutanabil errealtatearen notario lanak egiten. Atseginez entzuten ditut gertaera latz zein esamesa hutsalenak, eta ondoren memorian prezisioz artxibatu, baliagarri zaizkidan egunerako. Zirrargarria da, boteretsu sentiarazten baitzaitu. Maiz aldatzen dut itxuraz eta afizioz nire esplorazio esparrua ahalik eta zabalena izan dadin. Behatzaile itsu baina zorrotza naiz. Eta tira, ezingo dut esan nire existentzia errealak bat-batean amestutakoari itzal egiten dionik, baina sikiera eramangarria zait.

Akabo! Nahikoa da! Berbalapiko eldarniatu hau psikiatrarengana bidaliko dut aitaren batean, erabaki du Laurak azkenean.

- Batek daki, akaso gaur bertan azalduko natzaizu zure ametsak goxatzera!

Eta Laura amorratuta dago, ernegatuta, gaitzitura, kabreatuta. Gauean oheratu denean, ezustean gogora etorri zaio Gregorio itsua. Marconi madarikatu hori. Eta oraintxe bertan ez daki Job idazleak utzitako ipuina irakurri nahi duen edo berehala lo egin beharko lukeen ametsetan Marconi ager dakion. Pilulak hartu eta hogeita lau orduz etengabe ametsean murgiltzea ere bururatu zaio, hartara une batean edo bestean bien loaren bat egitea ziurtatuko bailuke. Baina beldur

da pilulek eraginako inkontzientzia sakonak ez ote lukeen Marconiren sarbidea eragotziko. Izara azpian uzkurtu eta begiak itxi ditu indarrez: errealtatetik erreskatatu eta Marconik ametsen mundu fantastiko horretara albait arinen eraman dezan desio du Laurak.

Damutu zaio. Isiotu du argia eta Joben narrazioari heldu dio, hain iruditu zaio patetikoa ametsetakoa desioa.

*Liburuaren bideak*  
terapia baterako zirriborroa:

Erabilitako liburuak saltzen dituzten denda batean sartu da Julia. Liburu higitu bat begiz jo du azken zokoan. Oreka misteriotsuren batek eusten dio zutik, apalaren izkinan erortzear. Iruditu zaio arrenka asilo eske dabilkiola eta barreneko letrek salto egingo diotela liburua ireki bezain laster, hain da prekariora haren egoera. Babesa eman, ordaindu eta, etxera doalarik, liburua eserlekutik erori eta ahaztuta laga du autobuseko zoruan. Ez da liburuaz oroitu oheratu den arte. Egilearengan pentsatu du une labur batez, baina ez da errukia sentitzera iritsi, loak hartu

du-eta lehenago. Eguerdian akordura etorri zaizkio berriro liburua eta idazlea, baina apenas iraun dion igogailuak bi pisu jaisten tardatu duena. Juliak segitu du bere bidea eta liburuak berea. Jaso du autobusean institutuko gazte kuadrilla oldartsu batek eta hankapean ibili du kalean zehar. Forma koadratuak ez dio uzten liburuari lurrean behar bezala irristatzen, eta nahiago izan dute plastikozko poto biribilagoa ostikoz jotzea. Hartu du ondoren bazter batetik liburu uspeldua andrazko adindun batek, eroan du etxera eta egongelako mahai desorekatua berdintzeko eduki du bost egunez altzariaren oinpean. Erratza pasatzean traba egin dionez, atsoak erabaki du halako batean, onurak baino eragozpenak ekartzen dizkiola liburuak. Pena eman dio hala ere zakarretara botatzeak, iruditu baitzaio norbaitek lan handiak egin dituela orrialde haiek betetzeko eta merezi duela begirune minimo bat. Urrikalduta, lazo batekin apaindu eta ileapaindegi ondoan den kafetegiko mahaian utzi du, oparia bailitzan. Hartu du handik zahar ezinduak zaintzen dituen errumaniar batek, ez baitu ulertzen nola utz daitezkeen

botata objektuak, ezelako baliorik gabekoak barne, eta erabili du Cosme tenteago jartzeko gurpildun aulkian. Ipurdi azpian paratu dio liburua, hartara agurea zutixeago eser dadin, okertuta jesartzen da-eta bestela. Deserosoa denez nonbait liburua, amorrazioz jaurti du espaloira Cosmek, ipurmasailean min egiten diola argudiatuta. Petralkeriak jasan ezinda, errumaniarrak ebatzi du geratu den txokoan ondo dagoe-la liburua. Alde batera eta bestera begiratu eta gero hartu du betaurrekodun batek lurretik. Jaka barreanean sartu eta oin puntetan aldendu da, trafikatzaille ikaratua baino mesfidatiago. Iruditu zaio, hitzordura liburua besapean duela ailegatzeak ondo emango diola. Internetez eza-gututako emakume batekin elkartzekoa da zine atarian. Inoiz ez dago sobera letren prestigioa aurreneko zitan. Euria hasi du, ordea, eta nahia-go izan du itxura zaintzea, intelektual arrandi-tsuarena egitea baino. Koska batean laga du liburu bustia, esker oneko diosala egin ostean, ondo baino hobeto egin baitizkio txapel lanak. Hartu du azkenik ongile errukior batek eta eraman liburu-denda moderno batera. Urrutiko ge-

rratan eroritakoak aberrira eroaten dituzten eran entregatu du, modu zeremoniatsuan, eroritakoen hilkutxan banderak jartzen diren bezala paratuz mostradorean. Itxurak gordetzearren jaso du dendariak oparia, nola ez ba! Baina gizon eskuzabala irten bezain laster utzi du liburua papera birziklatzeko potoan, zirrimarrak eta ireki gabeko gutunak eta Euskaltelen panfletoak dauden lekuan. Tarteka akordatzen da Julia bidean gelditutako liburuaz. Oroitzapen aseptikoa da, dena den, hondatutako praka zahar batzuek ekar diezaioketena bezalakoa, ez baitio nostalgiari sustraitzen uzten.

# 11

## *Aitorpena*

Errazkinek gorroto ditu galdeketak. Hobeto moldatzen zen lehen. Nolabaiteko sen oldartsu bat ernatzen zion susmagarria larri hartu nahi izatearen erronkak. Abantaila nabarmenez aurkezteko ohitura zuen hitzezko duelu haietara, pistolak eta plakak ematen zioten nagusigo bortitza errukirik gabe erabiltzeko prest. Susmagarriek ez zioten bi asalto zutik irauten, hain hartzen zituen zorrotz, estu eta zakar. Adinarekin bihotza limurtu zaio nonbait, eta delitugile txikiekiko enpatia moduko bat gailentzen zaio orain, garai bateko efizientziaren kaltetan. Bihozbera da hiltzaile baten aurrean ez dagoenean, eta horrek polizia lanerako ezgaitzen ote duen pentsatu du une batez.

Ikerketek atsegin handiak eman izan dizkioten arren, sekula ez da gustura sentitu polizia izate horren azalean. Eramaten zaila zaio 24 orduz polizia izan beharra. Badirudi, lanbide soila ordeztu, bokaziozko egin-kizuna izan behar duela derrigorrez, eta uniformera egokitutakoak ez duela uneoro komunitatea zerbitzatu beste erremediorik. «Klinexa bezala, edozer gauza-

tarako gaude! Portaleko landarea lapurtu dutela?; hots egiozue Errazkini, hark jakingo du-eta zer egin. Estolda ur zikinez gainezka dagoela?; Errazkinen kontu, poliziaren berbak errespetu handiagoa jartzen du-eta udaletxeko brigadaren aurrean». Aspergarria da gero, polizia izateari buruzko azalpenak ematen jardun beharra denbora osoan. «Demontre!, inori ez zaio galdetzen zergatik lan egiten duen fundizioan edo okindegian».

- Mikel aurkitu nahi diagu -esan dio Madariagak tabernariari-. Haren laguna haiz. Esaguk non den.

Negar zotinka hasi da gaztea. Harrituta begiratu diote Errazkinek eta Madariagak, ez horrenbeste galdeketa hasi bezain laster kikildu delako, toki publiko batean hondoratu delako baizik. Bezero gutxi dabil tabernan. Lau jubilatutako *Interviú* aldizkariaren puskengatik mokoka atzeko mahaietan eta urrutiko burutazioetan endredatutako emakumezko bat barraren beste puntan. Sartu direnean izandako inpresioa berretsi diete tabernariaren malkoek: gazteak ez duela oso es-pabilatua denik ematen.

- Galdera batzuk egin nahi zizkioagu Mikeli, besterik ez. Ez hadi horrela jarri.

- Ezinezkoa. Koman dago. Eta ez du atzerakorik  
-esan du, zintz eginez.

- Hara!, kontakatilu itsu hark bista bezain egune-  
ratua dik informazioa -esan dio Madariagak.

- Trailerraren gps-a ez zabilek finago -erantzun  
Errazkinek.

Mutilak dolutzat hartu bide du ondorengo isilunea,  
negarrez hasi baita berriz ere. Errazkin ez dago mutu  
samina adieraztearren, argudiorik gabe gelditu delako  
baizik. Eraikia baitzuen susmagarria setiatzeko estra-  
tegia burutsu bat, zeinak haren ingurunean urdurita-  
suna barreiatzea zuen abiapuntua, modu hartan ekin-  
tzaileek okerren bat egin zezaten hurrengo operazio-  
an. Zerbaitetan seguru dago-eta Errazkin: «Haserreak  
eragindako aktibismoak ez du amaierarik; eta beraz,  
gauzatutakoez gain, operazio gehiago ere izango dira  
laster». Susmagarririk gabe, zer setiaturik ez duela  
gelditu da Errazkin. Gizatasun pitin bat erakustearren  
erabaki du bi kafe eskatu eta egonaldia luzatzea.

- Ea ba, hitz egiguk Mikeli buruz. Pintaden kontu  
hori argitu nahi genikek. Bazakiagu hura zela bazte-  
rrak nahasten ibiltzen zenetako bat.



- Horrela esanda, gaizkile batez mintzo zarela ematen du, agente jauna. Baina Mikel ez zen gaizkile bat...

- Hi, txikito, begetatzen dagoelako ez diagu orain aingeru bihurtuko, ezta? Bota pinua! -Madariagak pazientzia galtzen du beti galdeketetan.

- Artista zen, handia. Idazlea...

- Idazle guztiak dituk handiak.

- Ez zuen inork aintzakotzat hartzen, artista osoei gertatzen zaien bezalaxe. Angustiaz bizi zuen idazle izan nahi eta ezin hori, gaixotzerainoko larritasunez, esango nuke, alkimistaren dedikazioa eskaintzen zion arren, asko kostatzen baitzitzaion esan nahi lukeena adieraztea. Esaldiak behar bezala josteko hitz egokie-nak aukeratzea ehun jokalariren aurka tenisean ibiltzea bezalako zerbait zela esaten zuen Mikelek, desesperatuta.

- Motzean!, kafea hozten ari zaiguk.

- Antza denez lortu zuen taxuzko lan batzuk osatzea, baina editoreei ez zitzaien batere interesatu. Tira, zer esango dizuet ba nik, ez naiz-eta literaturan aditua, baina testu haiek bazuten halako benetakotasun asaldagarri bat. Gordina eta aldi berean delikatua zuen idazkera...

«Hunkigarria mutilaren sentikortasuna» pentsatu du Errazkinek. Eta lagunaren gabeziak halako moduz sublimatu nahian ikusi duenean iruditu zaio, maite-minduta bezala mintzo dela. Horregatik begiratu dio Madariagari intsektu zikin bati legez, bere astakerietako bat esateko ahoa zabaldu duenean:

- Aizak, zapaburu!, Círculo de Lectores-eko komertziala haiz ala? Ez hadi hibernaziora kondenatutakoaren oinazeaz arduratu, hura eta haren penak Calliphoridae eta Sarcophagidae maitagarrien urdailetan izango dira-eta berandu baino lehen. Literaturaz ez zakiagu, baina hilotzez eta eulien bazkaz zerbait bai.

Hasperen egin du Errazkinek. Okerragoa izango zela espero zuen. Madariaga zerripotro, txarrizikinka eta maritxuka hasten denean ez dago haren mihia kaiolatuko duenik.

- Ez ibili gurekin itzulinguruka. Atentatuei buruzko informazioa nahi diagu.

- Esan dizuet, erreboltari samarra akaso bai -gaztea Errazkinen konplizitatearen bila saiatu da-, baina Mikel ez zen gaizkile bat.

- Zerbait badakik, maripurtzil horrek. Eta esango egingo diguk, bai horixe. Edo lagunaren memoria lokatzetan arrastaka ibiliko diagu bestela. Heuk ikusi.

- Idazle totaltzat zuen bere burua Mikelek. Zera esan nahi dut, ez zela konformatzen errealitatea jaso, interpretatu eta hura transkribatzen. Fikzioak, bere iritziz, errealitatea imitatu, puztu edo deformatu zezakeen beharbada, baina sekula ez transformatu...

- Hi, Shakespeare, ez zakiat idatzizkoa ondo ulertzen duan, baina ahozkoa zipitzik ez. Gu ez gaituk solasaldi literario batera etorri, aditu?

Eta eskerrak!, pentsatu du Errazkinek, bere baitara bilduta. Emaztea *Martutene* nobelarekin ikusten zuenetan iruditzen zitzaion, Euskal Herriko etxe bakoitzean paperezko halako adreilu bana egotera lurzorua zulatu eta Australiara eroriko ginatekeela denok. Asko irakurtzen du Teresak. Saizarbitoriaren liburutzar horri lotuta zebilen etxetik bazihoala esan zion egunaren bezperatan. Nahikoa lan bazuen gaixoak ohean etzanda zegoela bi besoekin liburukote hura eusten. «Zertaz da?», galdetu zion interes handiegirik gabe. «Harremanez», erantzun Teresak, lehor; «nitaz ere bai; ematen du autore honek beste inork baino hobeto ezagutzen nauela». Errazkinek ez zuen gehiago galdetu. Oheko bere erdirantz jiratu zen. Teresaren arrapostuak inplizituki adierazten baitzuen ez zuela emaztea ezagutzen. Ideia honi bueltak ematen lo

hartu ote zuen ez da gogoratzen. «Nola jakin ote dezake 50 urteko emakume minbizidun bati buruan dabilkiona?».

- Uztak literatura alde batera edo zaplazteko bartzuk emango ditiat.

Errazkinek uxatu egin ditu oroitzapenak, Madariagaren mehatxuak beretzat direlakoan.

- Mikelek errealitatean eragitea bilatzen zuen beste ezer baino gehiago. Lurrikara edo uholde batek higiarazi dezakeen eran, alegia. Eta horretarako hitza baliatzen zuen, ez indarkeria. Inkonformista patologikoa zela esatera ausartuko nintzateke, eta gizartea lozorroan zegoen ustea zeukanez, berau astindu eta suspertzea zuen helburua. Inor gutxik egiten zion kasu, ordea, eta ez dut ukatuko horrek aztoratzen ez zuenik, baina burutzen zituen ekintza guztiak adimentsuak ziren, baketsuak.

- Esate baterako?

- Pintadak egiten genituen elkarrekin. Eta badakit, berak hala aitortuta, noiz edo noiz bestelako ekintza potoloagoak egiteko ideiak ere izan zituela: eliza barruan esne kondentsatuz betetako kondoiak sakabanutu, hildako animalien errai odoltsuz kirol elkarteen fatxadak zipriztindu, Puppyren azpialde loreztatua go-

rotzez kakaztu... KZE... Kontzientzia Zirikatzeke Ekin-  
tzak. Begira, Mikel gerran zegoen, baina bakezalea  
zen.

- Gerran? Noren kontra?

- Guztiaren kontra. Apatiaren kontra, ustelkeria-  
ren kontra, konformismoaren kontra.

- Eta hi haren kausari lotu hintzaion.

- Bestelako arrazoi batzuek eraman ninduten Mi-  
kelen aldera. Baina bai, gutxienik babestu eta hauspo-  
tu ere egiten nuen haren ahalegina. Justua iruditzen  
zitzaidan orduan eta hala iruditzen zait orain ere.

Gazteari adorea berriz ihesi joango zaion susmoa  
hartu du Errazkinek, bat-batean burua telebistara jira-  
tu eta dardarka hasi baitzaizkio ezpainak. Hara era-  
man du begirada Errazkinek ere. Ez luke mutikoa be-  
rriz negarrez ikusi nahi. Negargarriagoa da, ordea,  
pantailako ikuskizuna: merkatu zabar bateko erakus-  
leihoan baleude bezala, norbere burua saldu nahian  
ari baitira platoan bildutako neska-mutil ozar batzuk  
modu aski patetikoan.

- Bistan da, minbiziak jotako gizartea da gurea  
-esan du tabernariak, epaiak irakurtzen diren tonu so-  
lemnearekin.

Errazkini horixe zaio mingarriena: Teresak minbizi-  
a ere berarekin batera eraman izana. Gaitzak egiten  
baitzuten bien arteko zubi lanak, eta ozta-ozta egin  
hori ere, hitz ozenegiek eta isilune zorrotzek bitan za-  
titua baitzeukaten inoiz konpartitutako espazioa. Bata  
bestearengandik banatuko zituen horma eraikitze-  
ko erabiltzen zituzten elkarri botatako esaldiak eta kolko-  
an gordetako ihardespenak: destainez («zuk ez zenu-  
ke ulertuko», eta halakoak). Mintzeko arrapostu ego-  
kien bila ibiltzeaz ere nagituta, mespretxuzko aieru  
miserableak erabiltzen zituzten munizio gisa, nor bere  
lubakian gotortuta, borrokan zergatik ari diren ahaztu  
duten bi soldaduren antzera. Birikatako minbiziak hi-  
tzartu gabeko tregoa ekarri zuen birrindutako larre  
hietetara. Eta garai hobeen malenkoniak bultzatutako  
ilusio txiki bat ezarri biengan, otsaileko lehenengo  
eguzki printzek udaberria iragartzen duten eran.  
Batak bestea zeharretik begiratzuz izanda ere, besotik  
helduta egin zituzten hastapeneko kimioterapia saio  
haiek. Teresari, baina, ilearekin batera erori zitzaion  
zuhurtzia: barealdi sosegatu hark arrazoia katramila-  
tu, nonbait, eta etxetik bazihoala adierazi baitzion  
ohar baldar baten bitartez, medikuak apenas urtebete  
gelditzen zitzaiola iragarri eta gero.

Gogoan du Errazkinek nola egin zuen bere buruaz beste kuadrillako lagun batek duela hogeiren bat urte. Emaztea eta bi alaba utzi zituen, ez bestelako ohar edo argibiderik. Maiz pentsatzen du Errazkinek haiengan, zeintzuk ote diren abandonatuta gelditu diren ahaideen sentimenduak. Bereak diren gisakoak ziu-rrenik: gorrotoak eta ulertezintasunak eragindako har-riduraren arteko nahaste pozoitsua. Teresak ere ez baitzion Errazkini deus adierazi edo leporatu, bazihoa- la idatzi baino ez papertxo triste batean. Mespretxuz- ko mezu kriptikoa: «Eguzkiaren argitasuna behar dut. Bakardadearen atsegina».

-Ea, Pavarotti, hasi hadi kardantxiloa bezala txio- ka... edo gaizki pasatuko diagu denok.

- Baina nik...

- Hik K Taldearekin nola edo halako erlazioa dau- kak. Eta hemen gauzak bi modutara konpon litezkek: edo dakiana aitortzen duk eta barrabaskerioi nolabai- teko zilegitasun teorikoa ematen diek, edo bihurrike- ria irrigarri baten kolaboratzaile lerdo legez pasatuko haiz historiara. Heuk ikusiko duk, baina ohera lotuta- ko lagunaren borroka ezerezean geratzea nahi ez baduk, lehendabizikoa aukeratu behar huke. Beraz, ganorazko zerbait entzun nahi diat.

Mutilak harrotasunez mintzatzeko erabakia hartu du. Gudari bat da.

- Julia da K Taldearen 2. Asanbladaren zerebroa, Mikelen neska-laguna zena. Hark egiten ditu komuni-  
katuak. Eta bai, biok egin genuen Iraleren aurkako ekintza, Mikelen omenez eta haren borroka ez dadin ahanzturan desegin. Eta aldarrikatu gabeko beste hainbat akzio anonimo ere bai: bidai agentzia, banke-  
txe eta telefonia konpainia denden aurkako sabota-  
jeak, besteak beste. Parean egokitzen zitzaizkigulako eta bazterrak nahastearren, ez beste ezerengatik. Pu-  
blikotasunean babestutako kultur egitura baztertzaile-  
lea dugu berez jomugan, horri egozten dio-eta Juliak Mikelen egoera penagarriaren ardura. Ez haien gu-  
txiespenak arrangura suntsigarria sorrarazi ziolako, bizitzarekiko Mikelen asperdura hiltzailearen kausa zi-  
relako baizik. Egitura endogamiko itxi horren tiraniak gogoa ihartu eta ilusioz hustu zuen gizagaixoa. Gu guztion axolagabekeriak sostengatzen duen estruktura saldu horrek, hain zuzen.

Negarrez hasi da berriz mutila. Liberazioz isurita-  
ko malkoak iruditzen zaizkio Errazkini, herentzian ja-  
sotako zorrak kitatzen direnean askatzen ditugunen



modukoak; irriño lasai emantzipatua ernarazi baitiote gazteari.

- Gerediaga Elkartearen egoitzari Mikelek eman zion su.

Errazkin hunkitu egin du gaztearen erretolikak. Auskalo zenbat denboraz ezkutaturako maitasun jada antzu horren errebindikazioa miresgarria iruditu zaio. Ez luke jakingo esaten bietako nork izan dezakeen zorigaitzari kontu eske hasteko motibo gehiago, umiliaturako bi gizagaixo baitira biak azken finean. Mutilaren ganako sinpatia amultsu bat sentitu du, hondoa jokatuko desesperatuen artean ematen den baldintzarik gabeko kidesun puru hori.

- Non aurkituko diagu Julia delako hori?

- Bilboko Domine hotelean. Harreragilea da.

- Hiru eurekin iristen da kafea ordaintzeko -txanponak bota ditu Madariagak.

Pentsakor gelditu da gaztea une batez, baina ez bi kafeen kontuak egiten.

- Atxilotuta al nago?

- Neskari deklarazioa hartu ondoren -esan dio Errazkinek- erabakiko dugu.

Ados dago Madariaga.

- Esaiozue Mikelengatik egin dudala -eskatu die tabernariak-. Herioren aurreko bere errendizioaren zergatiak argitu eta haren memoria errebindikatzearen...

Euria egingo duela ez dago dudarik. *Salgai* dioten karteak ordezkatu dituzte presoak etxeratzeko afixak balkoietan. Gizonezko batek kartoia botatu du edukiontzi urdin batean. Bizikletan doan haur batek txirrina sakatu du bi bider. Errazkin zorabiatuta sartu da kotxean. Madariagak hartu du bolantea.

- Zer esango diat, ba, pena apur bat ematen zidatek bi kokolo hauek -esan dio Madariagak autopistan, kidea abstrakziotik ateratzeko asmoz-. Munduaren gabeziak eta ustelak ekintza patetiko horien bitartez salatu nahi izateak asko dik poetikotik eta eskuzabal-tasunetik, ezta?

Teresari barrenean kabitzen zitzaion mundua. Gizarteko injustiziek azala urratuko baliote bezala jokatzaren zuen behinik behin. Ez zien aterperik ematen besteengan ametiezinak iruditzen zitzaizkion kontuei. Horixe esan zion hitzez hitz duela hilabete, diagnosis eta gero: «Okerrak ez du hanka motzagoa norbere etxean bizilagunarenean baino». Errazkinek (zuk ez duzu ulertzen) erantzun zion noski, txikikeria hark ez

baitzuen kontriziozko damurik merezi. Saiatu izan baltz ere, gainera, entzungor ziurrenik Teresa, mundua bere konplexutasunik gabe anparatzen duenak ezin du-eta zuriaren eta beltzaren arteko espektro zabala konprenitu. Jainko maitea! Zer demontre zuen eroske-riak txarretik baldin eta horrek beraien bizitzak samurtzeko aukera ematen bazien? Tratamendu esperimental esperantzagarri bezain garestia ahalbidetzeko erabili nahi zituen legez kanpoko amarruak; ados, eta? Teresak ez zuen, ordea, arau-hauste potoloen eta arinagoen arteko bereizketarik egiten, denak zitzaizkion larriak eta iraingarriak. Ez zuen uste, ezta ere, helburu onak edozelako bitartekoak justifikatzen zituenik. «Jasotako onuraren arabera eta beti ere malguda», Teresaren arrazoi zorrotzaren aburuz, «ustelkeriaren kontzepzioa». Ondorioz, zirenak zirela lege hauste horrek ekar lekizkiokeen abantailak, ustelak beti ustel. Kakatzarra! Lokaztutako zingiran palastaka sekula ibili ez denak zer ote daki lohiaz?

- Tratatu ezak samurtasunez Julia hori -eskatu dio Errazkinek Madariagari-. Ez diat zakarkeriarik nahi. Ondo begiratuta, egin duena egitea beste erremedio-rik ez dik izan.

Madariagak harriduraz begiratu dio. Ez du bat-bateko biguntasun hori ondo konprenitzen. Gizon latza baita Errazkin izatez, anker samarra sarritan.

- Zertara dator hori?

- Ez zagok ezer azaldu beharrik. Egintzak agintutakoa eta listo!

Errazkini zaila egiten zaio Juliarekiko sentitzen duen mirespena adieraztea, Teresaren antitesia iruditzen zaionez, ihesi joandako emaztearenaganako sentitzen duen suminaren parekoa baita Juliarenganako sinpatia.

- Gizagaixo torturatu baten itzalean bizitzea egokitu zaiok. Eta hala eta guztiz alproja horren memoria gurtu nahian zabilek. Errespetu bat merezi dik.

- Mendeku hutsez ari duk ordea...

Frakasatu baten itzalpean bizitzera kondenatutakoaren leialtasun eterno hori nahi luke beretzat Errazkinek. Penatu egiten du gizagaixo torturatu hura eza-gutu ez izanak, uste baitu eduki behar zuela Mikel zelako horrek nolabaiteko erakarmena, halako atxikimendu fidelak sortzeko.

- Emaztea eta biok txarrean geundean. Bahekien hainbeste. Minbizia zaukak Teresak. Etxetik alde egin dik. Utzi egin naik. Ostatu eman behar didak. Ezin diat

bakarrik bizi -esan du Errazkinek Malmasingo tuneletik irten direnean.

Pozik hartu du Madariagak ilunpearen amaiera.

# 12

## *Desertzioa*

Zain dagoenaren gogoia maleta huts batean kabitzen da. Trolley beltz batean. Bigarren logelako ohe azpian gordeta dago, hautsik har ez dezan tapaki batekin es-talita. Amets baten hilotza balitz bezala. Edo bete ga-beko nahikari abortatuen hilkutxa.

Zain dagoenak maleta ohe gainera jaso, ireki eta berau kontenplazten igaro du apur bat, umearen loge-la behar zuen honetan. Anjel Errazkinek eta Teresa Kaminok konpartitzen dutena baino hotzagoan. Gela izoztuan.

Gogoia hustu. Maletan sartu. Paketatu prakak, gonak, blusak, kamisetak, kremak, kezkak, gaitzak. Kremlera itxi. Fakturatu. Joan, urrun. Ahaztu.

Maletak egiten trebezia berezia zuen Teresak garai batean. Aibilezia baino zaletasuna, orduak ematen zituen zeregin horretan. Biziki maite zuen sinple-keria horretaz arduratzea. Paperez betetzen zituen oi-netako takoidunak, gau erromantikoak irudikatu bitar-tean. Bidaiak berak baino gehiago kilikatzen zuen gauza bakoitza zegokion tokian jartzeak. Ilusioak lisa-

tzen zituen plantxari lekua egiten zionean. Maleta desegitearekin batera lilura desagertuko dela dakienaren berriazko pozaz lotzen zitzaion maleta txukuntzeari, ezinezko kimerei atxikitzen gatzazkien era setatian.

Bezpera arteko egunak eskaintzen zizkion maleta egiteari. Askotan baita gauak ere. Tupustean begiak ireki, soineko morea edo jertse beltza ahantzi zitzaio-  
la ohartu, eta presaka altxatzen zen, hil edo biziko zerbait oroitu duenaren tankera aztoratuan. Uste baino meritu gutxiagoko ardura edozelan ere, Teresa-  
ren gauek aspaldi utzi zioten zortzi orduko hiberna-  
zioa izateari. Adinean aurrera egitearen zantzua omen  
da, nonbait, gaua lo hartu ezinean ibiltze neketsua.  
Begiak eta ukabilak indarrez itxi. Zeure baitan kiribil-  
du. Garunera akainak bezala lotutako ideiak ostikoka  
atera. Gaitza da, badakizu. Ez etsi. Kontzentratu. Zen-  
tratu. Ideiak labezomorroak dira. Ezkutalekuetatik  
irten eta narrasean datozkizu. Adimeneko zoruan su-  
matzen dituzu euren zango nardagarrien igurtziak.  
Sukaldean ikusi zenuen bat behinola. Konpaktua. Me-  
hatxaria. Burua altxatu zuen zuregana. Ikara arrasto-  
rik ez haren oskolean. Aurkariaren ahultasuna antze-  
maten dute. Ausardiaz oldartzen zaizkie gaixotutako

organismoei. Argia itzali, sukaldeko atea itxi eta ohera itzuli zinen, errendituta, esna zegoenean modu bertsuan begiratzan zizun gizonaren albora. Zomorroarena da, harrezkero, sukaldea gauez.

Ileordeak apenas nabaritzen diren gaur egun. Ez utzi izu-ikarek gogoia goberna diezazuten. Ireki begiak. Piztu mesanotxeko argia. Ipini arreta liburuko letratan: kulunka datozkizu hitzak, esku hordi batek txaluparen brankan idatziak bezala. Zorabioa. Senarra lo. Urrun. Zurrungaka. Ozeanoak banatutako irlak ohe gainean. Mikronesia. Kronokinesia. Telekinesia. Itxi tinko begiak. Bildu gaitza. Atera organismotik eta senarraren tripatara bideratu. Agondu emakumea! Jariezazkiozu bi eskuak bekokian. Hurbildu zure ahoa haren ezpainetara. Putz egin, igorri zelula gaiztoak, transferitu, katarroa kutsatzen ariko bazina bezala. Idorrak arraildutako ezpainok noiztik ez dute musurik hartu? Gaizki zahartu da gizona. Zimurra du azala, gogoia, arima.

Berrogeita bi urte egin zituenean egin zuen behaztopa Teresak zahartzaroarekin. Urtarrileko ostiral goiz batean, igerilekuko aldageletan. Dozena erdi emakume dutxa azpian biluzik. Jubilatua, nola nerabeak urberotan jostari. Zimelak. Uzkurtuak. Gorputz zoko ez-



kutuak xabotzen, Rolls Royce baten karrozeria bailitzan. Zahardadearen gona azpiak begizatzeak ez zion onik egin Teresari.

Gerta liteke: atzematen dizkizute orban batzuk biriketari eta hasperen lasaiz hartzen duzu diagnostikoa. Zu ez zaren beste baten erradiografiak mintzo direla iruditzen zaizu. Medikuek agurtzeko bostekoa eman ostean - hotza eskua, mukerra begirada-, makrobiotiko batengana abiatuko zara ziztuan, zientziak ireki duen zuloa beste zerbaitek estal dezan. Zer du sineskeriatik? Zuhurtzia sendotzeko akaso ez, baina gogo abaildua distraitzeko balio du. Une batez bederen. Erotzeko pauso txiki bat baino falta ez zaizula oharitzen zaren unea hain zuzen: oraintxe. Esperantza: kondentatutakoen botoxa. Balkoira ematen duen ateko pertsiana itxi duzula akordatu zara. Badaezpada, burutazio drastikoak ekiditeko. Lasai egin dezakezu lo. Lo: debaldeko parentesi arriskutsua. Zu ez zinateke pertsiana altxatzen ausartuko. Inkontzientean zu ez zaren beste emakume batek agintzen du ordea. Bosgarren pisua. Luzeegiak dira eraikinak. Nola demontre agoantatzen du lur zoruak gizakiek eraikitzen dutenaren pisua? Eldarnioa. Ideia anabasa. Konplikatuena da unibertsoa.

New Yorkeko etxe orratzek ikaratu egin zuten Teresa. Duela hamar urte joan ziren senarra eta biak. Maitasunak airean eramaten zituen orduan Milanera, Istanbulera, New Yorkera.

- Ezerezean zintzilikatutako planeta baten zutoinek amore eman beharko dute noizbait -atera zitzaion Teresari, burua zerurantz okertuta zuela.

- Zer esan duzu?

- Gero eta gauza astunagoak pilatzen ditugu lurazalean. Zubiak, trenak, kamioiak, laurehun metrotik gorako eraikinak...

Times Square erdian besarkatu eta musu apasionatua eman zion Anjelek, emaztearen ateraldiak entzundakoan egin ohi zuenez, ez baitzuen enigma hura argituko zuen bestelako azalpenik izango. Orduan oraindik asko dibertitzen zuten Teresaren xelebreek. Grabitatea, armonia kosmologikoa eta bestelako hitz ulertezin batzuk. Anjelen munduan sinpleak ziren gauzak: esku-zartada batekin ebazten zituen gai korapilatsuak eta determinazioz konpontzen arrunkeriak. Baina medikuek minbizia iragarri zietenean espantatu egin zen, kasualitatearen karanbola arbitrarioak kikilduta.

- Ez larritu, Teresa -esan zuen, albisteak bihotza urratu ordez urguilua kolpatu zionean-. Biok batera garaituko ditugu tumore zital horiek! -nahiz eta burutik pasatu zitzaiona besterik izan: «Nola demontre utzi diezu tumore horiei hazten? Sentimentalegia zara. Hori da arazoa. Ahula. Bihozbera. Zurea bezalako organismo errukarrietan aise aterpetzen dira gripeak, bakteriak, birusak, zelula gaiztoak».

Jaiki. Jaitsi geletako pertsianak beheraino. Trabak jarri gogo suizidari. Ixo, ez aipatu hitz hori. Vade retro. Egunsentira arteko itxaronaldi atsekabetua. Tormentua. Kalbarioa. Disparatearekin dueluan ibili beharrean basakeria. Gaur. Eta bihar. Etzi. Hil arte bizi. Iraun behar horretan arrazoia puskaka desegiten ari zaizun arren. Komunean babestu. Itxi atea. Zure-zurea den etxeko espazio bakarra. Bunker intimoa. Ispiluan noiz-bait izan zarena errekonozitu. Garrasi egin, aspaldiko niak hondoratzen ari den oraingoari flotagailua jaurtiko dion itxaropenez. Begi zulo ubelak. Hazpegi hanpatuak. Hozkamina. Naturaren epai latza.

Senarrak, antza denez, ez ikusiarena eginez garaitu nahi zuen gaitza. Ez gaixotasunak beldurtzen zuelako, egoskorkeriagatik baizik, naturaren eta gizabakoaren arteko kasketa lehia da-eta harentzat exis-

tentzia. Pieza bateko gizona, burugogorra, despota. Ez dago haren borondate irmoa galaraziko duen ezustekorik. Gaitzak diskrezioz hartu zuen lekua bikotearen erdian. Isilpean gordetako maitale baten akordiak izarapeak hartzen dituen bezala. Aurrerantzean ez zuten minbiziaren aipamenik egin. Ez zen existitzen. Zurrumurru bat zen.

Haurra bezala. Non da? Ez dauka hilobirik, ez baldin bada pentsamenduaren zoko ezkuturen batean. Zer demontre egiten ote dute hilda jaiotakoekin? Zakarretara bota laranja azalekin batera? Non pilatzen dira bazter utzitako asmoak, nahiak, desirak? Non isiltasunak lanbrotutako tumoreak? Pijamaren botoiak ireki. Ispilura hurreratu. Titi eroriak, aldartea bezain adoregabetuak. Zantzuren bat atzeman nahi makur hori. Orban batzuk. Heriotzaren gertutasuna justifikatuko lukeen aitzakiaren bat. Gaitz klandestino bati errenditu beharraren injustizia. Balaz josita hiltzea, hori bai gustu oneko heriotza!

Mirakuluak ez dira Fatiman egiten Texasko Houstonen baizik. Milioi erdi euro aise lor zitzakeela esan zuen Anjelek, %10eko aukerak ziurtatzen zizkiotela. Egin itzazue zuen apustuak jaun-andreok! Haurra ere ez zitzaien Paristik etorri, senarrak egindako bizpahiru

telefono deitatik baizik. Bazterrak astindu, mesedeak kobratu, zikoina intseminatu, jaio berri ustela erosi.

Argi printza goiztiarrenen distira pertsianako zirrikituetan barrena. Dutxatu. Jantzi. Maleta bete: prakak, gonak, blusak, kamisetak, kremak, kezkak. Eta kre-mailera itxi. Presaka idatzi folio batean: «Maitea, gutun hau irakurtzen duzunerako... Beste gizon bat... Maitemindu... Ezin tentazioari eutsi». Desenkusa absurdoak. Esaldiak amorruez ezabatu. Gutuna txikitu. Testua berridatzi paper zati zimurtuan. Zazpi hitz xume: «Banoa. Eguzkiaren argitasuna behar dut. Bakardadearen atsegina».

Gera dadila zorigaitzaren logika enigmatikoan grabititzen. Ez dezala zure desertzioa arrazoitzeko aukerarik izan. Hori baino ez genuen behar, borreroari aizkora zorroztea! Hartu maleta. Esperantzaz bultzatu. Senarra abandonatu, espazioan galdutako txinpantze astronauta bat balitz bezala. Eta joan, urrun. Ahaztu.

## *Etsaiak besteak dira*

- **Baztarrika** jauna? -galdetuko du hoteleko harreragileak.

- Horixe berori -erantzungo dio Juanjok, bista neska-karen bularretara luzatuz. *Julia* irakurriko du jakako txarteltxoan.

Ez da aukera egokitu bezain pronto norbere asmoak agerian uzten dituen gizon mendrea. Badaude, eta gorrotagarriak iruditzen zaizkio. Ezelako diskreziorik gabe erakusten dute daukaten xarma apurra, aldi berean hortz ustel horitu eta besapeko izerdia haizatzuz. Jesus!, ba ote gabezien esposizio patetikoagorik?

- Prest dago zure gela. Egonaldi ona izan dezazula.

Harreragileak giltza emateko besoa luzatuko duenez, Juanjok igurtzi leun bat egingo dio eskuan. Baztarririk ohean ausart eta lotsabako irudikatuko du Julia.

Hau ez da Ibizako *living la vida loca* estiloko hote-la eta ni ez naiz agure aberatsen ehizan ibiltzen diren horietakoa. Establezimendu honetako bezeroen profi-la oso zehatza da: enpresariak, politikariak eta atzerrik-tik Guggenheim ikustera etorritako dirudunak. *Nitro-men*, gremioko emakumezkoen argotean: nitroglizeri-na bezain ezegonkorrak. Kontuz ibili beharra dago ni-tromen hauekin. Ez dira arriskutsuak, baina daukaten boterea erakustea gustatzen zaie uneoro, eta horrek izaera aldakor eta apetatsua ematen die. Modu arin edo ozarrean tratatzen badituzu, irribarre neurritz kan-pokoaz hitz egin edo begirada zuzenez behatu, malo!, gehiegizko konfiantzaz ari zatzaizkien susmoa hartzen dute. Eta herabe edo tonu uzkurrez jokatuz gero, are okerrago, ondo irabazia daukaten errespetuari muzin egin diozun inpresioa hartuko dutelako.

Baztarrika jaunak eskua ferekatu didanean urduri jarri naiz. «Egun ona izan dezazula, harroputz putaku-me!» esango nioke gustura asko, baina ez zuen ema-ten ezelako iradokizuna zenik, ustezko bere magnetis-moaren erakustaldi mozolo bat baizik. Bistan da gizon erakargarri eta seduzitzailatzat duela bere burua, Ri-

chard Gereren anaia bikitzat: jostunak moztutako trajez eta Clive Christianen koloniaz. «Boterearen Olinpora iritsi berria izango da», pentsatu dut, «betidanik aberats eta boteretsu direnen portaerak imitatzen ikasi duena»; ai, ikusiko bazenu zeinen etorri lotsaga-beaz maneiatzen diren urrezko sehaskan hazitakoak! Batzuk zein besteak berdin dira higuingarriak, espresuki euren anbizioaren mesedera antolatutako egitura ustelaren onuradun pribilegiatuak. Ez duzu topatuko haien artean bat bera ere goranzko bidea aldamene-koak izorratu gabe egin duenik.

Presidential gela hartuko du Baztarrikak, hoteleko suite garestiena. Inperiala. Denen aurrean gizon soilaren plantak egiten dituen arren, luxua maite du. Macallan whiskia eskatzen du, nahiz eta jendaurrean edaten ez duen, badaki-eta alkoholak mutuaren aho-tsa ere esnarazten duela, eta hori, bere posizioan, atrebentzia burugabea da. Tinko eusten die hartzen dituen erabakiei. Emaztearen konpainian ere ez du ezer edaten, ezta ospakizunen batean ere. Duela urte batzuk bururatu zitzaion xanpain botila irekitzea eta esan behar ez zituenak bota zituen. Etsaiari munizioa erregalatzea bezainbestekoa da hori. Emazteak espantuzko keinuak egin zituen, tupustean alkoholak



senar ezezagun bat mozorrogabetu balio bezala. Txa-txua! Parisko Plaza Athénée hotelean Krug botila bat irekitzea ez baita penitentziaka hasteko motibo nahikoa. Are gutxiago tximinia aurrean gertatuz gero, emaztea zakila miazkatzen ari zaizun bitartean. Zorionez, Baztarrika abila denez komeni ez zaizkion egoerak gobernatzen, ez zuen asuntoak aparteko eraginik izan. Bi gauza garrantzitsu ikasi zituen: a) ez dagoela emakume bat mendean hartzea bezalako sentsazio-rik; eta b) errenditutakoek ere tarteka behar dutela gozagarri bat. Lepoko eder bat oparitu zion biharamunean emazteari. Akabo kontuak. Harrezkero, desira gehiegizkoak gaina hartzen dionean -gauza atseginez ere aspertzen da bat-, mila euroko neska batzuei deitzen die. Errusiarrak, aukeran.

## ETSAIA 2

Ez zait sexua interesatzen, eta horrek bere onetik ateratzen du nire senarra. Ez dut esango frigidoa naizenik, ez bainaiz, baina bai zertxobait hotza. Bide luzea egin behar du nigan plazerak orgasmora heltzeko. Horregatik, sexuarekiko indiferentzia baino moti-

bazio falta dudala onartzen dut. Juanjo eskasa da benetan txorta kontutan: presatia eta baldarra. Hori da gehien amorratzen duena, izan nahi lukeena izateko gai ez izatea. Giacomo Casanova baten karisma eduki nahi luke gizagaixoak. Zakilaren aurrean belaunikaturik irudikatzen ditu emakumeak, Eros liluragarri bat gurtzen ariko balira bezala. Ez du, ondorioz, nire gogogabeziak sumintzen, berarenganako behar nukeen txundiduraren faltak baizik. Parisko hoteleko aldi hartan, kostatzen ari zitzaion zakila gogortzea. Xanpainaren eragina besterik ez zela ihardetsi nion nik, berak edan baitzuen ia botila osoa. Zurrupatzeko nire trebezia traketsaren kausaz zela erabaki zuen, ostera, Juanjok. Gordinkeriak esaten hasi zitzaidan, ipurdia eta titiak astintzen zizkidan bitartean. Orduz geroztik sexu antzerki saioetara emanak gaude, funtzio antzeztu horiek kitzikatzen zutela deskubritu bainuen Parisen. Neskame otzanaren edo esklabo sumisoaren papera betetzen dut nik, egunaren arabera. Nerabe birjina ezjakinaren rola ere egin dut inoiz. Baita putarena ere; baina ez edozelako puta, dotoreak eta exotikoak kontrata ditzake-eta nahi duenean, lau ogerlekoko urdanga miserablearena baizik. Niri ez zait piperrik inporta. Ez antzerkitan jardutea ez neskak erosten dituela jaki-

tea. Gureak ez dira haur jolas inofentsiboak besterik. Gauza pare bat gehiago argitu behar nuke. Ez dut nire senarra on puska bat denik esango. Tarteka ateraldi zakarrak izaten ditu, eta bai, izaera despota samarra ere badu. Baina, besteak beste, horri esker gaude gu gauden posizioan. Gainera, gizajoaren sexu grinak behar du aparteko pizgarria, ardurek nahigabe itzaltzen dute-eta haren desioa. Tolesik gabe mintzo naiz, ez daukat zertan zuritu nire jokaera. Gustatzen zait nire bizimodu ardurarik gabea eta ez dago gaizki txalet erraldoi batean bizitzea. Beste ezeren gainetik emakume praktikoa bainaiz ni. Eta hau dena Juanjoren nortasun autoritarioari zor diot modu batera edo bestera, haren anbizio nekaezinari esker baikaude maila gorenean. Gaizki esaka dabiltzan bekaizti horiek guztiek baino gaitasun gehiago du berak hatz txikiaren puntan, zer arraiio!

Zerbitzariak zilarrezko erretilu batean ekarriko dio Macallan botila. Whiskiari tragoxka luzea emanaz zorrionduko du Juanjok bere sibarita gustua. Txaleta enpresatik ordu erdira duen arren, azierto itzela irudituko zaio hotelean lo egiteko aukera. Bilera berantiarren aitzakiak horretarako abagunea eskaintzen dionez, gaur hotel batean eta bihar bestean hartzen du osta-

tu. Ez da bereziki moko fina, berak hala uste badu ere. Baina daukan karguari dagokion atentzioa exijitzen duenez, Bilboko suite onena aukeratuko du. Philippe Starkek diseinatutako bainuontzia bete bitartean, escort agentzia garrantzitsuenera deituko du ondoren. Bi emakumezko eskatuko ditu. Dudan egongo da une batez. Ezaugarri espezialik ez, betikoa. Agentzian badute Juanjoren zaletasunen berri: haietako bat titi handia bada, hobe, baina nolana ere Saforen dizipulu diziplinatuak biak ala biak.

Eta hogeituz minutuz itxaron beharko duenez, whiskiari hurrupak egin eta telebistako kateak aldatzen entretentuko da. Barbarinak afaltzen ari denak Sudango haur gosetiak begizatzen dituen era ezeroso bertsuaz ikusiko ditu irudi nardagarriak Loewe pantaila erraldoian: eguneroko protesten arrosarioa. Nola biltzen diren Moskuko Plaza Gorrian komunismoaren nostalgikoak, hala Madrilgo Puerta del Solen edo Arriagan ahitzear dagoen gizarte eredu eutsiezin baten defendatzaile tematiak. Irribarre egingo du Juanjok, eta sakelako telefonoa piztea otuko zaio. Gaztetan bera ere ibilia baita mundua aldatu nahian uluka, osasun eta hezkuntza publikoaren defentsa bakun horretan murgilduta. Arrotzak zaizkio gaur

egun aldarrikapen horiek; justuak bai beharbada, baina zeharo utopikoak, ontasunean oinarritutako nahikari absurdoak. Alferrikakoak, ondorioz. Eta horretara jarrita, ez du uste zentzuzko eskariak direnik ere, mundua mundu denetik baita jendea makurra eta berekoa. Eta hala izanik, nork bere astoari arre egitea beste erremediorik ez dago. Naturak emandako armetan jokatzeko duenak ba al du, ba, ezertaz damutu beharrik? Ez, noski. Merezimenduen arabera hartzen du bakoitzak dagokion lekua munduan. Kito! Kontu eske, laino artean gordetako arkitekto baldar horri! Alkohol pixka batek bizkortuta, erauntsia bezala etorriko zaizkio pentsamenduok Juanjori. Horrexegatik soilik mozortzen da bakarrik dagoenean, hordiak solte utzitako ideia erreprimituak inoren belarrietara heldu ez daitezkeen.

Espero baino bizkorrago iritsiko dira neskak. Ilegorria bat. Titi itzelezkoa bestea. Baina bi horiekin ez da beste munduko ezer gertatuko.

Eskolako laguna dut Juanjo. Elkarrekin egin genituen unibertsitateko ikasketak eta, ondoren ere, bata bestearen pausoei segika barneratu ginen orduko garai aztoratuetan. Ikastolen aldeko mugimenduan egin nuen nik planto, urteen buruan nire bazkide izango zenak hanka eta erdi ezkertiarren putzuan sartzen zuen bitartean. Sasoi haietatik hartua du, nire ustez, aldamenekoaren iritzia aintzat ez hartzeko joera hori. Badakizue, efizientziaren izenean ezarritako «nik agindu eta zuk obeditu» arau ezin mesedegarriagoa, zeinak sudurraren puntan jartzen zaiena egitea ahalbidetzen dien formularen erabiltzaileei. Kontuak kontu, ideologiak banandu gintuen modu interesatu bertsuan -eskuindar burges zapaltzailea nintzen nirelkaru gintuen urte batzuk geroago komenientziak. Juanjok horrelaxe hartzen baititu erabakiak: atera diezaiekeen probetxuaren arabera.

Bion artean ekoiztetxea sortzea proposatu zidanean ondotxo nekien zein arrazoik ekarri zuten nigan. Ez dut esango Lehendakariarekin hika hitz egiteko besteko konfiantza nuenik, baina tira, ondo erlazionatutako eta susmo gabeko familia jeltzale batean hazi-

takoa nintzenez, banituen erabilgarri suerta zitezkeen kontaktuak han eta hemen. Tamalez, baiezkoa eman nion Juanjori.

Ez da nire erabakia zuritzearren, baina inor gutxik ezagutzen duen gauza bat onartu behar dut: badu putasemeak halako barne indar seduzitzaile bat. Armadaburu izanik amildegirantz zuzenduko balu bere ejerzittoa, itsuan segituko liokete soldaduek zuloan behe-  
ra. Badaude horrelako gizonak. Juanjo da bat. Horrelakoen esanetara egon garenok inoiz jakin ez duguna zera da: ingurukoengan barreiatzen duen lilura kutsakor horrek harrapatu ote gaituen haren sarean edo haren aginduei kontra egiteko beldurrak. Bihozgabea baita Juanjo halakoa izan behar duela iruditzen zaionean. Ez dut uste jendeari bere jauregia zaintzen duten bi zakurrei baino estimu handiagoa dionik. Aitor dezadan, dena den, bazidala niri halako begirune bat. Ez ninduen horrek haren ustekabeko ateraldi bortitzetatik libratzen, noski, baina nire autoestimua babesteko balio zuen sikiera. Orobat, zibilizatua zen gure arteko harremana. Ez dut uste pertsonak plazer hutsez gutxien dituenik, egin dezakeela erakutsiz bere posizioa indartzeko baizik. Horretan oso instintiboa da.

Kontuak kontu, gure enpresan izandako lehenengo grebarekin abandonatu zuen Juanjok maltzurretan maltzurrenek ere izaten duten helduleku zintzoa. Zera erabaki zuen: behin bere putakumetza publikoki proklamatu izan ondoren, ez zela konplexuz jotako txepelkeriatan ibiliko aurrerantzean. Gaur egun den azeri gupidagabea bihurtu zen orduan.

Atzo arratsaldean, hotel batean neska batzuen zain zegoela, telebistan ikusten ari zen irudiei buruz jarduteko deitu zidan telefonotik...

Hipokrita hutsak dituk horiek guztiak! Pankarta atzean erreguka zabiltzak, espaloietan bildutakoek txalotzen dituzten bitartean. Eskale mainati koldar miserableak!, hori baino ez dituk. Ekin, saia, bultza, eragin... eta horretarako gaitasunik ez badute, daudela isilik!, eta utzi dakienari berea egiten. Kapazak eta inkapazak baino ez zaudek munduan: agintzea dagokie lehenei eta obeditzea bigarrenei. Beti izan duk horrela eta hala izango duk gero ere. Zer kristo gertatu da? Derrepentean zera publikoa gobernatzen ari garenoi birjintasuna exijitzea bururatu zaie!? Lau bizilaguneko edifizio bat ganoraz kudeatzeko gai ez dira-eta! Utikan! Poltsikoan lau sos zeuzkatenean ondo itxita zitean ahoa. Bai, motel!, orain ezin dutenez trekking



egitera Himalaiara joan edo bigarren etxebizitza ordaindu edo todoterrenoa erosi... hemen zatozak protestan. Ez dituk hi eta ni baino hobeak, madarikatu halakoak! Nor dira horiek gu bezalakoei kontuak eskatzen hasteko?

## ETSAIA 4

Juanjo inputatu dutela? Ez zait batere harritzen. Onik irtengo da, aliatu boteretsuak izan ditu-eta beti. Horrela zen Beinke! produktora zeukanean eta, zeresanik ez, horrela da orain ere. Nola demonio uste duzu aberastu dela ba?

Begira, gutako bost kaleratzearren greba egin genuenean direnak eta ez direnak egin zituen gu guztiok lokatzetan itotzeko. Literala: sasitza hartan ibili ginenok ez dugu sekula santan berriz gremioan lan egiterik lortu. Ni dendaria naiz orain; eta kidea urrunera joana da harrezkero, VancouVERRERA.

Kontuz, ez pentsa Beinke!-n zientto bat langile ginenik eta greba hura borroka iraultzaile horietako bat izan zenik, keba! Zazpi langile baino ez geunden produktoran eta Juanjok gustuko ez zituelako kaleratu

nahi zituen haietako bost. Horrela: pli-pla. Batek daki zergatia, akaso ez ziotelako behar besteko errespetua erakutsi astelehen goizean edo irribarre neurritz kanpoko batekin erantzun ziotelako ateraldi txororen bati. Juanjorekin inoiz ezin jakin! Bera bezalakoan alboan dagoenak aldarte kapritxozkoetara moldatu beharra dauka bai edo bai, halakoxea baita jendilaje horren animoa: berekoa eta aldakorra. Eman dezagun umore oneko harrapatu duzula eta txiste bat kontatzen dizula; bi aukera dituzu: edo algaraka hasi edo konbikziorik gabeko irriño lotsati bat erakutsi. Ba hara, bi erreakzioak izan litezke desegokiak harentzat.

Kaleratuko zituen langileon defentsan egin genuen greba. Apenas iraun zuen astebete, Juanjori ostikoz botatakoen borondatea bereganatzea kostatu zitzaion denbora, doi-doi. Popa bistan utzi gintuen gu biok, beste bostak osterata itzuli baitziren beharrera gu ostrazismora kondenatzen gintuzten bitartean. Traizioetan handiena horixe da-eta Juanjoren aburuz: bere nahiari kontra egiteko atrebentzia edukitzea. Bost lagunek haren esanei otzanki men eginez aurkitu zuten lanerako itzulera bidea. Gu biok, aldiz, gaztaroko ozartasun ameslariak kondenatu gintuen, bazterretan pegatutako paskin ziztrin batengatik:

Lurpean bego Juanjo Baztarrika  
Ustel dadila korrupzioaren errailetan  
Sendiak ez du bisitarik nahi

Ez gintuen ba auzitara eramán zakur beltz halakoak!, ohoreari kalte egiteaz salatuta.

Eta bai, pozten nau inputatu dutela jakiteak. Nahiz eta ez dudán konfiantzarik ez justizian ez agintariengan. Erdi Aroko nobleen gortean jauntxoek bezala egiten dituzte negozioak alproja hauek. Trokel berekoak dira denak.

## ETSAIAK BESTEAK DIRA

Juanjo Baztarrika bere onetik ateratzen duena ez da auzipetzea bera. Ondo baitaki buztan laburra duela akusazioak. Egiazki izorratzen duena da, nork salatu duen oraindik ez jakiteak. Horrexek jartzen du sutan. Nepotismoz jokatzeko ez baitzaio larria iruditzen, areago, portaera erabat naturala dela ere esango luke; nork ez du, ba, norbere komenientzien arabera jokatzen? Norbait bera salatzerá ausartu izana, ordea, hori

bai dela benetako lotsagabekeria. Herri honengatik egin dituenak egin eta gero, mekauenlaputa!

- Zoazte bainugelara igeri egitera!

Pentsamendua eragoztera etorritako bi euli balira bezala bidali ditu bainugelara neskak, esku kolpeka. Zain du bazkide ohia telefonoan.

- Orain ezin dutenez trekking egitera Himalaiara joan... hemen zatozak protestan. Ez dituk hi eta ni baino hobeak, madarikatu halakoak! Nor dira horiek gu bezalakoei kontuak eskatzen hasteko?

- Ez hadi horrela jarri. Bihotzekoak emango dik.

- Eguerdian abokatuak deitu zidak. Akusazioak ditzutela nire kontra. Inputatu egin naitek.

- Neu izan nauk.

- Zer esaten ari haiz?

- Gauean deitu nahi nian.

- Zomorro zikina!

- Lasai negoziatzeko aukera diagu oraindik.

- Zoratu egin al haiz? Hire salaketa hori ez duk inora iritsiko.

- Baliteke, bai. Baina ez zaidak inporta.

- Hireak egin dik!

- Edo negoziatuko diagu... edo hau guztia eta gero ez haute inon hartuko. Apestatu bat haiz...

- Ez diat ezer negoziatuko hirekin.

- ...Apestatu aberats bat. Eta tamalez, niri esker.

Baina apestatua azken batean. Eta hori, hiretzat, bazakiat, kartzelara joatea baino okerragoa duk. Baliorik gabeko txanpona baino ez haiz dagoeneko, Juanjo.

- Zer kristo nahi duk, azpisuge halakoa?

- Kontuak bere lekuan ipintzea.

- Txikitu egingo haut!

- Dagoeneko ez zagok zer txikiturik. Hi etxe nagusiko zuzendari izendatu hindutenean birrindu ninduan ni. Zin egin genian, gogoratzen?: «Egitekotan, elkarrekin egingo diagu bidea, dela gailurrera eramaten gaituela dela porrotera». Hik proposatutako promesa izan zuan, oker ez banago.

- Ez daukak zertan kexatu. Ondo puztutako kontratuak bideratu ditiat zuengana.

- Gainontzeko ekoizleek bazter utzitako lan apurrei lau zentimo atera ezinik ibiltzeari deitzen diok hik kontratu potoloak.

- Esker txarreko zakurra!

- Nire kontaktuei esker hago hagoen lekuan. Begiramen gehixeago mereziko nitek.

- Ni xantaiatu nahian habil! Zer nahi duk, konfiantzazko postu bat? Emango diat.

- Hiri dagokiana egiteabaino ez diat nahi. Gidoia itxi eta berandu baino lehen filmatzen hasi behar diagu. Hire buruaz beste egitea, esaterako, ez litzai-gukek batere gaizki etorriko pelikula borobiltzeko. Egin ezak artearen mesedetan...

- Zer film eta zer ostia?

- Hire bizitzaren biopic bat errodatzera goazak. Filma salduta zaukaagu eta finantziazioa ere lotuta.

- Zer negoziazio klase da hau? Nire oniritzia beharko duk diru-laguntza jasotzeko...

- Nork esan du diru-laguntza behar dugula? Crowdfunding bidez batu ditiagu sos guztiak. Ez nekian horrenbeste etsai hituenik!

Juanjok paretaren kontra txikitu du Vertu Signatu-re telefonoa. Biluztu egin da eta elkarri musuka ari diren bi nesken aldamenean etzan da bainuontzian. Asko gustatu zaizkio baten titiak eta bestearen bilo gorriak.

- Has dadila festa!

# 14

## *Kontu garbitzeak*

**Baztarrika** atxilo eraman dutenean zera pentsatu du Juliak: kriminal lotsabako hau birkolokatuko dute edozein erakundetan eta auzia zurituko di-da batean, baina bere gorroto eta mendeku nahia ez da sekula santan iraungiko! Ene, jai dute sugedorri horren etsaiek!

Atxilo eramatearena eufemismo hiperbolikoa da, esan gabe doa. Baztarrika jauna inguratzen duten judizialek gehiago dirudite miresleak edo ondo ordaindutako bizkartzainak, hain doaz erlaxatuta elkar harturik denak. Baztarrikak irribarreak partitzen ditu alde batera eta bestera, itzelezko balentria egin dutenen maneran.

Juliari bota dion behakoa halakoxea izan da: obszenoa, ausarta, heroikoa; irabazleek zapata-garbitzaileri luzatzen dioten berdina. Zenbait gizonen odola ezta bezain lodia da. Sarrerako ate birakaria gurutzatu baino lehen begi-keinu eskandaluzko bat bidali dio Caponek.

Hotel atarian, handikien inguruan sortzen den begirunezko perimetroaren atzean, dozenaka kamerari eta kazetari zelata aztoratuan, jomugaren zain paratutako frankotiratzailleak bezala.

- Justin Bieber? -galdegin du Madariagak.

- Pakito Txokolateroa bere azken singlea aurkeztera etorria, hara bestea! -arrapostua Errazkinek-. Politikariren baten adierazpenen zain egongo dituk, besterik ez. Gu geurera.

Nola hondartza nudistan ahopeka esaten dioten diosala tupustean elkartutako bizilagunek elkarri, hala agurtu dituzte judizialak ate birakarian Errazkinek eta Madariagak. Are durduzatuago, beharbada: judizialekoak zazpigarreneko okupa jantxakurrak bezalako-  
xeak dira-eta.

Ur uherretatik ateratakoen gogaldi endredatu berberaz iritsi dira harrera-lekura.

- Eta? Zirku hau guztia?

- Zuena da festa, aizue! -erantzun die Juliak -. Gonbidatuei harrera egin eta pontxea zerbitzatzeko baino ez nago ni hemen.

Hain agerikoa al da ba poliziak gabela?, pentsatu du Errazkinek. Madariaga behatu du goitik behera. Sorbaldan zintzilikatutako blazer urdina, leporaino lo-



tutako alkandora zuri lisatu gabea, franelazko praka beltz zimurtuak eta nautikoak. Edo polizia edo Jehovako testiguen komertziala. Bakarrik bizi eta nor seduziturik ez duten dohakabeen piura erdipurdikoa, finean. Kolonia merkez lurrindutako jaka marraduna eroateari deritzo dotoreziaz janztea babalore halakoak. Are aurkeztezinago azaltzen zaio informal itxurak eman nahi dituenen: Julio Iglesiasen irudiarekin estanpatutako elastikoaz esaterako, zeinaren gainean «Nire bila zenbiltzan eta badakizu» edo antzeko beste tentelkeria bat irakur daitekeen. Hilabete barru ez ote duen berak ere itxura miserable bera agertuko galdegin dio bere buruari.

- Et, et, et, txikita... Ea, hauexek dira hemen arauak: nik arre eta zuk mu! Lagunak so eta zuk ixo! Capisce?

Madariagaren petralkeriak berehalakoan otzandu du Julia. Mintzo zaionak badu astakilo aire izugarri bat. Belarrondoka hasteko aitzakiarik behar ez duteneta-koa ematen du. Besteak, ostera, bere kolkorako pentsamenduetara emana dagoenak, umezurtzen traza desanparatua du. Zergatik demontre suertatzen ote zaizkion erakargarri gizaseme korapilatsuak, hortxe

gakoa. Nagusiegia da, orografia txirikordatu eta koskatsuduna, baina gustatzen zaio.

- Badugu zure peripezien berri! Hara, daroazun kuleroen kolorea izan ezik, zure sozio maritxu ahobero horrek dena kontatu digu. Aholku bat: ez zaitez halako gizon bigunekin sekula santan erkidetu, emakumea. Ondorioz, nork bere hariari eutsi diezaiola! Nahaste-borraste zentzugabe honi aitaren batean emango diogu amaiera. Zu eta maritxua epailearengana! Nagusia eta biok, ohore-dominak jasotzera! Bizkarre-ra eskuak, ez bazaizu inporta...

- Hago -esan du Errazkinek tupustean bere onera etorrita-. Hoa hoteleko tabernara trago bat hartzera. Bakarka hitz egin nahi diat neskarekin.

Makilakatutako zakurra bezain umil eta amorratu urrundu da Madariaga. Ez du txintik ihardetsi, ordea, begitarte ozpindua oinetara josi eta alda-maldaka joan da, ez luke-eta bien arteko bizikidetzatun adostu berria zapuzterik nahi.

- Begira, ez naiz gizon delikatua -esan dio Errazkinek Juliari- eta ez natzaizu aitzakiatan ibiliko. Emakume zuhurra dirudizu, pieza batekoa. Porrot egindako mutil-lagun agoniatsu horri zerk lotzen zaituen jakin nahi nuke.

Egolatren doinu ez bairik gabekoa ahotsean. Narztisisten distira estu hori begiradan. Kilima leun bat sentitu du sabelpean Juliak. Hasperen egin du.

- Hiperestesikoa omen naiz. Alegia: gehiegizko sentsibilitatea dut. Neurritz kanpoko intentsitateaz bizi ditut emozioak.

- Firin-faran gutxiago, Julia, hau kontu serioa da eta.

- Gain-estimulazio horren kausaz nahasitako pertsonen itsumustuan maitemintzeko joera naturala daukat. Hunkitu egiten nau oinazeak, errukiak gobernatzen baitu nire bihotza. Ondorioz, maitekorregia naizenez, dohakabeenganako enpatia sentitzen dut. Sarri tokatzen zait sufritzea, nortasun bortitzagoek aise manipulatu baitute nire borondate samurra. Er-lazio toxikoen yonkia naiz, bai jauna. Harreman kaltegarrien espezialitatean cum laudea dut.

- Berriketa gutxiago, Uzkuduni sparring gisa erabil zaitzan utziko diot eta bestela. Kontu motzak izaten ditu hark! Zer esan nahi didazu, tara batengatik egongo zarela Mikelen aldamenean azkeneraino?

- Ezta pentsatu ere! Naizen modukoa naizela, besterik gabe. Eta naizen honek, bihozbera akaberakoak, zorigaitzokoenganako atrakzioa sentitzen duela.

- Bada, tentuz ibiliko behar dut, horretan ez baitut parekorik.

- Batek daki, norainoko zoritxarra bizi duzun ikusi behar...

Diagnosi txepel hori azaltzea gauza bat da eta dio-ena ontzat ematea beste bat. Esan ahala sinesgarri suertatzen zaizkio hitzak, dena den, komenigarriagoa baitzaio hipersentsiblea dela onartzea kontrakoa ametitzea baino. Gatzik gabeko emakumea, borondate makalekoa, zeina panpina bezala maneiatu dezakeen edozein lerdok. Autoengainuaren patina absolbitzaile hori: nahiago du sufritzea min egitea baino. Astoaren putza! Bakardadeari beldur basati eta atabikoa, horixe baino ez du.

Julia eta Errazkin barrez ito beharrean topatu ditu Madariagak hoteleko tabernatik itzuli denean. Okerrena zera iruditu zaio: ez ziruditela txiste baten ondorengo algara zalapartatsu horietara emanak, amoran- te herabeen arteko irriño memeloetara baizik.

- Elkar ondo hartuta ikusten zaituztet! Juliet ande- rea, zureak egin du. Altxa eskuak berehala, Romeo jaunak horretarako baimena ematen badu, noski.

- Uztak, Madariaga. Eta gorde itzak berehala esku- burdinok.

- Bai zera! Txantxetan ala?

- Ez diagu neska atxilotuko. Nahikoa sufritu dik dagoeneko. Koman dagoen gizagaixoari egotziko zizkioagu delituak. Den-denak. Total, onik ateratzen bada, gustuz hartuko dik penitentzia koitaduak. Eta betirako itzaltzen bada, ez zaiok batere inportako...

- Ez nagok gozo gero, Anjel. Esadak zer negozio klase gertatu den hemen oraintxe bertan.

- Segi ezak kotxerantz. Emango ditiat gero nahi dituan beste azalpen.

Pentsamendu oldartuari atsedean eman nahiak eraman du Madariaga zeruetara. Laino artean pausatuta du begirada. Hodei potoloak, beteak. Aparrezko olatu lohi diruditenak formazioan doaz ekialderantz, bata bestearen atzetik, bere burutazio suminduak bezain larri. Hamar minutu barru euria egingo duela erabaki du. Apustu egingo luke ez duela asko botako, zirimiri leun konstantea aurreikusten du. Aiene, maitasunaz eguraldiaz beste baleki! Ekaitza hausten den eran maitemintzen omen dira batzuk: derrepente, us-tekabeen. Eta zirimola horrek hartzen dituenen ez dira arrazoitzeko kapaz. Zorionez ez ei die luzaroan irauten sukar absurdo horrek. Hala beharko du, bera galduta legoke-eta bestela. Bat-bateko erauntsi apa-

sionatuek ez dute maitasun izena merezi. Benetako maitemina sekula atertzen ez duen zirimiria bezalako-  
xea da: saiatua, tinkoa. Tripak bustitzen dizkizu beti-  
rako. Egiazko maitasuna, hil eta herio barren-barre-  
nean zizelkatzen zaizun hori, berak orain sentitzen  
duena da.

- Hago une batez -bota dio Madariagak, Errazkin  
kotxera itzuli denean-. Sakelako telefonoa ahaztu  
diat. Segituan natorrek.

Euria hasi du. Motorra piztu du Errazkinek. Ibilera  
kementsua daroa Madariagak, berriro hotelera.

- Lasai, ez asaldatu, onean nator-eta -esan dio Ju-  
liari-. Faboretxo bat eskatu nahi nizuke, hori baino  
ez...

- Ez dut ezezagunen zakilik zurrupatzen.

- A zer burutapena! Aizan, sorgin madarikatua, ez  
zakinat zein aztikeria erabili dunan nire kidearekin,  
baina ez dun heurea egingo! Ez zagon bere onenean.  
Behar duen azkena neska buruarin baten besoetan  
erortzea da.

- Harrigarria. Uzkudun zinelakoan... barne muine-  
taraino maitemindutako Cupido zara!

- Joan hadi pikutara! Pizta-pizta eginda hago! Be-  
gira, oraintxe bertan garbituko ditinagu zorrak. Ez

haut berriz sekula santan ikusi nahi, konforme? Ez hadi hurbildu nire lagunarengana, ados? Desager hadi gure bistatik orain eta betiko, gorriak ikusiko ditun bestela!

- Ez itzazu gauzak onetik atera, gizona. Mikelen memoria ondratu nahi dut, besterik ez.

- Horretarako seduzitu nahi dun Errazkin, urdanga miserablea? Hire erantzukizuna itzuri nahi dun? Ez dun halakorik lortuko, lehenago hil!

- Ez dut nire burua zuritu nahi, kaiku halakoa!, Mikelen balentria errebindikatu baizik. Ez dut zure laguna nahita neureganatu, txiripak batu gaitu. Utzikin abandonatuak gara biok. Zorigaitza iman sendoa da. Premian dago, atso horzgabe batek ere aise lortuko luke haren maitasuna. Ordeka gozoa da zuretzat Errazkinen bihotzerainoko bidea, txistua joz egitekoa.

- Ez naun hirekin lehian hasiko. Jai daukan!

- Gorde ezazu etorri suhar hori, adorea bildu eta maitasun ezkutua agertzeko. Zeuretzat txakur handia! Ez daukat zuen artekoan sudurra sartzeko asmorik, baldin eta...

- Bota behingoz, nazkantea!

- ...baldin eta tabernaria eta ni bakean uzten ez bagaituzue eta gertakari guztien ardura Mikeli leporatzen ez badiozue.

- Ulergarria dun larrua salbatu nahi izatea. Farde-la hilzorian dagoenari egozte, ordea, zitalkeria kriminala.

- Krimenetik gutxi dauka asmo horrek. Gehiago da Mikelen azken nahia betetzea. Nola oliadura ematen dien apaizek hilzorian daudenei, hala behar du Mikelek egindakoaren aitortza, behingoz bakean hiltzeko. Ez du-eta, gainerakoan, sekula santan bizidunen munda utziko. Ezta nire pentsamendua ere.

- Abandonatu egin zintuen orduan!?

- Egolatrek beldur bakar baina izugarria daukate hezur muinean iltzez josia: ez dadila beraien existentzia oharkabeen pasatu. Eta edozer zaie baliagarria helburu hori lortzeko. Norbere kabuz ospea lortzeko kapaz ez direnean aldamenekoak hartzen dituzte mendean, jabeak ondasunei zigilua ezartzen dien eran, besteengan eragin iraunkor eta betierekoa ziurtatzeko. Frakasatu halakoari ni bereganatzea gutxi iruditu nonbait, eta bazterrak nahastea bururatu zitzaion. Polemika sorraraztearren egin zuen, ez justizia bilatzearren. Naturaltasun osoz batu gintzaizkion Mi-



kelek erdizka utzitako kanpainari Jokin eta biok, ordu-rako basallu hutsak baikin. Bere singularertasuna az-pimarratzeko ezeztatu zuen gurea. Bere originaltasun berezia nabarmentzeko lotu zitzaion erakundeen aurkako gurutzada eldarniatu hari. Eta bere banakotasun paregabea frogatzeko egin zuen salto bigarren pisuko geure balkoitik. Susmoa dut ez zuela benetan bere buruaz beste egitea bilatzen, norbere izena puztu eta arrandiatzea baizik. Ezta hilko ere harik eta bizitza uzteko meritu nahikoa egin duela pentsatzen duen arte. Bada, jaso dezala haren omenez erein dugun uzta, azken ostikoa eman nahi diot-eta. Utzi diezaiola behingoz oinazeak partitzeari. Maitasunari egingo diodan azken ofrenda da nirea. Zure lehena, putzu izurritsu horietan hondoa jotzen ez baduzu behinik behin. Ez dagozkion dominak zintzilikatu nahi ditut Mikelen paparrean, Che Guevara baino harroago utz gaitzan betiko.

Txundituta geratu da Madariaga. Eta hala itzuli da kotxera, ez baitaki ataka honetatik onik atera ote den.

- Dena ondo?
- Gutxi gorabehera.

# 15

## *Eskela*

LO egiteko dozena erdi pilula hartu behar zenituzke ni nagoen lekura ailegatzeko. Pixa lehor, izerdi, botika eta lixiba usainaren oldarrari hala-hola eutsi, begiak indarrez zarratu, eta beldar nazkagarri baten heste larderiatsua dirudien oihan iluna zeharkatu gero, non ez den deus ikusten eta entzuten, pentsamendu propioaren hatsanka metalikoa izan ezik. Eta ondoren zirimola indartsu batek xurga zaitzan utzi, zeinak airean sigi-sagaka eroango zaituen ziega moduko gela izoztu batera.

- Trago bat?

- Non?... Zer?... Nor demontre?

- Lasai, gaztea. Ez izan beldurrik eta zabaldu begiak. Egindakoari eustea beste erremediorik ez daukak. Whiskia? Koñaka?

Amildegi ertzean dagoenaren moduan ireki ditut begiak. Argi izpi indartsu batekin topo egin dut, izutu-ta. Hau ote da hil ondorengo bizitzaren enbaxadoreek agintzen zuten hodi distiratsu hura? Hawaiiira bidaia balitz bezala saltzen zuten hilobiaz haraindiko igaro-

tzea, lorez apaindutako indigenak barne, zeinak kantari omen zeneuzkan zain azken geltokian. Hala amaituko bada kontua, eta ez eskale, zakur eskeletiko eta soslai makurrek habitatutako eremu hondatuan, zin dagit xanpain botilari kortxoak kenduko diodala. Itsutu egiten nau argiaren zurtasunak, baina ondo sentitzen naiz: zertxobait logaletuta.

- Ez dut orduz kanpo edaten...

- Hi haiz hi ergela! Bi munduren arteko pasabidean hago eta ez zaukaagu denbora askorik. Beraz, bota!

Silueta lauso bat antzeman dut. Martetarrak etorri zaizkit gogora, haien esperimentu basatiak. Imajinatu dut beso robotizatu batek zartatzen didala uzkia eta arraildu sudur zuloak. Espantatuta egin dut garrasi. Gizaki itxurako erraldoi bat da ordea, ez zirujau martetarra.

- Hilda al nago?

- Ez zaik asko falta.

- Orduan... Jainkoa al zara?

Irri egin du, ezezko erantzuna aditzera eman nahian. Garaia da, kanpandorrea bezain. Ez naiz fio. Jainkoa ez bada, Deabrua da.

- A ze ergelputza! Hara, mutikoa, Jainkoa banintz Varaderon nengoke daikiri bat eskuan eta ipurdia beltzaran, eta ez agoniatsu baten aldamenean. Deabrua banintz, ostera, Juliaren izter artean baino gusturago non? Txorta ederra zaukak hire neska-lagun horrek, bai horixe!

- Ni eroatera al zatoz, Herio?

- Bibo hintzelakoan eta baboa haiz! Zer herio eta zer herio ondoko, hire narrazio sinesgaitz horietako batean gaudela uste al duk, astapittoa?

- Pozik bustiko nuke orain eztarria. Eskertuko nizuke zurrutada hori.

Garondotik heldu, burua altxarazi eta tutu batetik eman dit edatekoa. Oraintxe ohartu naiz: ezin ditut ez beso ez hankak mugitu. Ohera itsatsita daude. Antza, trantsituan dagoen presentzia soil bat baino ez naiz. Elbarri agoniatsu bat. Amorruez edan dut whisky txar eta garratza.

- Hobetu behar zenukete -esan diot- hemen goiko katerina.

Bestelako iritzi bat nuen purgatorioaz. Ez dut esango business klasean egindako hegaldia espero nuenik, baina ezta ere Ryan Air-eko bidaia duintasunik gabeko hau.

- Ez dakik nor naizen...

Burutik jotako bat akaso? Ez dut ezer esan, ez baitakit zer komeniko litzaidakeen gehiago: psikiatrikoan egotea edo infernuko beilatokian.

- Hire azpikontzientzia nauk. Zer uste huen, kaiku horrek, kaskarreko geruza sakonenean ehortzita nengoelako existitzen ez naizela?

Hileak hartzitu zaizkit. Ze gaztelu klase gobernatzen du azpikontzientzia dementzial honek? Ez nuke nahi gauerdian korridore bakartiotan berarekin gurutzatzerik.

- Hortaz, bizi naiz oraindik?

- Ez hago ez bizirik ez hilik, andaka eta mundakaren artean baizik, nolabait esatearren. Koman!: ihartutako landarea loreontzian. Hara, nola esango diat ba: jokoan mantentzen haute oraindik, amaierarik gabeko tantoan atrapatutako pilota bezala.

Oker dabil. Kanpandorrea gezurretan ari zait. Hil nintzen. Eta egin zidaten hileta dotore eta hunkigarri bat. Eta ehortzi ninduten. Airea falta zait. Egin ditut zutik jartzeko ahaleginak, leihoren bat topatu eta bertatik ihes egitearren, baina ezin dut. Ohera iltzatuta bezala nago.

- Jokoan?.. Nortzuk?... Zergatik?

- Polikixeara, mutikoa, astiro baina jardun. Uste nuena baino tentelagoa haiz. Heure buruaz beste egingen saiatu hintzen. Hire organismoa txikituta gelditu huen. Hire adimena, egundoko katua harrapatu bahu bezain motel. Zoritxarrekoa izan behar dik batek, balcoitik behera plomuan erori eta ez hiltzeko.

Disekatuta, horrelaxe nago. Mutu onartzeko egia gordinegia. Kurubilkatu naiz, garrasi eta negar eging dut. Baina inork ez nau sokorritzen.

- Alu kabroia! Gezurra diozu. Amets gaiztoa baino ez da hau guztia. Asma ezazu zerbait sinesgarriagoa!

- Hara ze elokuentziaz mintzo zaigun idazle frustratua! Tori estiloa!

Gerturatu dit hoditxoa eta edan dut beste whisky hurrupa bat. Napalma balitz bezala kiskali dit urdaila, baina espektroarekin hizketan segitu nahi dut nola edo hala. Denbora irabazi eta nire presentzia miserable hau luzatzea dut helburu. Hobe soslai ero honekin mintzatzea, beste inorekin sekulan hitzik ez gurutzatzea baino. Erantzunak behar ditut, fantasia inkongruente honek edo absolbitu edo zigor nazan.

- Nahikoa da. Ez du grazia zipitzik. Nor zara, putzontzi hori? Bizitza izorratu nahi al didazu?

- Kaka-umea, heuk sakrifikatu duk hire bizitza. Hik jaurti duk heure burua bigarren pisuko balkoitik. Hire agoniaren lekuko soila nauk ni. Nahiz eta, aitor dezagun, neuk dudan orain aginte makila.

- Utzi bakean, hortaz. Ez daukazu nire atsekabea zertan gaiztotu. Hil nadin behingoz.

- Ezta pentsatu ere. Dibertitzearren egiten diat. Begira egiok hire haragi puskari. Nola akaina zakur mirrinari, hala lotuta hago lotuta tramankulu eta hodi medikoei. Ez al duk barregarria? Existentzia osoan guxtietsi nauanez, ez zaik whisky beretik edatea txarto etorriko.

Hasia naiz post-existentzian dagokidan lekuaz jabetzen. Arima erratu bat naiz. Linboan nago gatibu, norbere gabeziak onartzen ez dituzten gizagaixoak dauden tokian.

- Nire ahotsari entzungor hintzaion. Ozen esaten nian behin eta berriz: utziok, ez daukak talentu zipitzik. Ez ezak bizitza osoa obsesio zentzugabeko horrengatik hondatu! Frustratuen drama horixe duk: egin nahi zenuketena egiteko gaitasunik ez duzuenez, laguntza erregutzen diozue ahalguztidunari, eta hark erantzuten ez duenez, zorigaitzeko patuaren gonapean babesten zarete.

- Ahalguztidunik ez dago... Mojak entretenitzeko asmakizuna da...

- Hik jakingo duk. Haren eremuetan daukak-eta dagoeneko hanka bat. Emazkiok eskumuinak nire partetik eta, bide batez, esaiok itzul diezaala bidean gal dutako talentua.

- Non da Julia?

- O!, ez izan kuidadorik, konponduko duk bere kasa. Hire aldean kategoriako emakumea duk. Beste oilar batek egingo likek kukurruku hire tormentu amaigabeaz idatzi orde z hura bezalako pertsonaiak baliatu izan bahitu hire narrazioetan. Bota al diok liburu salduenen zerrendari begiratua? Apunta ezak: nerabe banpiroen gorabehera txotxoloak eta Saderen imitatzaile txarren fantasia masokistak. Gaur egun nobela errazak saltzen dituk, tonto arraioa, ez adreilu eldarniatuak.

- Porrota aurpegiratzea beste egitekorik ez dute, beraz, azpikontzientziek?

- Zergatik ari naizen hire ezgaitasuna lau haizetara zabaltzen, heuk jakingo duk. Hik konbokatu nauk! Esadak, horrenbestez, zer arraio nahi duk?

- Arrastoren bat utzi...



Totalka mintzo natzaio. Zegokidan denbora agortzeaz dela ohartu naiz bat-batean.

- Legatu bat uztea zergatik duk hain garrantzizkoa hiretzat? Behin hilda hagoela, ezerk ez dik inportantziarik.

- Ez duzu piperrik ulertzen, ezta? Ez dut bizi direnen memorian lekua egin nahi. Jakin baitakit deus gutxi iraungo lukeela nire akorduak haien oroimean. Eta are gutxiago behar dut nire zerebroko zokomokatik ateratako espektro bat etor dakidan egia hori gogoratzera. Baina nahi nuke legatu bat utzi, bai, izan nintzenaren lorratz bat. Nola marrazten dituzten nerabe maiteminduek haien sentimenduen testigantzak enborretan, hala nahi nuke jaso zezan existentziaren aktak nire izana. Eta behar dut, behingoz bakan hiltzeko. Pasaporterik gabeko bidaiaria bezala aurkitzen bainaiz bestela. Nire existentziaren testigantza xume bat baino ez dut eskatzen.

- Horrexegatik egin huen heure buruaz beste? Bizitzan erdietsi gabeko oihartzuna heriotza boluntario eta bortitzaren inpaktuaz lortzeko... Hi haiz kaikua, ganoraz suizidatzeko ere ez haiz kapaz izan! Apenas dauden hamar metro balkoitik lurrera, kalamidadea! Ez al haiz oraindik jabetzen? Hiltzea jada ez zagok hire

esku! Sona gora eta sona beheara! Utz ezak ospearen ideia txatxu hori bazter batean! Bizidunek ez zietek atzean gelditutakoei begiratzen. Hilotzak ahanzturan usteltzen dituk. Unea heltzen denean aise ahaztuko haute gertukoenek ere, haiei ere iritsiko baitzaie heriotzaren izu alimalekoari aurre egin beharra. Bakoitzak bere zoroa baino ez dik bizi. Hara!, Dostoievski bakarra zagok, eta hura ere iraunean, lauzpabost Alzheimerdunen memorian ahitzen. Izorrai! Bizi hintzenez bezain aspergarria haiz.

- Zoaz pikutara!

- Berriketa gutxiago eta hil hadi behingoz -algara ozena egin du kanpandorreak, aupats moduko bat.

Deskonektatu ditu kableak eta itzali makinak.

Begiak zuloetatik atera beharrean sumatzen ditut. Hatsanka nabil.

- Emazkidak bost minututxo gehiago -erregutu diot-. Eskela duin bat betetzeko curriculuma falta zait, jainkoarren!

Baina desagertu egin da.

Eta aurkitu naiz hezur hutsezko izaki multzo baldar eta fantasmagoriko batzuekin ohe aldamenen. Mamuak dira: xehe-xehe aztertzen naute. Hotzikara

luze bat sentitu dut, munduan nik nahita utzitako lekua puskaka ebatsiko lidaketela iruditu baitzait.

# 16

## *Katarsia*

**Gorputza** bertan dela egin dute Mikel Larrarteren hileta elizkizuna. Zenduaren berariazko nahia omen. Laurari iruditu zaio, nartzisistek azken hatsa eman arte eusten diotela egoa puzteko ahaleginari; bizidunen erretinan presentzia eternoa lortzeko saiakera antzua, egiaztatu duenez, inor gutxi hurbildu da-eta hilotza bekoz beko agurtzera.

Lurak ez ditu elizkizunak gustuko, kortesiak eroan du eliza atarira: sen naturalaren mozal nazkagarri horrek. Bi vodka hurrupa hartu behar izan ditu nagia gainetik kentzearren. Martxa honetan botila erdia beharko du zaborra botatzera jaisteko, hain zaio gogaikarria bizi duen mundua. Kokoteraino dago. Nola janezina bihurtzen zaion bati egunero irensten duena, hala asebate du bere bizimoduak Laura. Ai, oka egite soilaz existentziaren kontagailua hutsean jarriko baltiz! Garai batean emozioz hartzen zituen egunsentiko eguzkiaren errainuak. Edertasun plastikoa zuen leiho azpiko ikuskizunak: haurrek irri egiten zuten eta pilotak ostikoz jo. Harat hona zebiltzan zakurrak, aztora-

tuta, parkean bildutako guraso berrien begiradapean. Atseginak zitzaizkion belar busti usaina, txorien zala-parta alaia eta ilargi betearen perfekzioa. Bereak ez diren leihoak irekiz eta beste nonbait biribildutako ilargiak behatuz aurkitu beharko du galdutako bihotz ikara, harmoniarik gabeko anabasa karrankari honetan ezin baitu arnasarik hartu dagoeneko.

Agurtu ditu Snoopy, Bovary, Marconi. Ez du Livingstone ikusi. Bildu ote du bestelako belardietan bazkan ibiltzeko adore nahikoa?

Kalte egiten dio mikrokosmos toxiko honek. Ezin du jasan.

Kanpoaldean eman dioten liburuxka moduko bat poltsan gorde eta elizara sartu da. Kontxo, pentsatu du, pisatzen zuena baino nekrologia astunagoa egin diote zenduari.

Neska-laguna zena aurreneko ilaran dago. Aldamenean du musuzapiz ekipatutako negarrontzi bat lantu joka, honenak dira auhen bakarrak, erdizka neurritasunak eta erdizka auzo-lotsak ezarritako isiltasunak hartua baitu eliza. Distira gabeak ditu emakumezkoak masailak, ez du ematen oso penatuta dagoenik. Gainontzekoen pentsamenduak haren aieru gaizto igualtsuei emanak ote dauden darabil Laurak gogoan.

Baietz erabaki du, konbentzimenduz baino norbere malezia zuritzearren, gaitza da-eta predikuaren hari monotonoa jasatea. Askoren mina, txoroen atsegina. Itxura gorde beharra kortesia erakustea baino are frustagarriagoa zaio. Aldeetara begiratu du, sarreran jasotako opuskuluari beha daude eliztar gehienak. Begiak arranpalo asko eta asko.

Damuaz mintzo da abadea, kontrizioaren premiaz, ordainak kitatzeaz. Organismo ihartu batek botatako hitz ustelak. Egindakoengatik damutzea baino ez egindakoengatik barkamena eskatu beharra iruditzen zaio Laurari barkaezina. Ahitzear du gasolina. Badaki. Alkohola ez den bestelako erregairen baten premian da bere ilusioa. Arnegatzerik ez, dena den, lehen edandakoak ekarriko diolako geroko egarria.

Utzi du eliza omenaldi patetikoa amaitu baino lehen, eta abiatu da ziztuan etxera. Bera ez den beste norbaitek bultzatuta bezala daroate oinek ordenagailura lehenik eta armairura ondoren. Egin du zotz lauzpabost norako artean eta Tunisia egokitu zaio. Nahia-go luke Rio de Janeiro tokatu balitzaio, caipirinharen zaporearen gomutak hartu dio-eta aho sabaia. On egingo dio mendazko teak. Bazter utzi nahi du alkohola. Zabaldu du ondoren armairua eta bildu ditu udako

arropak bata bestearen gainean. Ganorazko meta egin eta gero maleta egoki baten bila hasi da etsiak hartuta. Ez du egokirik, motxila zarpail pareta besterik ez, ez baita sekula luzarorako inora joan. Zer demonstre eroan liteke itzulbiderik ez duen bidaiara?

Ohe ertzean jesarri da, indarrez hustuta, KO dagoenaren antzera. Bizitzarekin zer egin hausnartzen zuen bitartean erraza suertatzen zitzaion erabakia geroratzea. Bizitzarekin zer egin erabaki duenean, ordea, zalantzek eta galderek erasan diote. Duda-mudetari nabigatuz eman du gaua: ekaitzean desagertutako naufragoa. Zorabiatuta altxatu da goizean. Joan da ile-apaindegira eta egin du manikura. Errotik aldatu du orrazkera, baita ilea gorriminez tindatu ere, inpaktu batek bestea moteldu dezan, bat-batean kopa bat hartzeko gogo bizia sentitu du-eta. Atera ditu sosak banketxetik eta itzuli da lapurraren estualdiaz etxera. Sartu ditu berriz arropak armairuan, keinu soil horrekin memoria hustu nahi balu bezala. Maletarik ez duela egingo erabaki du. Zertarako? Birsortze katartikoa egitera doa. Soinean daramana baino ez du behar. Kameleoiarena egingo du: lekuan lekukoa. Ero-siko du maleta huts bat eta beteko du bidean aurkitzen dituen arropa, oroimen, esperientzia berriekin.

Bota ditu etxeko giltzak zakarretara aireportu sarreran eta nahita ahanzi du sakelako telefonoa kafe-tegiko mostradorean.

- 37.000 oineko altueran nabigatzen gabilta. Bi ordu barru ailegatuko gara Tunisiara, aurreikusitakoa baino hogeiren bat minutu lehenago. Zeruak garbi daude eta eguraldi ezin hobea Tunisiar errepublikan. Bidaia ona izan dezazuela.

Laranja ura eskatu du Laurak eta esku poltsa arakatu du, salto egin aurretik paraxutistak bizkarrean daroan trepeta aztertzen duen eran. Halaxe sentitzen baita: existentzia birjinan lur hartzera doan esploratzailea da. Mikelen nekrologiarekin egin du topo. Poztu egin du aurkikuntzak, sikiera bidaiaren herena entretenitzeko balioko diola iruditu zaio.

### *Kill Bill Revisited*

Zerraldoan dagoena naiz, zuen kakatzetan ehortziko dutena. Hara ba, zuek ere irentsiko duzue nire gorozkietatik! Ez egidazue esan jokaldi azkarra ez denik, pulpitutik zigortzen ari zaizuen agurearen erretolika ez entzutearren zuetako ergelena ere lotuko baitzaio opuskulu honi. Xake mate, nire azken guda



dantza! Kristau txepelak, sikiera gospela erantsiko bali-  
liete biltzar aspergarri hauei! Konformismorik aliena-  
garrienean sustraitutako jaun-andre madarikatuok:  
har ezazue eta jan guztiok honetatik, hau nire artea-  
ren kaliza da-eta, denon apatiak alferrik galtzen utzi-  
tako talentuaren lagina, zuen axolagabekeria hilgarria  
barkatzeko idatzia izan dena. Irakur ezazue kontaki-  
zun hau nire oroigarri.

*SHEZ!*

*suge hilgarrien eskuadroi zitala*

nobela baterako kapitulu zirriborroa:

Emakumez osatutako abangoardiako komandoa:  
SHEZ! Herritarren utzikeria intelektualala gudukatzea  
du helburu.

Barrualdea, egun argiz.

Guggenheim Bilbao, Fish galeria.

Hiru emakumezko Richard Serraren *Denboraren  
materia* eskultura multzoaren aldamenean.

Konposizioko piezak graffiti bizkorrez marraztuta  
ageri dira: zakil eta titi zirriborroak nonahi. Letra larriz  
sloganak: Zerratu Serraren Mokordo Milionarioak! Ath-

Ietic Beti Zoroekin! BBK Liverish! Egizu Zaunka Puppy!  
Tabakalera Amiantozkoa Da!

Niqab bana jantzita daramate hiru komandoki-deek. Ez ditu osorik estaltzen, gerritik behera biluzik doaz. Bilotsuak hiru aluak, depilatu gabeak. Dotore jantzitako hiru gizonetzko galeriako sabaitik eskegita daude, hiru lapur gurutzefikatu legez. Ezinegonak mugitzera behartzen dituenek, penduluak bailiran dabil-tza batera eta bestera.

- Zuetako bakoitzaren izen-abizenak! -deiadar egin du emakumeetako batek-. Ozen eta garbi, alfe-rrontziak!

Emakumeak kamera sofistikatu bat du sorbaldan. Eszena grabatzen dihardu.

- Juan Ignacio Bidarte naiz -erantzun du totalka-, museoko zuzendaria.

Hiru gizonen larritasuna erakusten du kontrapika-tuak. Ikarak baino harridurak mututu ditu: ezinezkoa da txantxa teatral hau euren posiziokoei gertatzea. Erretagoardiako emakumezkoetako batek zigor kol-pea eman dio ipurmasailean erdikoari.

- Andoni Dobaran naiz, zuzendariordea -esan du zigorraren ziztua gertu sumatu duen ezkerrekoak.

- Ni Daniel Vega -ahots meheez mintzo da eskui-  
nekoa-, eduki artistikoen arduraduna.

- Actors Studioko ikasle bikainak dira hiru alproja  
hauek -esan du zigorra airean darabilenak -. Ez dakit  
nik bare nazkagarri hauek seriotan hartzen ote gaituz-  
ten, kamaradak.

Haizatu du berriz zigorra gorantz eta astindu ditu  
hiru gizonen hankak, izterrak eta bizkarrak.

- Utz ditzagun gauzak argi. Hau ez da hain gogo-  
ko dituzuen bakanal lizun horietako beste bat, ados?

Protesta egin dute gizonek:

- Zer zorakeria klase...!?

- Kartzelarekin ordainduko duzue ekintza terroris-  
ta hau!

Mundua talaiatik ikustera ohituta baitaude, urduri  
baina harro mintzo dira hala ere zintzilikatuak.

- Emaien beste pasada bat, kobra hilgarria. Maki-  
la dute maisu astoek.

- Zure aginduetara, boa hilgarria.

Zast! egin du zigorrak airean, sugearen mihiak  
nola, eta urratu egin ditu hiruren trajeak paperezko  
trapuak bezala.

- Aizue, artean aditua naiz -bere burua zuritu nahi  
du eskuinekoak-. Ekintza artistiko guztiak aztertzen

ditut. Biziki interesgarria da performance berritzaile hau. Baditut baliagarri suerta dakizkizuekeen kontaktuak MoMA museoan...

- Snobek asmatutako happening merke horiei deitzen diezu artea? Zer dion, mamba hilgarria, egingo al dinagu MoMA n agerraldi epiko bat?

Mamba bizkorak ez du zirkinik egiten sekulan. Dena kontrolatzen du. Zast!

- Poliziak bidean dira -mehatxu egin die ezkerreko zintzilikatuak-. Kameran bidez ikusi zaituztete. Zuenak egin du!

- Ixo!, inozoa. Geu gara kameraz munduari ekin-tza hau erakusten ari garenak.

- Ez da benetan ari! -lagunak adoretu nahi ditu zuzendariordeak-. Femen yihadista buruarin batzuk besterik ez dira...

- Behatzaile bikaina haiz, zerria! Beste astinaldi bat merezi du erantzun txatxu horrek.

Kobra hilgarriak zigorra astindu du berriro:

- Onar ezazue errudunak zaretela!

- Aitorpenak nahi ditugu, jaunak.

- Baina...

- Aitor dut -amore eman du zuzendariak- gure emazte hanpurutsuek diamantezko lepokoa daroaten

eran darabilgula artea koktel arranditsu eta jauregi aberatsetan...

- Aski da! Beste irain bat eta zuri moztuko dizugu lepoa!

- Zer aitortu behar dugu ba...?

- Kultur eredu turistiko honen arduradunak zareten zomorroak, esaguzue behingoagatik nori dagokien kulturaren norakoa trazatzea.

-Kultura sailburuari...?

Zast!

- Sortzaileei!, tentel halakoa! Putzu ustelduko ez-kailu mirrinak zarete zuek. Ur handitako arrainei ere jarri diegu amua: aldareetako mesiasak, ongizatearen guruak, gatibu gauzkan kaiola honetako liderrak, denak jo-puntuak zaituztegu!

- Hemendik jaisten baldin bagaituzue -beratzen hasi da zuzendaria-, negoziatuko ditugu zuen eskari artistiko eta ideologikoak...

- Tratarari hutsak zarete! Eskrupulurik gabeko trafikatzaileak! Christie's-eko enkanteetan zaildutako abilezia hori ondo etorriko zaizue. Arte kontzeptuala sublimatzen duzuenek, ziur naiz preziatuko duzuela mokofinentzat espresuki sortu dugun performance hau. Twitter bidez jalgi dugu honezkero: hirukote pika-

ro hau salbatu nahi baduzu, esazu gogoko duzula txio hau; kondentatzea erabakitzen baduzu, ordea, bertxiotu. Ezin kexatuko zarete, artelan bihurtu zaituztegu!

-Hau ez da artea sublimatzea, segada baizik! Performance txoro honek ez du aterabiderik...

- Ez al duzue kudeatzaileek gauza bera egiten, ergela? Goibetetik trumoirra eraman herritarra? Tori ordaina!

Laurak aspertuta utzi du opuskulu ziztrina, irakurtzea amaitu gabe. Amorruz abandonatu du jarlekuko zorroan, aldizkari publizitarioekin batera. Apenas iraun dion ordu laurden bat entretenimendu errukarriak. Doako ankerkeria horrek bere onetik atera du. Ahobero negartien tinta errebeldeek jada ez dute hunkitzen. Utikan derrotatuen kexu existentzialistak! Traba baino ez dioten egiten. Nola askatzen zituen Houdinik eskuburdinak, hala limurtzen dituzte norbere erantzukizunak komediante halakoek: profetak, bankariak eta agintariak zaku berean sarturik! Lohia astindu eta birsortzen ez dakienak merezi ote du, ba, bigarren aukerarik?

## *Elefanteen hilerria*

**Kondairak** dio, hilzorian zeuden elefanteak multzoka biltzen zirela urmaeletan, elkarri adorea eman nahian. Ba omen daude agoniatsuen erretiro modukoak gizakien artean ere, non hanka bat lurpean dutenek bestea dantzan jartzen duten: azken bakanala. Ez du Teresak kanposantu atariko udaleku horien arrasatorik aurkitu interneten. Joaneko txartela erosi du. Turistan. Ez zaio iruditu bere egoera negargarriak aparteko alardetik behar zuenik.

Ondo damutu da azafatak zegokion lekura eraman duenean. Etsita kiribildu da gazte baten aldameneko jarleku ñimiñoan. Ez du segurtasun gerrikoa lotzen asmatu. Mutikoak lagundu dio, gogo txarrez. Estu lotu dio, min egiteraino. Teresa ez da kexatu.

Hegazkineko aldizkaria hartu du aireratu bitartean, lasaitzeko. Hiltzera doanak nola izan diezaiokeen istripuari beldur galdegin dio bere buruari, eta bere lekuan utzi du aldizkaria: «Ezinbestean bisitatu beharko zenituzkeen 10 paradisu». Argazkian, hondartza huts exotikoa. Hor egotearren ez luke hogeita

lau orduz luzatuko bere existentzia. Ezta urtebetez ere.

Motorrei eragin die abioiak. Ikara burrunbatsua oinpean. Eskutik heldu dio gazteak. Lotsaz begiratu gero, atrebentziarengatik desenkusatz bezala. Tere-sa ez dago xamurkeriatarako. Hotzikarak eragiten dizkio begikotasunak.

- Barka, andrea -esan du gazteak hegaldia egon-kortu denean, bere izerdi hotz eta likatsua esku gainean.

- Ez da ezer.

- Beñat izena dut. Eta zuk?

- Larrituta zaude...

- Ez nau izutzen hegaldiak, zalantzak baizik -azal-du dio gazteak-. Sekula bidaiatu gabekoa naiz.

- Bazterrak gaizkile maltzurrez josita daude...

Iniziazioko abenturaren hozkirri suspertzailea. Ziurgabetasunaren maldan irrist egin eta inertziak eraman zaitzan utzi. A ze alferra!

- Zorionaren bila noa, *happiness manager* gisa multinazionalen batean jarduteko -sobera urduri dauden modu asaldagarrian mintzo da gaztea.

Happiness ordeztu itxurak egiteko ekarritako poltsa bete oroimen antzu ekarriko dituela iruditu zaio Tere-



sari. Eta zer gobernaturik ez duen manager kokolotzat hartuko dutenez, akaso ordenantza postua eskuratu-ko du erdipurdiko lantegian. Zorionaren kimera gestionatzeko hamar bizitzako irakaspena beharko litzateke-eta gutxienik, pentsatu du Teresak. Eta halako batean hil egingo dela esaten diotenean, ez zaiola piperririk inportako amaitzea. Eta horrexek tormentatuko duela bere agonia, errebeldia faltak, bizitza eroapen gogogabeaz uzteak norbere existentzia gutxiesten duelako. Ideia txoro bat ernatu zaio ondoren: lehertuko ahal da abioia atlantikoaren erdian! Makur darabil pentsamendua Teresak. Hala behar du. Isuriak ditu malko guztiak. Ez du behar negar eta sentimentaltasun gehiago. Higuingarria zaio etsipena. Logika lehorren aginpidea desio du. Eromenaren kaos arduragabea erortzea, bestela.

Lur hartu du hegazkinak. Hasi da Livingstoneren iniazio itzulia. Teresarena helmugara heltzear da.

Jo du taxi geltokira. Beltza gidaria, Venezuelakoa. Eta baldarra. Gizalege handirik gabe hartu du bidaia-ria eta zakar eragiten dio bolanteari bihurguneetan.

- Armaz eragotzi beharko genieke sarbidea moro beltz guzti horiei -esan du, bart etorkin saldoak Europako hesia zeharkatu zuela entzun duenean irratian.

On egiten dio Teresari gordintasunak. Irainek sus-pertu egin dute, makurkeriak kontsolatu. Izuak bakoitzaren alderik ilunena nabarmentzen duela iruditu zaio.

Laztasunez oldartu zaio hoteleko maletazainari, nahiz putz batean garraiatu duen hilkutxaren tamainako maleta astuna. Dama aristokratikoa bailitzan. Modu zakar igualtsuan hartu du harreragilea. Badaezpada ez luke duelua egitera doanaren gar hori galtzerik nahi. Sentiberatasunari amen errukitsurik ez! Behar du, gainera, ohiz kanpoko existentzia beheranzko honek bizi sentiarazi baitu bat-batean: normaltasuna hautsi eta den-dena da desberdina, berezia, bortitza, kitzikagarria. Ankerkeriaz jokatzeari beste erremediorik ez du, zirrara amorratu honek malenkoniara arrastaka eramanez ez dezan.

Eskatu du tabernan bloody mary bat. Dotore, zuhur eta ongi ikasiak iruditu zaizkio bezero dirudunak. Nabarmenkeria eskale pobreen ezaugarria balitz moduan jokatzeko dute. Zenbat eta irriño uzkur eta mintzo delikatuagoa, orduan eta potoloagoa kontu korrontea. Kortesiaren manera kortsetatuak. Hirugarrena edan eta gero sartu da gelan. Bi gizonekin oheratu nahi luke. Organismo infektatuaren behar zikinak!

Hartu dezatela bortxaz, hitz egin diezaiotela era zarpailean. Dominatu dezatela eta txorta jo biek batera. Damu zaio bost izarretako hotela aukeratu izana. Zabarberia horietarako hobe zuen pentsio ziztrin batean ostatu hartzea. Lotsa ulertezin batek galarazten dio 0 zenbakia markatu eta harreragileari eskatzea ekar diezazkiotela bi morroi tatuatu. Azken unerainoko eratasun zikiratzailea.

Zer egiten ote dute hilzorian daudenek kanpamentuetan?

Kanpoaldean haizetea zabaldu da. Lainotxoak batera eta bestera ari dira lasterketa zorabiatuan, hodeitzar beltz batetik iheska balebiltza bezala.

Maleta desegin. Atera prakak, blusak, oinetakoak, kremak, lozioak. Zimurtu eta bota. Jaurti edonora. Sakabanatu bazterretan: komunean, zoruan, ohe azpian. Nahasmena hedatu, gogoia endredatu, pentsamendua entretenitu, heriori ziria sartu.

Piztu du telebista. Baina jada ez zaizkio munduan gertatzen diren kontuak interesatzen, eta itzali egin du berehala. Hartu du bainu bero bat, depilatu ditu hankak eta jantzi du aspaldiko eskote laukidun soineko luze beltz bat. Senarrak sarri aurpegiratzen zion armailuan gordetako arropa zaharrak bazter uzteko

ezintasun hori. Obsesio toxikoa omen. Zorionekoa, bada, trauma; gorputz mirrin hori duela hogei urteko neurrietara kuzkurtu da-eta.

Noble titulu eskuratu berriak kontsolatutako alar-gunaren aldarteaz jaitsi da afaltzera. Eskatu ditu arrain zopa, sancochoa eta gofioa ezti-az. Presaka jan du hiruzpalau mokadu -herdoilduta du ahosabaia - eta apenas probatu duen ardorik, erne egon nahi baitu hurrengo orduetan.

Mehatxagarria da kanpoaldeko iluntasun itzaltsua. Hotza sentitu du bat-batean. Pauso biziz abiatu da gela.

Orduak eman ditu ondoren, zer gordeko eta zer alboratuko duen erabakitzen. Eskegi du amnistiaturako soinekoa armairuko pertxan eta paketatu ditu gero kondenaturako prakak, brusak, kremak, lozioak, kez-kek eta gaitzak.

Nekeak behartuta egin du lo bi orduz, eta gosalduta eta gero eraman du herrestan maletatzarra hall eta korridoretan barrena. Igoarazi du taxira, gurgildun gurdia lortzeko ibili da sesioka aireportuan, arnasestuka eta biraoka garraiatu du leihatilaraino.

Aireratu da abioia Las Palmasen eta lur hartu du Dakarren, Tangerren, Kairon eta Tunisian.

Gauero ohe ezberdin batean iratzarri, arrunkeria-  
ren aurkako lasterketa ero honetan. Gauzen ordena  
naturala eta bere logika eldarniotsu eta basatia desa-  
fiatu. Esnatu eta izarak, gelako hormetako koadroak  
eta usainak arrotzak zaizkizula baieztatu. Ohikeriaren  
atzapar mingarria saihesteko, edozer egin. Desbidera-  
tzea helburu, galtzea. Bizitzaren absurdoa muturrerai-  
no eramatea eta esperimentatzea. Bidea egin. Ibili  
itzaletan eta ibili eguzkitan. Orain azkar, geldoxeago  
gero. Aurrerantz beti, edozelan ere. Nahiz geldialdi  
bakoitzean puskaka hausten ari zaren. Utzi dituzu pra-  
kak Dakarren, brusak Tangerangren, eta krema, lozio eta  
etxeko giltzak Kairon.

Afrikako bero umelaren zapladak hartu zaitu Tuni-  
sian. Aise eraman duzu maletatzarra aireportu kanpo-  
aldera, ez baitu dagoeneko deus pisatzen. Eman duzu  
izena kostaldeko hotel batean eta, hondartzara abiatu  
aurretik, utzi duzu gelan eskuko poltsa. Begirada txe-  
ratsua luzatu diozu izan zarenaren aztarrenak biltzen  
dituen zorro higatu horri. Hortxe daude dirua, norta-  
sun agiria, kreditu txartelak. Hasperen egin eta gela-  
ko atea itxi duzu.

Hor gelditu da Teresa izandakoaren herentzia pa-  
tetikoa.

Hotz ote dago itsasoko ura?

- Arrautzak egos litezke itsasoan -esan du zure bizkarrean emakumezko ahots batek-. Zerikusirik ez Atlantikokoarekin.

Gorritz tindatua du ilea. Labur-labur moztua. Aldre-besten hasitakoen ukitua sumatu diozu. Biluzik dago, hondarretan etzanda.

- Oporretan? -galdetu diozu, zera pentsatu duzun bitartean: «Besterik ez nuen behar, pitzatutako ainguru guardakoa!; Teresa, patuak ez zaitu aintzat hartzen ezertan».

- Halako zer bait. Egunerokotik ihesi -azaldu dizu-. Laura dut izena.

Zutitu egin da. Bostekoa eman diozue elkarri. Bekaitzez begiratu diezu Lauraren titi tinkoei.

- Bada zer bait nora itzuli behar ez zenukeen jakitea -esan diozu-. Teresa naiz ni, urte askotarako.

- Sikiera norantz noan jakingo banu...

Ez zaizu iruditu galduta egoteak asko arduratzen duenik.

- Ezjakintasunak haizea emango dizu. Okerragoa da itzulbiderik gabeko helmugara ailegatzea. Are gehiago zeharkaldia norekin egiterik ez baduzu.

- Dibortziatua?

- Desegite bidean, erabat -erantzun diozu-. Kasik libre.

Hats bizian zaudela esan nahi zenioke ordea, urkamendirantz zoazela.

- Tira, bizitza berri bati ekingo diozu hortaz!

Pentsatu duzu: «Bai, absentzian». Baina esan duzu:

- Eri hiletsia naiz. Ez dago bigarren aukerarik niretzat.

Ez duzue solasa sobera luzatzerik nahi izan. Biluzik ekin nahi dio Laurak bere bizimodu berriari, bigarrenez jaiotakoa bezala. Instintuaren haziak eta emanzipazioaren obuluak ernaldutako existentziaren likido amniotikoan dabil plisti-plastaka, urak noiz egingo zain.

Biluztu egin zara zu ere.

- Uretara noa.

Zure arropak, izan zarenaren azken arrastoak eskaini dizkiozu, hotz egiten hasi da-eta kanpoalde honetan. Gustura jantzi ditu.

- Txandakako lasterketan lekukoa hartu duenaren tankeran biziko naiz -esan du-, pausoetako bakoitza lehena balitz bezala.

Irribarre egin duzue biek.

- Adio.

Utzi duzu olatuak aurrena oin bat busti diezazun eta sartu zara gerriraino. Hasi zara igeri ortzi-mugarantz. Jada maletatzarraren zama ez daroazunez, arin sentitzen zara eta esfortzurik gabe barruratu zara ur handitan.